

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua**  
Ikasturtea: 2023-2024

**INKLUSIOA GORPUTZ HEZKUNTZAN**

**IRAKASLEAREN IKUSPEGITIK**

EGILEA: Olaia Lizeaga Otaño

ZUZENDARIA: Uxue Fernandez Lasa

2024ko ekaineko deialdia

## AURKIBIDEA

<b>1. LABURPENA ETA GAKO HITZAK</b> .....	4
<b>2. SARRERA</b> .....	5
<b>3. JUSTIFIKAZIOA</b> .....	6
<b>4. EGOERAREN ANALISIA</b> .....	7
4.1. INKLUSIOA.....	7
4.2. GORPUTZ HEZKUNTZAKO EREDU NAGUSIA .....	8
4.3. GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA .....	10
4.4. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK GORPUTZ HEZKUNTZAN .....	11
4.4.1. AUKERAK eta ONURAK.....	11
4.4.2. ZAILTASUNAK eta OZTOPOAK.....	13
4.5. PROFESIONALEN ROLA .....	15
4.5.1. FORMAZIOA .....	16
4.5.2. PROFESIONALEK GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA IKUSTEKO MODUA.....	17
4.5.3. IRAKASLEAREN ERAGINA GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOAN .....	18
<b>5. LANAREN HELBURUA</b> .....	21
<b>6. METODOLOGIA</b> .....	21
6.1. DISEINU MOTA.....	21
6.2. PARTE HARTZAILEAK.....	21
6.3. DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK .....	22
6.4. DATUEN ANALISIA.....	22
6.5. IRIZPIDE ETIKOAK.....	23
<b>7. EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b> .....	24
7.1. GORPUTZ HEZKUNTZAKO EREDU TRADIZIONALA .....	24
7.1.1. IKASGELAREN ANTOLAKETA eta EBALUAKETA .....	24
7.2. GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA .....	26
7.2.1. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN PARTE HARTZEA .....	26
7.3. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK .....	29
7.3.1. ONURAK .....	29
7.3.2. OZTOPOAK .....	31
7.4. PROFESIONALAK .....	33
7.4.1. JASOTAKO FORMAKUNTZA .....	33
7.4.2. IRAKASLEAREN GARRANTZIA .....	36
<b>8. ONDORIOAK</b> .....	39

<b>9.</b>	<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b>	40
<b>10.</b>	<b>ERANSKINAK</b>	51
10.1.	BAIMEN INFORMATUA	51
10.2.	ELKARRIZKETA GIDOIA	53
10.3.	ELKARRIZKETAK	56
10.3.1.	NAIAREN ELKARRIZKETA	56
10.3.2.	ILARGIREN ELKARRIZKETA	66
10.3.3.	GORKAREN ELKARRIZKETA	75

## **1. LABURPENA ETA GAKO HITZAK**

Desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan zailtasunak dituztela oinarri hartuz, ikerketa honen helburua, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko egoera aztertzea da. Hau guztia analizatzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen ahotsak bildu eta aztertu dira metodologia kualitatiboa erabiliz. Sakoneko elkarrizketak egin dira, horietan parte hartzaileak hiru irakasle izanik. Horien bitartez, parte-hartzaileen esperientziak, bizipenak eta ikuspuntuak ezagutu dira. Emaitzak lau ataletan banatu dira, hala nola, gorputz hezkuntzako eredu tradizionala, gorputz hezkuntza inklusiboa, desgaitasunak dituzten pertsonak eta profesionalak. Emaitzetan ikusi da, gorputz hezkuntzan, gaur egun, gela bananduak edo inklusiboak daudela. Horrez gain, desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzeak dakartzan onurak nabarmentzen dira, baina pertsona hauek hainbat oztoporekin topo egiten dute era berean. Desgaitasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten profesionalak dagokionez, formakuntza eskasa dutela berretsi da eta haien jarrerak ikasleak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan eragin handia duela. Bukatzeko, ikerketan ondorioztatu da desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza inklusibo arrakastatsu bat praktikatu ahal izateko, oraindik lan handia falta dela.

*HITZ GAKOAK: inklusioa, desgaitasunak, jarduera fisikoa, hezkuntza, profesionalak.*

## **RESUMEN**

Tomando como base las dificultades que encuentran las personas con discapacidad a la hora de practicar la educación física, el objetivo de esta investigación es analizar las experiencias del profesorado de educación física de las personas con discapacidad y analizar la situación en torno a la educación física inclusiva. Para analizar todo esto se han recogido y analizado las voces del profesorado de Educación Secundaria Obligatoria utilizando una metodología cualitativa. Se han realizado entrevistas en profundidad en las que los participantes son tres profesores. A través de ellos se han conocido las experiencias, vivencias y puntos de vista de los participantes. Los resultados se han dividido en cuatro apartados: el modelo tradicional de la educación física, la educación física inclusiva, personas con discapacidad y profesionales. En los resultados se observa que, en Educación Física actualmente, hay aulas separadas o inclusivas. Además, se destacan los beneficios que aporta la práctica de la educación física a las personas con discapacidad, pero también se encuentran con muchas barreras. En cuanto a los profesionales que trabajan con personas con

discapacidad, se confirma que tienen poca formación y que su actitud influye mucho en la práctica de la educación física por parte del alumnado. Finalmente, en el estudio se ha llegado a la conclusión de que para que las personas con discapacidad puedan practicar una educación física inclusiva de éxito, aún falta mucho trabajo.

*PALABRAS CLAVES: inclusión, discapacidad, actividad física, educación, profesionales.*

## **2. SARRERA**

Azkenaldian hobekuntzak egon dira desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan, hala ere, askotan uste da hobekuntza horiek eman direnez oztopoak desagertu egin direla edo hauek oso gutxi direla, baina oraindik oztopo askorekin aurkitzen dira desgaitasunak dituzten pertsona gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan. Gaur egun, gorputz hezkuntza inklusiboa funtsezko eremua da pedagogian, izan ere, ikasleen trebetasun, behar eta testuinguruen aniztasunak arreta berezia eskatzen du egungo gorputz hezkuntza ereduak.

Ildo horretatik jarraituz, irakasleen zeregina funtsezkoa da ikasle guztien parte hartze osoa eta esanguratsua sustatuko duen gorputz hezkuntza inklusiboa sortzeko, bakoitzaren ezaugarriak edozein izanik ere. Irakasleen ikuspegitik, gorputz hezkuntza inklusiboak aniztasunarekiko eta ekitatearekiko konpromisoa eskatzen du, baita ikasle guztien parte hartze aktiboa eta esanguratsua sustatzen duten ikuspegi pedagogikoak eta metodologiak erabiltzea ere. Horrek barne har ditzake jarduerak egokitzea, errespetuzko eta onarpeneko giroa sustatzea, eta beste profesional batzuekiko lankidetzeta, ikasle bakoitzaren premia indibidualak asetzeko. Beraz, gorputz hezkuntza inklusiboaren testuinguruan, irakasleek funtsezko zeregina dute ikasle guztien inklusioa, elkarrekiko errespetua eta garapen integrala sustatuko duten hezkuntza inguruneak sortzeko.

Ikerketa honen helburu nagusia, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntzaren inguruko ekarpenak egitea delarik, ikerketa aurrera eramateko, lana atal ezberdinetan antolatu da. Hasteko, literatura zientifikoan oinarritutako egoeraren analisia egin da, batez ere, gorputz hezkuntza inklusiboa, horren onurak eta zailtasunak, eta profesionalen ikuspegia oinarritzat hartuz. Horren ostean, lanaren helburuak eta aplikatutako metodologia azaldu dira, metodologia kualitatiboa izanik. Jarraian, elkarriketetan jasotako informazioa analizatu da, ondoren, informazioa horren eztabaida sakona egin da, eta bukatzeko, ondorioak atera dira.

### **3. JUSTIFIKAZIOA**

Gorputz hezkuntza inklusiboa gero eta garrantzi handiagoa duen gaia da hezkuntzaren esparruan, ikasle guztiek, bakoitzaren ezaugarriak gorabehera, gorputz eta kirol jardueretarako sarbide zuzena izatea bermatu nahi baitu. Irakasleen ikuspegitik, funtsezkoa da gai horri heltzea, funtsezko eginkizuna baitute inklusioa eta elkarrekiko errespetua sustatzen duten hezkuntza inguruneak sortzeko.

Irakaslearen papera ezinbestekoa da esparru honetan, gorputz hezkuntzako gelek ikasleen aniztasuna islatzen dute, trebetasun, behar eta testuinguru indibidual ugari dituzten ikasleekin. Funtsezkoa da irakasleak aniztasun horri heltzeko eta beren praktika pedagogikoak ikasle guztien beharrak asetzeko egokitzeko prest egotea. Gainera, irakasleak hainbat erronkari egiten diote aurre gorputz hezkuntzaren eremuan inklusioa sustatzen saiatzean, hala nola, baliabiderik eza. Erronka horiek ulertzea eta horiek gainditzeko estrategiak aurkitzea funtsezkoa da gorputz hezkuntza inklusiboaren kalitatea hobetzeko.

Horrez gain, gorputz hezkuntza ezinbesteko irakasgaia da ikasle guztientzako, gorputz hezkuntzak ez baitu soilik osasun fisikoa sustatzen, ikasleen garapen soziala, emozionala eta kognitiboa ere sustatzen ditu. Ikasle guztiek jarduera horietan bete-betean parte hartu ahal izango dutela bermatzen denez, irakasleek norbanako bakoitzaren garapen integralari laguntzen diote.

Beraz, gorputz hezkuntza inklusiboari buruzko ikerketak egitea funtsezkoa da hezkuntza eremuan ikasle guztien ekitatea, inklusioa eta garapen integrala sustatzeko. Ikerketa mota honek onura teorikoak emateaz gain, eragin praktiko esanguratsua ere badu eskoletan gorputz hezkuntza irakasten eta praktikatzen den moduan.

Bukatzeko, aipatzekoa da, nire kasuan graduko praktikak desgaitasunak dituzten pertsonekin egin ditudala, eta horrek piztu duela nire interesa gai honen inguruan. Praktiketan, desgaitasun desberdinak dituzten pertsonak ezagutzeko aukera izan dut, eta esperientzia horri nire hezkuntzarako eta kirolerako grina gehituz, ikerketa hau egiteko aukera izan dut.

## **4. EGOERAREN ANALISIA**

### **4.1. INKLUSIOA**

Gaur egun, oraindik ere, pertsona askok inklusioa eta integrazioa terminoak desberdintzeko zailtasunak dituzte. Semantikoki, inklusioak eta integrazioak esanahi oso antzekoak dituzte, eta ondorioz, pertsona askok aditz horiek berdin erabiltzen dituzte. Hala ere, gizarte-mugimenduetan, inklusioan eta integrazioan filosofia desberdinak irudikatzen dira, nahiz eta itxuraz helburu berdinak izan, hau da, desgaitasuna duten pertsonak gizartean txertatzea (Adirón, 2005). Gai horri buruzko gaizki ulertuak hor hasten dira, pertsonak "inklusio" terminoa erabiltzen dutenean, benetan "integrazioan" pentsatzen ari direnean (Adirón, 2005). Beraz, ondo bereizi behar dira bi termino horiek, alde batetik, "inklusioa" esaten denean, gizarteratzea erabatekoa eta baldintzarik gabekoa da, desgaitasuna duten haurrek ez dute eskola erregularrerako "prestatu" beharrik. Beste aldetik, "integrazioa", gizarteratze partziala eta baldintzatua da, haurrak eskola edo eskola berezietan "prestatzen" dira, eskola edo gela erregularretara joan ahal izateko (Adirón, 2005).

Gizarte inklusiboaz hitz egitean, giza aniztasuna balioesten duen eta norbanakoen desberdintasunak onartzea indartzen duen gizarteaz hitz egiten da (Adirón, 2005). Horren barruan, elkarrekin bizitzen, elkar laguntzen eta guztientzako benetako aukeren mundu bat eraikitzen ikasten da, eta horretarako, ez da nahitaezkoa denak berdinak izatea. Beraz, bakoitza bestearen bizi-kalitatearen erantzule den gizarte bat eskatzen du horrek, nahiz eta pertsona batzuk oso desberdinak izan (Adirón, 2005).

Inklusioa hitza arrunta bihurtu da gizadiaren garapenaren hainbat esparrutan, horrela, hitz hori hainbat sektoretan entzuten delarik, hala nola, legegintzan, osasunean, hezkuntzan, nazioarteko harremanetan edo komunikazioetan, besteak beste (Plancarte Cansino, 2017). Inklusioa erronka handia da, hezkuntzan eztabaida eta prozesu luze baten gaia izan da. Horren helburu nagusia, munduko hezkuntza-sistema gehienetan dauden bazterkeriei, diskriminazioei eta hezkuntza-desberdintasunei aurre egitea izan da (Plancarte Cansino, 2017).

Echeitak (2006) dioenez, inklusioa termino labainkorra da nazioarteko testuinguruan, eta aditzera ematen du horri buruzko ikusmolde ugari daudela, horietako bakoitzak garrantzia handiko alderdiren bat azpimarratzen duelarik. Hala ere, hezkuntza inklusiboaren izendatzaile komuna, gizarte-bazterkeria murriztea dela adierazi du.

Hezkuntza-inklusioa ikasle guztien sarbidearekin, parte-hartzearekin eta lorpenekin lotuta dago, baztertuak direnei edota baztertuak izateko arriskuan daudenei arreta berezia

eskainiz. Eskoletako kultura, politikak eta praktikak eraldatzea dakar, ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzuteko (Ainscow, 2001; Arnaiz, 2003; Blanco, 2006; Booth, 2006; Echeita, 2006).

UNESCOK (2009) adierazi bezala, hezkuntza inklusiboa Guztientzako Hezkuntza lortzeko estrategia giltzarritzat jotzen da, 1990ean onartu zen adierazpenean, hezkuntza gizarte zuzenago eta berdinzaleago baten oinarritzako eta funtsezko giza eskubidea dela abiapuntutzat hartuta.

Kirolaren ikuspuntutik, kirola inklusioa eta gizarteratzea sustatzeko tresna bihurtzen da, eta desgaitasuna duten pertsonen egoera emozionala hobetzeko giltza du, autoestimua hobetzen baitu lorpena gainditzean (Muñoz et al., 2017). Gainera, garapen pertsonalean ere eragiten du, autokontrola, autokonfiantza, identitatea eta autokontzeptu positiboa garatuz. Onura sozialen artean hainbat dira aipatzekoak, batik bat, interakzio soziala, talde ikaskuntza, arauak errespetatzea, arazoak ebatzea eta bulkadak kontrolatzea (Muñoz et al., 2017).

Kirol-inguruneetan edo mugimendua dakarten inguruneetan sartzeak, hala nola, gorputz-hezkuntzan, onura ugari dakartza, konkretuki, gaitasun desberdinak dituzten pertsonak hobeto onartzen dituzte eguneroko bizitzako jardueretan, bizi-kalitatea hobetzen dute eta gaitasun soziala handitzen dute (Block, 1994; Reina, 2014). Inklusioak gorputz hezkuntzan antzeko adinak dituzten ikasleen arteko interakzioak ahalbidetzen ditu, isolamendu-sentimenduak murriztuz, pertsonen itxaropenak areagotuz, jarrerak aldatuz edo desberdintasunak onartzen lagunduz, eta horrela, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta aukera-berdintasuna areagotuz (DePauw eta Doll-Tepper, 2000; Ocete, 2016).

#### 4.2. GORPUTZ HEZKUNTZAKO EREDU NAGUSIA

Gorputz-hezkuntza, bere eredu tradizionalan, hezkuntza-sistemaren zati integrala izan da hamarkadetan zehar, batez ere, kirol-jardueretan eta jolas lehiakorretan zentratuz. Hala ere, ikuspegi horrek erronka esanguratsuak planteatu ditzake inklusioari dagokionez, sarritan baztertu egiten baititu molde atletiko konbentzionalera egokitzen ez diren edo behar bereziak dituzten ikasleak (Fernández-Rio eta Méndez-Giménez, 2016).

Gorputz-hezkuntzaren eredu tradizionalak praktika komun batzuk ditu ezaugarri. Klaseak ohiko kirol-jardueren inguruan egituratu ohi dira, hala nola, saskibaloia, futbola, boleibola eta beste diziplina lehiakor batzuk (Fernández-Rio eta Méndez-Giménez, 2016). Jarduera horiek trebetasun fisiko espezifikoak garatzera bideratzen dira, hala nola, abiadura, indarra eta koordinazioa, ikasleak arlo horietan duten errendimenduaren arabera ebaluatzen dira (Fernández-Rio eta Méndez-Giménez, 2016).



Gainera, gorputz-hezkuntzako eskola tradizionalak zuzeneko heziketa-ikuspegia izaten dute, eta irakasleak trebetasun espezifikoak irakasten ditu eta ikasleek programatutako jardueretan duten parte-hartzea gainbegiratzen du (Castillo et al., 2001). Horrek esplorazio-eta autoadierazpen-aukerak muga ditzake, baita ikasleen behar indibidualetara egokitzea ere (Castillo et al., 2001).

Gorputz hezkuntzako ebaluazio-eredu tradizionalari dagokionez, gorputz hezkuntza arloko hiruhileko edo ikasturte baten amaieran ikasleak kalifikatzeko baldintza fisikoaren eta/edo mugitzeko gaitasunaren testa sistematikoki erabiltzeaz ari da. Normalean, ikasleen kalifikazioak test horietan lortutako emaitzetatik lortzen dira, edo gutxienez, testen ehuneko batetik. Horren inguruko zenbait kasu daude, aplikatutako ehunekoen, taula normalizatuen edo aplikatutako progresio-irizpideen arabera daudenak (Bernardino et al., 2006).

Hainbat arrazoi daude ikasleak gorputz hezkuntzako arloan kalifikatzeko ohiko baldintza fisikoaren edota mugitzeko trebetasunaren testak aplikatzeari uzteko. Lehenik eta behin, kasu gehienetan, ebaluazio-sistema horiek modu inbertsonalean eta objektibotasunarekin kalifikatzeko erabiltzen dira (Bernardino et al., 2006). Ez dago hezkuntza- edo prestakuntza-asmorik, edo oso gutxi. Kalifikazio bat ematea beharrezkoa denean erabiltzen dira, hori baita errazena eta erosoena, nahiz eta garatutako helburu eta edukiekin bat ez etorri. Era berean, horietara jo daiteke neutraltasuna eta konponbide teknikoa dutelako, edozein motatako erreklamazioak edo inplikazio pertsonala saihesteko (Bernardino et al., 2006).

Bigarrenik, gorputz hezkuntzaren helburu hezitzaileak, hala nola, giza mugimenduaren ezaugarri baliotsu eta konplexuenak, ezin dira neurtu test fisiko eta motorrekin. Zer gertatu ohi da orduan gorputz hezkuntzaren ebaluazio-eredu baten nagusitasuna mailaz maila eta belaunaldiz belaunaldi errepikatzen denean? Agian, gorputz hezkuntzako irakasleen ehuneko handi batek honako irtenbideen alde egitea: formazio neurgarria eta erregistragarria irakastera mugatzen da, edo ebaluatzen ez duen curriculum-diseinu konplexuago eta hezitzaileagoa egiten du, kalifikazio-ordua iristen denean errendimendu-testen eredu nagusira egokitzen baita, denbora-tarte horretan garatutako curriculumarekin bat etorri ala ez. Bi irtenbideetako batek ere ez dirudi onargarria denik, planteamendu didaktiko eraginkor eta arduratsu batetik (Bernardino et al., 2006).

Azkenik, gainerako gaiekin batera, nolabaiteko beldurra egon ohi da beste ebaluazio-prozesu batzuetan sartzeko; bai beste eduki batzuetan, bai metodologia desberdinetan, ustez ez baitira hain objektiboak eta neurgarriak; bereziki, konpromiso pertsonal handiagoa eskatzen

duten ebaluazio-prozesuetan parte hartzeko, hala nola, ebaluazio partekatuan. Kasu askotan, beldur horiek, batez ere, prestakuntza faltagatik edo horiek gauzatzeko baliabideak ez ezagutzetik sortzen dira (Bernardino et al., 2006).

Hezkuntza-kulturan errotuta dagoen arren, gorputz-hezkuntzaren eredu tradizionalak erronka garrantzitsuak ditu inklusioari dagokionez. Desgaitasun edo trebetasun fisiko desberdinak dituzten ikasleek oztopoei aurre egin diezaiekete ohiko kirol-jardueretan bete-betean parte hartzeko (Hutzler eta Bar-Eli, 1993). Gainera, kirol lehiakorretan interes berezirik ez dutenak baztertuta edo motibaziorik gabe senti daitezke ingurune horretan (Hutzler eta Bar-Eli, 1993).

Beraz, bukatzeko, gorputz-hezkuntzaren eredu tradizionalak, tradizioan errotuta badago ere, erronka esanguratsuak planteatzen ditu inklusioari dagokionez. Erronka horiei heltzeko, funtsezkoa da ikuspegi inklusiboagoa hartzea, ikasle guztien trebetasunen, interesen eta beharren aniztasuna aintzat hartu eta baloratuko duena (Fernández-Río eta Méndez-Giménez, 2016). Horrek esan nahi duena da, praktika pedagogikoak birpentsatu behar direla eta curriculum bat diseinatu behar dela, gorputz-hezkuntzaren eremuan ikasle guztien parte-hartze ekitatibo eta esanguratsua sustatzeko (Fernández-Río eta Méndez-Giménez, 2016).

#### 4.3. GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA

Aurretik aipatutako gorputz hezkuntzaren eredu nagusia alde batera uztea erronka zaila dela dirudi, eskola-integrazioa lorpen sendoa baita Europako herrialde gehienetan. Baina, integrazioaren esparruan ere, hezkuntza-jardunek segregatzaileak eta baztertzaileak izaten jarraitzen dute. Kasu gehienetan, eskola ez da aldatu zailtasunak dituzten pertsonak onartzeko, lehen hezkuntza bereziko zentro espezifikoetan artatzen baitziren (Berruezo, 2006).

Leithwood eta kideek (1999) proposatzen dute, aniztasunaren etengabeko hazkundera kontuan hartuta, eskolek ziurgabetasunari etekina atera beharko lioketela, arazoak kolektiboki konpontzeko gaitasun handiagoa izan beharko luketela eta ikasle-aniztasun handiagoari erantzuteko gai izan beharko luketela.

Zertan datza heziketa fisikoak? Lehenengoa, "hezkuntza", irakasleen esku-hartzearen arazoia da: ikasleen hezkuntza integralean laguntzea. Bigarren kontzeptua, "fisikoa", bitartekoa da: gorputza eta bere mugitzeko aukerak, ikasleei bizitza osoan lagunduko dien eta oso txikitatik zaindu beharko duten gorputza (Aguilera, 2017). Kirola egiten dutenek, jarduera fisikoa egitea gustuko dutenek edo egoera fisikoan maila onargarria dutenek ez ezik, guztiek parte hartu behar dute ikasgelan, salbuespenik gabe (Aguilera, 2017).

Bestalde, unibertsitateko ikasleekin egindako lan batean jarduera fisikoa eta kirola antolatzeko nola jardun daitekeen proposatu zen, 6 eredu desberdin planteatzen dituztenak (Reina et al., 2018).

Ilido berdinarekin jarraituz, Reina eta kideek (2018) jarduera fisikoan eta kirolean jarduteko desgaitasunen bat duen pertsonak izan ditzakeen rol desberdinak azaltzen dituzte. Lehenengoa eta seigarrena kirol erregularrei dagokie, lehenengoan, desgaitasuna duen pertsonak ezingo du parte hartu kirol erregularrean jokalariaren rolaekin, baizik eta, beste ardura espezifikoa bat emango zaio, entrenatzailea edo epailea bezalakoak. Seigarrenean, ordea, kirol erregularra normaltasunez burutuko da, bere arauekin.

Bigarren eta hirugarren rolak kirol espezifikoa edo para-kirol bati dagozkio, bigarrean, kirol espezifikoa eta para-kirol hori desgaitasuna duten pertsonak bakarrik burutuko dute. Hirugarrenean, berriz, desgaitasunik ez duten pertsonak ere parte hartzaile izango dira, baina para-kirol horren arauekin eta desgaitasuna duten pertsonak praktika horretan dituzten mugak simulatu beharko dituzte desgaitasunik ez dutenek (Reina et al., 2018).

Azkenik, laugarren eta bosgarren rola kirol inklusiboa sustatzen dute, laugarrenean, kirol modalitate erregularra burutuko da, baina taldearen dinamika osoan eragiten duten egokitzapenekin, eta pertsona bakoitzak praktika bere aukerekin egingo du, hau da, behar dutenak muletekin, gurpildun aulkian edo mugarik gabe. Bosgarrenean ere kirol modalitate erregularra burutuko da, baina kasu honetan egokitzapenak desberdinak izango dira, egokitzapenak desgaitasuna duen pertsonari bideratuak izango dira, praktika burutzeko eduki ditzakeen muga horiek konpentsatzeko (Reina et al., 2018).

#### 4.4. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK GORPUTZ HEZKUNTZAN

Desgaitasuna duten pertsonen onurak eta oztopoak ikertzen direnean, garrantzitsua da desgaitasuna duten pertsonen esperientzia eta bizitza-aldaketak ulertzea. Pertsona bakoitzaren desgaitasuna edozein motatakoa izan daiteke, eta pertsona bakoitzak bere desgaitasunaren araberrako erronkak eta beharrak izan ditzake.

##### 4.4.1. AUKERAK eta ONURAK

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako, gorputz-hezkuntzak eta kirolak onura garrantzitsuak eskaintzen ditu, alderdi fisikoak, emozionalak eta sozialak barne hartzen dituztenak (Kelleher, 2012).

Osasun fisikoaren hobekuntzari dagokionez, jarduera fisiko egokitueta edo inklusiboetan parte hartzeak osasun kardiobaskularra, giharretako indarra, malgutasuna eta erresistentzia hobetu ditzake desgaitasuna duten pertsonengan, eta horrek bizimodu osasungarriagoa lortzen laguntzen du (Kelleher, 2012). Gainera, mugimen-trebetasunen garapena ere lortzen da, gorputz-hezkuntzak, desgaitasuna duten pertsona horiei egokituak, oinarrizko mugimen-trebetasunak eta trebetasun aurreratuak hobetzen laguntzen du, eta horrek eguneroko jardueretan autonomia eta independentzia areagotu ditzake (Block, 2007).

Osasun emozionalaren hobekuntzari dagokionez, alde batetik, autoestimua eta konfiantza hobetzen da, jarduera fisiko egokitueta parte hartzeak lagundu diezaiekeelako desgaitasuna duten pertsonen beren trebetasunetan konfiantza handiagoa garatzen eta autoestimua hobetzen (Stapleton, 2016). Beste alde batetik, estresa eta antsietatea murrizten dira, ariketa fisikoak estresaren eta antsietatearen mailak murrizten lagun dezake, eta hori bereziki onuragarria izan daiteke desgaitasuna duten pertsonentzat, eguneroko bizitzan erronka gehigarriak izan baititzakete (Shields, 2013).

Gizarteratzea sustatzen ere laguntzen du, gorputz-hezkuntza inklusiboak desgaitasunik ez duten pertsonekin elkarreragiteko eta gizarteratzeko aukerak ematen ditu, inklusioa eta onarpena sustatuz (Hutzler eta Sherrill, 2007).

Gorputz Hezkuntza inklusiboko ikasgelan ikasle guztiek elkarrekin lan egiten eta ikasten dute, denak desberdinak direla jakitun izanik ere. Horri esker, ikasgelako ezberdintasunetik aberastu daiteke, eta hori, onuragarria da ikasleen etengabeko ikaskuntza prozesuari dagokionez (Bello, 2020).

Gainera, esperientzia inklusiboa duten irakasleek jarrera hobeak dituzte eta errazago gainditzen dituzte aurreiritziak. Izan ere, eskola inklusiboak profesionalen dinamismoa sustatzen du, eta horrek, lan egiteko modu berriei buruzko hausnarketa handiagoa egitea dakar, komunitatearen, familien eta irakasleen arteko lankidetzari esker (Raimundo, 2014).

Gorputz-hezkuntzako gela inklusibo batean lan egiteak hainbat onura dakartza. Lehenik eta behin, ikasle guztiek gorputz-hezkuntzako gelan aktiboki parte hartzea. Horren bidez, gizarte-elkarreraginak, desinhibizioa eta talde-kohesioa sustatzen dira. Gainera, ikaskuntza aberasgarriagoa da ikasgelako parte-hartzaile bakoitzaren ezaugarri desberdinei esker, guztiak guztiengandik ikasten baitute (Ocete, 2016).

Bigarrenik, balio moralak etengabe garatzea, eguneroko bizitzan aplikatu daitezkeenak eta ez bakarrik gorputz-hezkuntzan aplikatzen direnak. Balio moralekin, ikasleen interakzio

fisikoaren bidez garatzen diren ekintza edo ezaugarri positiboek hitz egiten da, nahita edo nahi gabe, hala nola, errespetua, laguntasuna, lankidetzeta eta zintzotasuna. Hauek pertsonen bizitzarako eta nortasunerako garrantzitsuak dira (Katsuki et al., 2015).

Gainera, ikasleengan gizarte-trebetasunak garatzea beste onura bat da, ingurune horrek ematen duen funtzio sozializatzaileari esker. Gorputz-hezkuntzako ikasgelan ezaugarri desberdinak dituzten ikasle guztien parte-hartzeari esker, tresna gehiago eskuratzen dituzte (Ocete, 2016). Horren harira, giza prestakuntza egokia sustatzen da, eta horrek herritartasun ona edo portaera soziala eskatzen du. Ezaugarri honek lotura estua du aurrekoarekin, izan ere, balio moral positiboak garatzeari eta eskuratzeari esker, ikaslea, berez, portaera sozial egokia duen herritar ona izatera igarotzen da (Katsuki et al., 2015).

Isolamendua murriztea ere beste onuretako bat da, berdinen arteko jarrera aldatzea, bakoitzaren eskubideak onartuz eta ulertuz. Gorputz Hezkuntzako klasea inklusiboa denean, balio batzuk transmititzen zaizkie ikasleei, denak batera lan eginez eta denak desberdinak direla kontuan hartuz (Ocete, 2016). Horren harira, taldeko kide izatearen sentimendua sustatzen da. Ezaugarri hori integraziotik sustatu nahi denean, inklusiotik beharrean, ikasleei irakasten zaie pertsona jakin batzuk beren ezaugarriengatik lekualdatzen, eta beraz, ikasleek alderdi hori ikasiko dute, hitzik gabeko komunikazioaren bidez transmititzen bada ere. Aitzitik, ikasle guztiak ikasgelan aktiboki parte hartzeari esker eta pertsona guztiak desberdinak direla jakinda, taldeko kide izatearen sentimendua areagotu egiten da, inork ez baitu inor ordezkatzeko (Ocete, 2016).

Azkenik, ikaslearen banakako aukerak sustatzen ditu, motrizitatearen ikuspegi orokor batetik. Ikasleen eskola-bizitzan, motrizitatea lantzen da, Lehen Hezkuntzako alderdirik oinarrizkoenetik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan trebetasun konplexuagoak eskuratzeraino. Azken etapa horietan, beren egoera fisikoa garatzeko baliagarriak izango zaizkien ezagutzak eskaintzen zaizkie, bizimodu osasuntsua mantenduz modu autonomoan, eta jarduera fisikoa garatzeko aukera desberdinak emanez, hala nola, ingurune naturalean (Malan, 2010).

#### 4.4.2. ZAILTASUNAK eta OZTOPOAK

Gorputz-hezkuntzaren arloan, desgaitasunak dauzkaten ikasleek parte hartzeko eta ikasteko dituzten oztopoei buruzko azterketa honetan zentratu aurretik, zehaztu behar da gorputz-hezkuntza inklusiboaz hitz egiten denean, ikasle guztiek espazio bera partekatzen dutela, desberdintasunik gabe. Irakaskuntza horren antolamendua behar den laguntza pedagogiko eta sozialarekin birpentsatuz, eta guztien ikaskuntzarako itxaropen handienei

entsiz (Ríos, 2004). Beraz, bereizitako jarduerak ez dira inklusibotzat hartuko. Inklusioak berekin dakar beti ikaskuntza-prozesua taldearekin partekatzea, eta testuinguru horretan, aniztasunak taldea kohesionatu eta aberastu egiten du, denentzako ikasteko aukera gehiago eskainiz (Ríos, 2004).

Oztopoak pertsonen parte-hartzea eta garapena zailtzen duten faktoreak dira (Serrano, 2013). Askotan, desgaitasunen bat duten ikasleek ez dute parte hartzen hezkuntza-testuinguruan, eta bereziki, gorputz hezkuntzaren arloan. Baliabide faltari dagokionez, Durán eta Sanzen azterlanean (2007) jasotzen da irakasleak baliabide materialen, giza baliabideen eta prestakuntza-baliabideen gabeziaren aurrean daudela. Ildo horretan, Caus eta Santos autoreek (2011) adierazi zuten zailtasun handienak ez zeudela didaktikarekin lotuta, baizik eta eskola eta administrazio antolamenduekin. Kontuan hartu beharreko beste faktore bat ikasleen heterogeneotasuna da. Zenbat eta heterogeneoagoa izan, orduan eta zailagoa izango da proposamen inklusiboak egitea, ratioa handia den eskoletan gertatzen den bezala (Tripp et al., 1995).

Gizarte-bizikidetzatik bertatik sortzen diren oztopoak ere garrantzitsuak dira. Felipe eta Garozek (2014) azaldu duten bezala, batzuetan jarrera sozial negatiboek, gehienak aurreiritziz eta uste faltsuz beteak, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze aktiboa mugatzen duten etiketak egozten dizkiete.

Gainera, aipatzekoa den beste oztopo bat irisgarritasuna da, desgaitasuna duen pertsonarekin zerikusirik ez duena, baina leku edo jarduera batean parte hartzea ala ez erabakiko duen eragiten duena. Horregatik, ikastetxeetako kirol-espazioek kalitatezkoak izan behar dute (Gil et al., 2013). Hala ere, azken urteotan irisgarritasunari dagokionez dauden oztopoak ezabatzeko legeak, arauak eta abar garatu diren arren, oraindik ere erronka bat da desgaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea espazioak eskuratzeko eta erabiltzeko, beraz, ikastetxeetako kirol-instalazioak ez dira salbuetsita geratzen. Nahiz eta gorputz hezkuntzan curriculumak garatzeko instalazio funtzionalak, egokituak eta egokiak izan behar diren, irakasleak jakitun dira instalazioen diseinuan, eraikuntzan eta birmoldaketan egiten diren akats etengabeek (Burillo et al., 2010). Ildo horretan, Gil eta kideek (2013) diotenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleek ikastetxeko kirol-instalazioek dituzten beharrak aztertuta ondorioztatu zuten eskola-aretoak eta kirola egiteko kanpoko pistak ez direla nahiko, eta irakasleak egokitu egiten direla ezarrita dauden baldintzetara. Irisgarritasunarekin bukatzeko, batzuetan espazio baten irisgarritasunik eza haren segurtasunarekin oso lotuta egon daiteke. Latorre eta Pérezek (2012) gorputz hezkuntzako eskoletako segurtasuna aztertu

zuten, eta ondorioztatu administrazioek kontuan hartu behar dituztela eskola-erabilerako kirol-instalazioen presentziak dakartzan arazoak, indarreko araudiarekin bat ez datozenak.

Azkenik, gorputz hezkuntzaren diziplinari dagokionez, nabarmentzekoa da, tradizionalki "bigarren mailako" ikasgaitzat hartu izan dela (Latorre eta Pérez, 2012). Errealitate hori ez da batere positiboa irakasgaiak eskatzen duen arreta eta dedikazioa eskaintzeko, edo besterik gabe, lehen aipatutako giza baliabideak zein baliabide materialak lortzeko, ikasle guztiak gorputz hezkuntzan saioetan parte hartzaile izan daitezzen (Latorre eta Pérez, 2012).

#### 4.5. PROFESIONALEN ROLA

Irakaslearen paperak berebiziko garrantzia du gorputz hezkuntza inklusiboan, inklusioa errazten duelako eta hezkuntza inklusiboaren esparruan liderra delako (Morley et al., 2005). Era berean, horren aldeko jarrerak funtsezkoak dira desgaitasunak dituzten ikasleak gorputz hezkuntzako arloaren parte izateko (Jarvis eta French, 1990; Rizzo eta Vispoel, 1991).

Eskola-garaian, haurrek ikastetxean igarotzen dute egunaren zatirik handiena, eta horrek, irakaslearen lan garrantzitsua azpimarratzen du (Mendoza, 2009; Sánchez, 2007), denentzako kalitatezko hezkuntza eskaintzeaz arduratzen baita. Irakasleek, pertsona gisa eta inguruko gizartearentzat garatzen lagunduko duten ezagutzak, jarrerak, balioak eta arauak transmititzen dizkiete ikasleei (Arnáiz, 2012; Echeita, 2012).

Gorputz-hezkuntzako saioa, ikasleengan edo taldean aurki daitezken arazoen berri emateko aukera gisa aurkezten da. Horregatik, gorputz hezkuntzako irakasle espezialistaren prestakuntzak garrantzi handia du. Prestakuntza hori jaso duen irakasleak, arrisku egoerak detektatzeko eta egoera horiei soluzio egoki bat emateko gaitasuna izan behar du, egoera horiek larriagotu eta modu kaltegarrian amaitu baino lehen. Horren ondorioz, jarrera negatiboak, segurtasunik gabeko ikasleak eta gizartean egokitzeko eta moldatzeko arazoak dituzten ikasleak sortzen baitira (Molina, 2015).

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, Gomendiok (2007) ondorioztatu zuen gorputz hezkuntzari buruzko bibliografia zabala dagoen arren, inklusioa bultzatzeko irakasleak isolatuta sentitzen zirela. Ildo horretan, egile askok adierazi dute irakasleek ez dutela prestakuntzarik hezkuntza-premia bereziak edo desgaitasunak dituzten ikasleei arreta emateko (Betancur, 2013; Díaz, 2009; Durán eta Sanz, 2007; Jiménez eta Hernández, 2013; Tierra eta Castillo, 2009), eta desgaitasun horiek ez ezagutzea partaidetzarako erronka bat da. Baliabide material eta pertsonal ezak eta, taldearen heterogeneotasuna eta aniztasunari erantzuteko

prestakuntza eza dira irakasleek aipatzen dituzten oztopo eta zailtasun handienak (Mendoza, 2009).

#### 4.5.1. FORMAZIOA

Gorputz-hezkuntzako irakasleen prestakuntza funtsezko prozesua da, eragin zuzena du irakaskuntzaren kalitatean, eta ondorioz, ikasleen garapen integralean, bigarren hezkuntzaren esparruan. Jarraian, prestakuntza-prozesu horrek aurrez aurre dituen erronkak eta ikuspegiak jorratzen dira, baita lanbide-garapenean eta praktika pedagogikoaren etengabeko hobekuntzak dituen ondorioak ere (Orta, 2001).

Lehenik eta behin, irakaslearen hasierako prestakuntza bat dago, lanean hasi aurretiko ikasketak, unibertsitateetako fakultateetan jasotzen diren ikasketak dira, hain zuzen ere. Bertan, desgaitasunaren eta motrizitatearen ezagutzaren oinarriak planteatu behar dira. Baina, Unibertsitateak arlo horretan eskaintzen duen prestakuntza, ikuspuntu guztietatik, ez da nahikoa (Orta, 2001). Irakasle askok ez dute hezkuntza inklusiboan berariazko prestakuntzarik, eta horrek zaildu egin dezake desgaitasuna duten ikasleei behar bezala arreta emateko gaitasuna. Funtsezkoa da hasierako eta etengabeko prestakuntza-programek irakasleei ingurune inklusiboetan eraginkortasunez lan egiteko beharrezko trebetasunak eta ezagutzak ematea (Hodge eta Pill, 2018). Horretarako, formazio handiagoa duten profesionalak sortzeko, askotariko prestakuntza gehiago daude: graduatu ondorengo ikastaroak, kongresuak, mintegiak, lantaldeak eta baita eskaera horri erantzuteko masterrak ere (Orta, 2001).

Jarraian, gorputz-hezkuntzako irakaslearen prestakuntza-prozesu horrek aurrez aurre dituen erronkak eta ikuspegiak jorratzen dira. Hasteko, diziplinartekotasuna, gorputz-hezkuntzaren irakaskuntzak, kirolaren eta jarduera fisikoaren esparruko ezagutzak ez ezik, ikaskuntzaren psikologia, pedagogia eta osasuna bezalako arloetan ere eskatzen ditu. Beraz, prestakuntza-programek modu eraginkorrean integratu behar dituzte diziplina horiek, etorkizuneko irakasleak modu integralean prestatzeko (Castañer et al., 2019). Horrez gain, curriculumaren egokitzapena dago, bigarren hezkuntzako, hezkuntza- eta ikasle-testuinguruen aniztasunak prestakuntza eskatzen du, irakasleek beren praktika pedagogikoak talde bakoitzaren eta norbanako bakoitzaren behar espezifikoetara egokitu ahal izateko (Siedentop et al., 2019). Amaitzeko, Teknologia eta Urrutiko Hezkuntza azpimarratzen da, hezkuntzaren esparruan gero eta teknologia gehiago sartzeak eta urrutiko irakaskuntzako modalitateak sortzeak erronka berriak planteatzen dituzte gorputz-hezkuntzako irakasleen prestakuntzan. Beraz, irakasleek prest egon behar dute tresna horiek beren irakaskuntzan eraginkortasunez integratzeko (Webster eta Russel, 2020).



Azkenik, gorputz hezkuntzako irakasleen formazioaren ikuspegiaren eta gomendioetan zentratuz, lehenik eta behin, ikuspegi praktikoa hartu behar da aintzat. Funtsezkoa da gorputz-hezkuntzako irakasleen prestakuntzan esperientzia praktikoa esanguratsuak sartzeari, hala nola, gainbegiratutako praktika profesionalak eta testuinguru errealean esku hartzeko proiektuak izatea (García-López et al., 2020). Horrela, ikasleek eskuratutako ezagutza teorikoak egoera zehatzetan aplikatzeko aukera izan dezakete (García-López et al., 2020). Bigarrenik, Etengabeko Lanbide Garapena dago, irakasleen hasierako prestakuntza, etengabeko garapen profesionaleko programekin osatu behar da, irakaskuntzako karrera osoan zehar eguneratzeko eta hobetzeko aukerak eskaintzen dituztenak (Ennis, 2017). Azkenik, erakunde arteko lankidetzak, hezkuntza-erakundeen, gobernu-erakundeen, elkarte profesionalen eta kirol-erakundeen arteko lankidetzak funtsezkoa da gorputz-hezkuntzako irakasleen prestakuntza aberasteko (Rink et al., 2018).

Beraz, gorputz-hezkuntzako irakasleen prestakuntzak hainbat erronka ditu bigarren hezkuntzaren esparruan, baina era berean, aukerak eskaintzen ditu irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren kalitatea hobetzeko arlo horretan. Funtsezkoa da diziplinariarteko ikuspegia, ikuspegi praktikoa eta etengabeko garapen profesionalera bideratua hartzea, bai eta hezkuntza- eta kirol-sistemako eragileen arteko lankidetzak sustatzea ere, etorkizuneko irakasleentzako prestakuntza integrala eta kalitatezkoa bermatzeko (Rink et al., 2018).

#### 4.5.2. PROFESIONALEK GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA IKUSTEKO MODUA

Profesionalek gorputz hezkuntza inklusiboa ikusteko modu desberdinak dituzte. Hezitzaile askok uste dute zailagoa dela gorputz-hezkuntzako klase erregularretan jokabide-arazoak edo arazo emozionalak dituzten ikasleak txertatzea (Morley et al., 2005). Uste dute zailagoa dela gehiegizko mugimenduak edo hiperaktibitatea kontrolatzea, jokabide-aldaketak kontrolatzea... Ikasketa horiek agerian uzten dute arazo fisikoak dituzten ikasleak direla, irakasleentzat, gorputz-hezkuntza erregularrean sartzeko zailtasun gehien dituztenak (Morley et al., 2005).

Pertsona bakoitzaren izaera indibidualak, gaitasunaren edo desgaitasunaren arabera, zehazten du zer jarduera-motatan parte har daitekeen edo inplikazio mugatua duten. Beraz, gorputz-hezkuntzako profesional askok bat egiten dute jokorik baztertzailenenak talde-jokoak direla esatean, batez ere, lehiakortasun-jokoak eta talde-jokoak (Smith, 2004).

Hala ere, hezkuntzako profesionalek dantza, igeriketa, gimnastika eta barne-jarduerak nabarmentzen dituzte, eta haientzat errazagoa da desgaitasuna duten ikasleak mota honetako jardueretan parte hartzea (Morley et al., 2005). Oro har, jarduera horiek eskuragarriagozat

jotzen dira, gehienak indibidualak direlako eta bakoitzak banaka egin dezakeenaren arabera lan egin daitekeelako. Beren gaitasun fisikoetara hobeto egokitzeko moduan mugitzeko gai diren jarduera fisikoak, eta mugimenduen intentsitatea eta iraupena kontrolatzeko gaitasun handiagoa dutenak baitira (Morley et al., 2005). Profesional gehienek iradokitzen dute hori jokoaren edo egiten den kirolaren izaeraren ondorio dela. Horrenbestez, ikastetxe askok beste jolas edo jarduera batzuk eskaintzen dizkiete desgaitasuna duten ikasleei, eta desgaitasunik ez duten ikasleek, berriz, programatutako jarduera praktikatzan dute edo gorputz-hezkuntzako orduak erabiltzen dituzte beste jarduera batzuk egiteko, hala nola, fisioterapia-saioak edo pisulana (Morley et al., 2005). Horrela bada, Smith (2004) dioen bezala, desgaitasunen bat duten ikasle asko ikasketa-planean "egokituak" izatera behartzen ari dira, hau da, sisteman txertatzen ari dira, gorputz-hezkuntza estandarrean parte hartu beharrean.

Bukatzeko, ikerketa batean gorputz-hezkuntzako irakasle batek adierazi bezala, ikuspegi inklusiboa hartu zuen bere eskoletan ahots profesionalaren bidez jasotako lana txertatzean. Ikasleak jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan izandako esperientziei buruz hitz egitera animatuz, profesional honek ikasgelan parte hartzeko eta ebaluatzeko modu ugari ematearen garrantzia aitortu zuen (Giangreco eta Doyle, 2007; Hourcade eta Bauwens, 2014). Teknika hori erabiltzean, ikasle bakoitzaren indarguneak eta behar indibidualak identifikatu ahal izan zituen, eta horrela, ikaskuntza-giro inklusiboa eta errespetuzkoa sustatu zuen. Haren ahaleginek aniztasunarekiko eta ekitatearekiko konpromisoa islatzen dute gorputz-hezkuntzan, eta ikasle guztientzako hezkuntza-esperientzia aberasgarria lortzen laguntzen dute (Giangreco eta Doyle, 2007; Hourcade eta Bauwens, 2014).

#### 4.5.3. IRAKASLEAREN ERAGINA GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOAN

Gorputz-hezkuntza inklusiboaren sustapenean irakasleek duten zeregina funtsezkoa da, ikasle guztiak, bakoitzaren trebetasunak eta ezaugarriak edozein izanik ere, kalitatezko gorputz-hezkuntza eskura izateko. Beraz, irakasleek testuinguru horretan duten eragina aztertzen da jarraian (Casey eta MacPhail, 2018).

Irakasleek hainbat rol dituzte gorputz-hezkuntza inklusiboan. Gorputz hezkuntza inklusiboaren ereduari dagokionez, ikasle guztien parte-hartzea sustatzen da, bakoitzaren beharretara egokitutako jarduera fisiko anizteta; eta irakasleak funtsezkoak izango dira parte-hartzea eta elkarrekiko errespetua sustatuko duen giro inklusiboak sortzeko (Casey eta MacPhail, 2018).

Ildo horretatik jarraituz, hasteko, aipatzekoa da trebetasun motorren garapena. Irakasle eraginkor batek oinarrizko trebetasun motorrak eta aurreratuak garatzen lagun

diezaieke ikasleei, eta horrek lagundu egiten du ikasleen gaitasun motorrean eta jarduera fisiko anitzetan parte hartzeko gaitasunean (Rink et al., 2009). Parte hartzeari dagokionez, irakasleek eragina izan dezakete ikasleek gorputz-hezkuntzan duten parte-hartzean eta konpromisoan, jarduera fisikoa esploratzea eta gozatzea sustatuko duen giro segurua, inklusiboa eta motibatzailea sortuz (Hellison, 2011).

Gorputz hezkuntza inklusiboan irakasleak duen eraginarekin jarraituz, ezinbestekoa da irakasleak jokabide eredu ematea ikasleari, hau da, gorputz-hezkuntzako irakasleek eredu gisa jokatzen dute ikasleentzat, bai mugimen-trebetasunei dagokienez, bai inklusiorako jarrerari dagokienez (Grenier eta Lloyd, 2017). Desgaitasuna duten ikasleekiko duten portaerak eta jarrerak eragin nabarmena izan dezakete ikasgelan giro inklusiboa sortzeko (Grenier eta Lloyd, 2017). Gainera, irakasleak izan behar dira ikasleari ikaskuntza erraztuko diotenak (Casey eta MacPhail, 2018). Irakasleek beren jardura pedagogikoak egokitzeko ardura dute, ikasle guztien behar indibidualak asetzeko, baita desgaitasuna dutenenak ere. Horrek esan nahi du curriculum-egokitzapenak egin behar direla, material eta baliabide eskuragarriak erabili behar direla eta estrategia pedagogiko inklusiboak ezarri behar direla (Casey eta MacPhail, 2018).

Beste alde batetik, aldaketa-eragile gisa jardun behar du irakasleak. Profesional hauek berebiziko garrantzia izan dezakete gorputz-hezkuntzan inklusioa sustatzeko aldaketa-eragile gisa. Estereotipoei eta aurreiritziei aurre egitean, aukera-berdintasunaren alde egitean eta beste profesional batzuekin lankidetzan aritzean, hezkuntza-ingurune inklusiboagoak eta bidezkoagoak sortzen lagun dezakete (Sutherland et al., 2017).

Aldez aurretik aipaturikoa betetzea irakasleentzako erronka garrantzitsua da, eta horretarako, hainbat estrategia erabili beharko lituzkete. Irakasle batzuek aldaketarekiko duten erresistentzia oztupo garrantzitsua izan daiteke gorputz-hezkuntza inklusiboa sustatzeko. Garrantzitsua da irakasleak aniztasuna baloratu eta inklusioa bultzatuko duen eskola-kultura sustatzea, ikasgelan praktika inklusiboak ezarriz eta baliabide egokiak eskainiz (Casey eta MacPhail, 2018). Gainera, gorputz-hezkuntzako irakasleen eta beste profesional batzuen arteko lankidetzak, hala nola, terapeuta okupazionalen, fisioterapeuten eta hezkuntza bereziko espezialisten artekoak, funtsezkoa da desgaitasuna duten ikasleei laguntza integrala emateko (Sutherland et al., 2017).

Bukatzeko, irakasleak osasunean eta ongizatean duen eragina ere oso garrantzitsua da. Osasuna eta ongizatea sustatzeko konpromisoa duten irakasleek ematen duten gorputz-hezkuntzak eragin positiboa izan dezake ikasleen osasun fisiko, mental eta emozionalean, bizi-ohitura aktibo eta osasungarriak sustatuz (Sallis et al., 2012).

Ondorioz, irakasleek berebiziko garrantzia dute gorputz-hezkuntza inklusiboa sustatzeko, jokabide-eredu, ikaskuntza errazten duten eredu eta ikasgelako aldaketa-eragile gisa jardunez. Hortaz, irakasleek estrategia eraginkorrak ezar ditzakete inklusioa sustatzeko eta ikasle guztiek gorputz-hezkuntzan bete-betean parte hartzeko aukera izan dezaten bermatzeko. Argibide hauek guztiak beraz, desgaitasunak dituzten pertsonekin gorputz hezkuntzan hasi aurretik ikastea oso interesgarria bezain garrantzizkoa da, gero praktikan modu egokian jartzeko, eta gorputz hezkuntzan testuinguru inklusiboagoak lortzeko helburuarekin.

## 5. LANAREN HELBURUA

Lan honen helburu nagusia, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko ikuspegia aztertzea da. Horretarako, ikertu nahi izan da, zein esperientzia dituzten desgaitasunak dituzten pertsonekin gorputz hezkuntzan eta arlo horretan zer alda litekeen gorputz hezkuntza inklusibo eta arrakastatsuago bat bermatzeko.

## 6. METODOLOGIA

### 6.1. DISEINU MOTA

Ikerketa hau burutzeko metodologia kualitatiboa erabili da (Flick, 2007). Metodologia honen bitartez, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak eta ikuspegiak ezagutu dira, hauek modu kualitatiboan aztertu direlarik.

### 6.2. PARTE HARTZAILEAK

Parte hartzaileak hautatzeko nahitaezko laginketa egin da (Casal eta Mateu, 2003). Inklusio irizpideei erreparatuz, irizpide nagusia desgaitasunak dituzten pertsonekin gorputz hezkuntzako saiok burutu dituzten profesionalak izatea da. Horrez gain, kontuan hartu da hiru urte baino gehiagoko esperientzia izatea eta gaur egun Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lan egitea. Pertsona hauek, aurretik aipatutako inklusio irizpideak betetzeaz gain, eskuragarriak zirelako eta beraiekin harreman bat nuelako izan dira hautatuak. Gainera, ikerlanean beren borondatez parte hartzeko prest zeuden.

25 eta 60 urte bitarteko 3 profesional izan dira ikerketan parte hartu dutenak, horien informazio soziodemografikoa hurrengo taulan ageri da:

#### 1. Taula

*Parte hartzaileen ezaugarriak*

	<b>Generoa</b>	<b>Adina</b>	<b>Urteak desgaitasunak dituzten pertsonekin lanean</b>	<b>Rola</b>
Naia	Emakumezkoa	27	3	DBH-ko irakaslea
Ilargi	Emakumezkoa	55	30	DBH-ko irakaslea
Gorka	Gizonezkoa	35	9	DBH-ko irakaslea

### 6.3. DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK

Datuak jasotzeko elkarrizketak erabili dira (Flick, 2007). Ikerlan honetan sakontzeko galdeketa teknika erabili zen, zehazki (Flick, 2007). Horretarako, alde zuzeneko gidoia sortuz (Flick, 2007), gidoian zenbait galdera prestatu ziren desgaitasunak dituzten ikasleekin lan egiten duten irakasleek inklusioaren inguruan bizi izandako errealitatea ezagutzeko. Elkarrizketa malgua izan zen eta elkarrizketatuaren arabera norabide bat edo bestea har zezakeen. Elkarrizketa guztiak aurrez-aurre egin ziren, eta 30-45 minutu bitarteko iraupena izan zuten. Elkarrizketak audioz grabatuak izan ziren, mugikorreko ahots grabazioak egiteko aplikazioaren bitartez, aurrez parte hartzaileei horretarako baimena eskatu ondoren.

### 6.4. DATUEN ANALISIA

Datuak analizatzeko, edukien analisisa teknika erabiliz egin zen, horretarako, lehenengo, ahots grabazioak hartu eta transkripzioak egin ziren, ondoren, transkripzioak hiru aldiz irakurri eta zati esanguratsuenak nabarmendu ziren (Ruiz, 2012). Azkenik, kategoriatan sistema bat eratu zen, eta bertan kategoriak, azpi-kategoriak eta kodeak sailkatu ziren, informazioa horien arabera antolatuz (Ruiz, 2012).

#### 2. Taula

*Datuetatik etorritako kategoriatan sistema*

<b>Kategoriak</b>	<b>Azpi-kategoriak</b>	<b>Kodeak</b>
Gorputz hezkuntzako eredu tradizionala	Ikasgelaren antolaketa eta ebaluaketa	Ohiko gelak
		Gela banatuak
Gorputz hezkuntza inklusiboa	Desgaitasunak dituzten pertsonen parte hartzea	Pertsonaren araberakoa
		Irakaslearen eragina
		Saioaren araberakoa
Desgaitasunak dituzten pertsonak	Onurak	Taldearen parte izatea
		Nork bere mugak gainditzea
	Oztopoak	Beste ikasleentzat
		Irakasleen formakuntza
		Ikasle asko eta irakasle gutxi
		Materiala

Profesionalak	Jasotako formakuntza	Jakintza falta
		Bakoitzak bere kabuz ikasi
	Irakaslearen garrantzia	Ardura handia
		Irakaslearen profila

#### 6.5. IRIZPIDE ETIKOAK

Elkarrizketak egin aurretik, parte hartzaileek baimen informatu bat (ikusi 10.1 eranskina) sinatu zuten, bertan elkarrizketa eta ahots grabazioa egiteko baimena emanez. Gainera, elkarrizketatuen datuak anonimatuari mantenduko zirela sinatu zen baimen idatzi horretan, pseudonimoak erabiliz izen errealen ordez dokumentu guztietan. Elkarrizketatutako pertsona guztiak, aldeztu aurretik elkarrizketan euren borondatez aritzea onartu zuten.

## **7. EMAITZAK ETA EZTABAIDA**

Emaitzak eta eztabaida lau ataletan antolatu dira, gorputz hezkuntzako eredu tradizionala, gorputz hezkuntza inklusiboa, desgaitasunak dituzten pertsonak eta profesionalak. Hauen barnean beste azpi-atal batzuk bereizi direlarik.

### **7.1. GORPUTZ HEZKUNTZAKO EREDU TRADIZIONALA**

Jarraian, gorputz hezkuntzako eredu tradizionalaren antolaketa eta ebaluaketa ikusiko dira. Alde batetik, gaur egun ohiko geletan erabiltzen den ikasgelaren antolaketa eta ebaluaketa, eta beste aldetik, gela banatuetakoa.

#### **7.1.1. IKASGELAREN ANTOLAKETA eta EBALUAKETA**

##### **OHIKO GELAK**

Gorputz hezkuntzako eredu tradizionalan, Ilargik, Gorkak eta Naiak dioten bezala, unitate didaktikoa erabiltzen da ikasgaia antolatzeko, hau da, ikasturte batean helburu desberdinak dituzten unitate didaktiko batzuk garatzen dira. Gainera, ikasleen ebaluaketari dagokionez, hainbat aspektu hartzen dira kontutan, Ilargik bere saioetan jarrera ebaluatzeaz gain, garrantzi handia ematen dio, adibidez, garai bateko maila fisikoari.

“Alde batetik, ze jarrera dauzkaten, errespetuzko jarrerak, elkarri laguntzen diren edo ez... Garai bateko maila fisikoari ere garrantzia ematen diot, badakit ez dela oso aproposa edo orain ez dagoela oso modan, baina iruditzen zait bakoitza bere maila fisikoa zein den konturatzen denean, nola hobetu dezakeen eta hobetzeko tresnak ematen baldin badizkiozu, eta gero ikusten baldin badute hobetzen dutela, horiek jarraituko dute gero jarduera fisikoan.” (Ilargi)

Errendimendu fisikoaren gehiegizko ikuspegiak alde batera utz ditzake ikasleen garapenaren beste alderdi garrantzitsu batzuk, adibidez, gorputz-hezkuntza tradizionalak, askotan jarduera lehiakorretan jartzen du arreta, eta jarduera horiek baztertu egin ditzakete ikasle batzuk, hala nola, trebetasun atletiko nabarmenik ez duten ikasleak, desgaitasunen bat duten ikasleak... Horrek eragina izan dezake ikasle horien autoestimuan eta jarduera fisikoan parte hartzeko motibazioan (Kirk, 2005).

Gaur egun, nahiz eta ikasgela batzuetan oraindik gorputz hezkuntza ebaluatzeako eredu tradizional hori jarraitzen duten, gorputz-hezkuntzaren ikuspegi inklusiboago baten alde egiten da, ikasleen trebetasunen eta gaitasunen aniztasuna aitortu eta baloratuko duena. Adibidez, jolas-jarduerak, kirol alternatiboak eta kolaborazio ariketak dituzten programek esperientzia



aberasgarriagoa eta eskuragarriagoa eskain diezaiekete ikasle guztiei, trebetasun fisikoaren maila gorabehera (Ennis, 2013). Gainera, gorputz-hezkuntzako ikasketa-planean osagai sozialak eta emozionalak txertatzeak ikasleen artean komunitate- eta enpatia-zentzua sustatzen lagun dezake, giro inklusiboagoa eta kolaboratiboagoa sustatuz (Wallhead eta Ntoumanis, 2004).

Beraz, gorputz hezkuntzako ikuspegi inklusibo horrek ikuspegi holistikoagoa hartzen duenez, gorputz-hezkuntzak funtsezko zeregina izan dezake ikasle guztien osasuna eta ongizatea sustatzeko, bakoitzaren trebetasun fisikoak alde batera utzita.

## GELA BANATUAK

Desgaitasunen bat duten pertsonak gela banatu hauetan egiten dute gorputz hezkuntzako saioa. Gela banatu hauek urritasuna duten eta ez duten ikasleen arteko elkarrekin sozialerako eta elkarrekiko ikaskuntzarako aukerak muga ditzakete.

“Bigarren zikloan desgaitasuna dauzkatena ez dizkigute integratzen geletan, aparte bezala doalako, CIG gela horietan daude.” (Ilargi)

Gela banatu hauek segregazioa iraunarazten dute, eta desgaitasuna duten eta ez duten ikasleen integratzearako eta baterako ikaskuntzarako aukerak mugatzen dituzte. Desgaitasuna duten ikasleak gainerako ikasleengandik bereiztean, oztopo sozialak sortzeko eta estigmak iraunarazteko arriskua dago, haien autoestimuan eta pertenezia-sentimenduan eragina izan dezaketenak (Rillotta eta Nettelbeck, 2007).

Ikerketa batek erakutsi duenez, gaitasun desberdinak dituzten bikoteen arteko elkarrekintzak enpatia, ulermena eta elkarrekiko errespetua bultzatzen ditzake, horrela, eskola-ingurune inklusiboagoak eta tolerantetagoak sortzen lagunduz (Klavina eta Block, 2008). Gorputz-hezkuntzan inklusioa sustatzean, gizarte-trebetasunak garatzea eta aniztasuna onartzea sustatzen da, eta hori onuragarria da bai desgaitasunik ez duten ikasleengan eta bai desgaitasunen bat duten ikasleengan.

Gainera, gela banatu hauetan unitate didaktikoa erabiltzen da irakasgaia aurrera eramateko. Ilargik dioenez, unitate didaktikoa erabiliz antolatzen ditu gela hauek, ohiko geletan alderatuz, ildo bat eramaten dute bi gela artean, hau da, unitate didaktiko berdinak eramaten dituzte aurrera bi geletan, baina eduki oso desberdinak erabiliz gela banatu hauekin. Beraz, hau azalduta, gela banatuen ebaluaketa ere oso desberdina da.

“Orduan, ebaluazioa izaten da, zein autonomia daukaten, zein hobekuntza lortzen dituzten, talde lanean nola aritzen diren... Segun eta taldearen berezitasunak zeintzuk

diren, modu batera edo bestera jokatzeko dut. Egia da, garrantzi handia ematen diodala talde senari, eta ez da oso erraza, zeren bakoitzaren berezitasunak hain desberdinak izanda, egokitzapen handiak egin behar dituzu. Gero, oreka eta horrelako gaitasunak ere, baina egia da balio gehiago ematen diodala taldeari, eta orduan, ebaluazioa ere pixka bat horren inguruan doa, ea errespetatzen diren beraien artean, ea laguntzen diren elkarri eta horrelako gauzak.” (Ilargi)

Ilido horretan, funtsezkoa da desgaitasunak dituzten pertsonen ebaluazioan ikuspegi holistikoa hartzea gorputz hezkuntzan, alderdi kognitiboak, fisikoak eta emozionalak nahiz jarrera kontuan hartuta (Winnick eta Short, 2014). Ebaluazioak inklusiboa eta ikasle bakoitzaren premia indibidualetara egokitua izan behar du, bidezkoak eta esanguratsuak diren ebaluazio metodoak eta irizpideak erabiliz (Winnick eta Short, 2014).

Gorputz hezkuntzan ebaluazio integrala lortzeko, garrantzitsua da hainbat tresna eta ikuspegi kontuan hartzea, hala nola, zuzeneko behaketa, autoebaluazioa, parekoen arteko ebaluazioa eta jarduteko irizpide espezifikoetan oinarritutako ebaluazioa. Gainera, funtsezkoa da ikasleak ebaluazio-prozesuan inplikatzeko, jardura fisikoaren eta kirolaren inguruan dituzten interesak, beharrak eta helburuak adierazteko aukera emanez. Beraz, nahiz eta jarreraren ebaluazioa garrantzitsua izan daitekeen desgaitasuna duten pertsonentzako gorputz hezkuntzaren testuinguruan, alderdi horretan soilik zentratzea mugatzailea izan daiteke.

## 7.2. GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA

Ondorengo atalean gorputz hezkuntza inklusiboa eztabaidatuko da, konkretuki, gorputz hezkuntzan desgaitasunak dituzten pertsonen parte hartzea kontuan izanik.

### 7.2.1. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN PARTE HARTZEA

Gorputz hezkuntza inklusiboagoa izan daiteke desgaitasunak dituzten pertsonen saioetako parte hartzearen arabera, irakasleak eta saio motak eragina izanik. Desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzea funtsezko alderdia da ikasle guztien aukera berdintasuna eta garapen integrala sustatzeko.

#### PERTSONAREN ARABERAKOA

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzea pertsona bakoitzaren jarreraren araberakoa dela. Gorkak dioen bezala, ikasle batzuentzat, gorputz hezkuntzako jardueretan parte hartzeko aukera

eguneroko errutinaren aldaketa freskagarria da, eta horrek berezko motibazioa eta aktiboki parte hartzeko gogoia areagotu ditzake.

“Bale, bueno ba azkenean pertsonaren arabera da, batzuentzako da kristoren txutea joaten direlako zerbait ezberdina egitera egunerokoan ez dutelako egiten, beste batzuk ba eduki dituzten lesioengatik, daukaten sindromeagatik edo daukaten gauzengatik ez dira eroso sentitzen jarduera honetan eta sufrimendu bat izan daiteke.” (Gorka)

Aurreko baieztapenarekin, ulertu beharra dago pertsona bakoitza desberdina dela eta pertsona bakoitzak izan dituen bizipenak ere desberdinak direla. Gorkak aipatzen duen bezala, pertsona bakoitzaren aurretiko lesioak, sindromeak eta bestelako baldintzak oztopo garrantzitsuak izan daitezke zenbait ikaslek gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzeko. Iraganeko esperientziek eragina izan dezakete etorkizuneko testuinguruetan gizabanakoek duten segurtasun eta erosotasun pertzepzioan (Perry, 2001; Johnson, 2013).

Beraz, aurretik bizipen negatiboak izan dituzten ikasleak antsietatea edo beldurra senti dezakete berriro bizipen horiek gauzatzerakoan, eta horrek mugatu egin dezake gorputz hezkuntzako zenbait jarduera fisikotan parte hartzea. Gorkak beste baieztapen bat egiten du horren inguruan.

“Nik uste dut hori dela pertsona horrek eduki dituen esperientzien arabera, bueno ba batzuetan ba predisposizio bat izaten dute, eta zuk hori hobetzea lortzen baduzu ba bueno... Baino hori pertsonaren arabera dela esango nuke, ez da autismoa dutenak super ondo eta desplazamenduko urritasuna dutenak super gaizki, baizik eta, jarrera kontua eta ikasle bakoitzaren arabera da.” (Gorka)

## IRAKASLEAREN ERAGINA

Garrantzitsua da kontuan izatea gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzeak ere eragina duela beste hainbat faktoretan. Eskolako giroa, ikaskideen jarrerak eta pertzepzioak, eta irakasleen laguntza funtsezkoak izan daitezke ikasleek eskolako jarduera fisikoetan parte hartzeko eta motibatzeko (Stodden et al., 2008).

“Ba dena da segun eta irakasleak nola antolatzen duen bere saioa. Segun eta nola antolatzen duzun, denek daukate zerbait aportatzeko. Beraz, horren aurrean, ariketak egokitzen dizkiot, berarekin hitz egiten. Oso garrantzitsua da zein ikasle mota daukazu jakitea eta zure saioa denentzako izatea, egokitzen jarri behar baldin badituzu alde aurretik pentsatu behar dira, gero egia da batzuetan sortzen direla arazoak, baina normalean hasieratik dena antolatuta askoz hobeto ateratzen da saioa.” (Ilargi)

Ilargik dioenez, irakasleak gorputz hezkuntzako saioak antolatzeko eta egokitzeko duen moduak eragin nabarmena izan dezake desgaitasunen bat duten ikasleen parte hartzean eta gozamenean. Ryan eta Deciren arabera (2017), autodeterminazioaren teoriak oinarritzko behar psikologikoak asetzearen garrantzia nabarmentzen du, hala nola, gaitasuna, autonomia eta harremana, gizabanakoen motibazioa sustatzeko. Gorputz hezkuntzaren testuinguruan, saioen antolaketa eta egokitzapena funtsezkoak dira behar horiek asetzeko eta ikasle guztien parte hartze aktiboa sustatzeko. Gainera, ikasle bakoitzaren trebetasunak, beharrak eta lehentasunak ulertzea funtsezkoa da jarduera fisikoak modu eraginkorrean diseinatzeko eta egokitzeko (Stodden et al., 2008). Desgaitasuna duen ikaslea eta haren gaitasun espezifikoak ezagutzeko, irakasleak egokitzapen estrategiak gara ditzake, gorputz hezkuntzako saioetan desgaitasunen bat duen ikasleak bete-betean parte har dezan.

Ondorioz, desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntzan parte hartzea, neurri handi batean, irakasleak saioak antolatzen eta egokitzen dituen moduaren arabera da, ikasle bakoitzaren premia indibidualak asetzeko. Funtsezkoa da irakasleak ikaslea ezagutzea, alde aurretik planifikatzea eta egokitzapenak behar bezala egiteko prest egotea, egokitzea da desgaitasuna duten ikasleek jardueretan parte har dezaten erraztea edo eskuragarri jartzea (Rios, 2001). Hori egitean, giro inklusiboa sustatzen da, non ikasle guztiek modu aktiboan parte har dezaketen eta ikaskuntza-prozesuari ekarpen positiboa egin diezaioketen.

#### SAIOAREN ARABERAKOA

Gorputz hezkuntzako saioetan desgaitasunak dituzten pertsonen parte hartzea ere saioaren arabera da, hala nola, Gorkak dioen bezala, jarduera psikomotorretan, kooperatiboetan eta adierazpenekoetan errazagoa da pertsona hauen parte hartzea sustatzea, baina, kooperazio-oposizioko jardueretan zailagoa da.

“Nik psikomotorretan esango nuke, kooperatiboetan eta adierazpenekoetan ere. Oposizioan ia zailagoa da, bueno igual arauak moldatuz pixka bat ba planteatu daiteke, behar diren egokitzapenak egiten. Kooperazio-oposizioa zailagoa ikusten dut, zeren beste ikasleen arazoa azaleratzen da, gehiegizko konpetibitatea, tolerantzia gutxi...”  
(Gorka)

Alde batetik, ariketa psikomotor eta kooperatiboek ingurune egokia eskaintzen dute desgaitasuna duten pertsonen parte hartze inklusiboak. Stodden eta kideek (2008) diotenez, jarduera psikomotorrek funtsezko mugimen-trebetasunak garatzea ahalbidetzen dute, ikasle guztientzat modu dibertigarri eta eskuragarrian. Era berean, kooperaziozko ariketek lankidetzat, talde-lana eta gizarteratzea sustatzen dute, parte hartzaileen arteko laguntza-giroa sustatuz.

Bestalde, kooperazio-oposizioa bezalako jarduerak erronka gehigarriak dituzte desgaitasuna duten pertsonak parte hartzeko. Ryan eta Decik (2017) adierazi bezala, jarduera horien lehia-izaerak autoestimu eta antsietate arazoak sor ditzake desgaitasuna duten ikasleengan, batez ere, beste ikaskide batzuekiko lehiaren presioari aurre egiten diotenean.

Hala ere, kooperazio-oposizio jardueretan parte hartzea areagotzeko, funtsezkoa da egokitzapen eta estrategia inklusiboak ezartzea. Jokoaren arauak eta arauak egokitzeak desgaitasuna duten pertsonen erabateko parte hartzea ahalbidetu dezake, haien eta kideen trebetasunen arteko aldea murriztuz (Gillies, 2016). Gainera, garrantzitsua da ikasleen artean lankidetzarako eta elkarrekiko errespeturako giroa sustatzea, inklusioa eta aniztasunarekiko tolerantzia sustatuz.

### 7.3. DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK

Jarraian, desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan izan ditzaketen onurak eta oztopoak ikusiko dira.

#### 7.3.1. ONURAK

Jarraian, desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza egiterako orduan dituzten onurak aztertu dira. Hiru taldetan sailkatu dira desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza egiterako orduan dituzten onurak, hala nola, taldearen parte izatea, nork bere mugak gainditzea eta beste ikasleentzako onurak.

#### TALDEAREN PARTE IZATEA

Ukaezina da gorputz hezkuntzak, modu inklusiboan eta kontzientean egiten denean, desgaitasuna duten pertsonak eskola ingurunean txertatzea bultzatzea. Smithek (2018) adierazten duen bezala, jarduera fisiko partekatuetan parte hartzeak aukera ematen du gaitasun desberdinetako pertsonen arteko harreman esanguratsuak ezartzeko. Horrek, desgaitasunak dituzten pertsonak edo taldean integratuta ez dauden pertsonak taldearen parte bihurtzera eragin dezake, inklusio kultura sustatuz. Ildo horretan, Naiak ondorengo baieztapen hau egin zuen:

“Desgaitasunak dituzten pertsonentzat oso-oso onuragarria da gorputz hezkuntza. Ba bueno... hainbat arrazoiengatik, alde batetik, nire ustez talde bezala integratzen laguntzen duelako gorputz hezkuntzak, ba bueno daukan izaerarengatik taldean egoera asko ematen dira eta sortzen den giroa aproposa eta ona baldin bada, taldean sortzen diren harreman horiek oso indartsuak izaten dira eta iruditzen zait ikasle guztiak

taldean parte sentitzeko modu bat. Askotan desgaitasunak dituzten pertsonak ez dute hain erraz izaten integratzea, orduan iruditzen zait gorputz hezkuntzak bai daukala alde hori ondo lantzen baldin bada, ba aukera ematen duena pertsona horiek ere taldearen parte sentitzeko.” (Naia)

Beraz, Naiak aipatzen duen gorputz hezkuntzaren onura hori bilatzeko, giro inklusiboa eta lagungarria funtsezkoa da desgaitasuna duten pertsonak ongietorriak eta baloratuak senti daitezen taldeko jarduera fisikoen testuinguruan (García, 2019). Horrek esan nahi du, ikasleentzako zentzuzko egokitzapenak eta trebakuntza egokia ezartzeaz gain, aniztasuna eta inklusioa modu guztietan sustatuko duen eskola kultura aurrera eraman behar dela.

#### NORK BERE MUGAK GAINDITZEA

Nork bere mugak gainditzea oso garrantzitsua da desgaitasunak dituzten pertsonengan beren autoestimua eta gaitasunak pixkanaka garatzen joateko. Nork bere mugak gainditzeak, oztopo fisikoak gainditzeaz gain, lorpen pertsonalaren zentzua indartzen duten trebetasun emozionalak eta kognitiboak garatzea ere eskatzen baitu (López et al., 2017). Horregatik, Ilargik beste onura aipagarri bat bezala adierazi zuen.

“Iruditzen zait, autosuperazio aldetik ere, ba pertsona hauek ikustea askotan dauzkaten egoera edo baldintzekin nola diren gai zenbait egoerari aurre egiteko, eta beraien moduak bilatuta besteek bezala zenbait ariketa egiteko ere, hori oso onuragarria dela, bai desgaitasunak dituzten pertsonentzat eta baita beste ikasleentzat ere.” (Ilargi)

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako ariketak eta jarduerak egokitzea ohikoa da gorputz hezkuntza inklusiboan, baina jardueren egokitzapen horietan, garrantzitsua da pertsona horiek jakitea nola moldatu jarduerak beraiek gauzatu ahal izateko. Martínez eta kideek (2019) diote, desgaitasuna duten pertsonak jarduera fisikoetan parte hartzeko beren modu propioak aurkitzean, beren gorputzaren eta gaitasunen ahalduntzea garatzen dutela.

Beraz, gorputz hezkuntzaren esparruan jarduera fisikoetan parte hartzea tresna indartsua izan daiteke desgaitasuna duten pertsonak nork bere mugak gainditzeko. Erronka fisikoei aurre egitean eta erronka horiek gainditzeko modu propioak aurkitzean, pertsona horiek konfiantza handiagoa izan dezakete beren buruan eta gaitasunetan.

#### BESTE IKASLEENTZAT

Onurekin bukatzeko, aipatu beharra dago, gorputz hezkuntza inklusiboak desgaitasuna duten pertsonen mesede egiteaz gain, gainerako ikasleen hezkuntza esperientzia aberasten

duela, harreman positiboen prestakuntza, gizarte-trebetasunen garapena eta enpatia, tolerantzia eta inklusioa bezalako funtsezko balioak sustatzen baititu. Gorkak dioen bezala, ikasleek eskolatik kanpo ez dute harreman askorik desgaitasunak dituzten pertsonekin, hortaz, harreman hauek sustatzeko eta zenbait gauza ikasteko aukera paregabea ere bada.

“Nik uste dut baietz, bueno ba azkenean harreman mota ezberdinak direlako, normalean gero hemendik kanpo ez daukate harreman askorik pertsona hauekin, baina hemen klasean askotan ba elkar laguntzeko edo elkarrekin zerbait egin behar dutelako, komunikazioa egokitzen dute, besteekiko exigentzia ere egokitzen dute, tolerantzia ikasten dute...” (Gorka)

Gorputz hezkuntzako saioetan desgaitasunik gabeko pertsonak desgaitasunak dituzten pertsonekin egoteak esperientzien aniztasunarekin elkarreragiteko aukera ematen die ikasleei. Aniztasunarekiko erlazio horrek, banakoaren desberdintasunekiko ulermen eta estimu handiagoa sustatzen du, horrek, aldi berean, besteekiko enpatiaren eta tolerantziaren garapena sustatuz (Rodriguez, 2020). Gainera, desgaitasuna duten pertsonak taldeko jarduera fisikoetan parte hartzeko, beharrezkoa da ikasleak lankidetzan aritzea eta pertsona bakoitzaren beharretara egokitzea. Egokitzapen eta lankidetzaren prozesu horrek talde laneko eta lidergoko trebetasunen garapena sustatzen du, bai eta besteen premiekiko sentsibilitate handiagoa ere (García, 2018).

Ondorioz, gorputz hezkuntza inklusiboak plataforma egokia eskaintzen du funtsezko balioak sustatzeko, hala nola, inklusioa, berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua. Fernándezek (2017) egindako ikerketen arabera, gorputz hezkuntza inklusiboko eskoletan parte hartzen duten ikasleek kontzientzia handiagoa dute ekitatearen eta justizia sozialaren garrantziaz, eta horrek, herritar konprometituagoak eta enpatikoagoak hezten laguntzen du.

### 7.3.2. OZTOPOAK

Oztopo aipagarrienak hiru dira: irakasleen formakuntza eskasa, ikasle asko eta irakasle gutxi, eta azkenik, material falta.

#### IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

Lehenik eta behin, irakaslearen formakuntza zailtasun handi bat izan daiteke gorputz hezkuntza inklusiboa sustatzeko orduan. Naiak dioen bezala, irakasleek formakuntza nahikoa ez izateaz gain, irakasleen portaerak edo jarrerak ere garrantzia handia du esparru honetan.

“Nik uste bueno gauzak aldatzen ari direla, eta bai bide horretan goazela, baina bai iruditzen zait oraindik zailtasunak dituztela. Alde askotatik, alde batetik, irakasle onaldetik iruditzen zait askotan nahi dugula, baina ez dakit den ez daukagula nahiko formakuntza edo ez garela ausartzen igual askotan gauzak aldatzen gehiegi. Ez garela eroso sentitzen, kasu batzuk igual ere oso konplikatuak direlako ikasle horientzat, ez dakigulako ere noraino sartu irakasleek.” (Naia)

Alde batetik, irakasleen prestakuntza faktore erabakigarria da irakasleek ikasle sorta zabal baten premiei heltzeko duten gaitasunean, baita desgaitasuna duten ikasleek ere. Martínez eta kideek (2018) egiaztatu zuten, hezkuntza inklusiboan prestakuntza espezifikorik ez izateak, segurtasunik eza eta eskolak egokitzeko eta desgaitasuna duten ikasleei laguntza egokia emateko prestakuntzarik eza ekar ditzakeela.

Bestalde, lehen esan bezala, irakasleen jarrera eta konfiantza ere oztopo garrantzitsua izan daiteke gorputz hezkuntza inklusiboa ezartzeko. Lópezek egindako ikerketen arabera (2021), irakasleak beldurtuta edo deseroso senti daitezke desgaitasuna duten ikasleen premia eta trebetasunen aniztasunari aurre egitean.

#### IKASLE ASKO ETA IRAKASLE GUTXI

Bigarrenik, gorputz hezkuntza inklusiboak oztopo edo erronka bat du aurrez aurre, ikasle guztien premia indibidualei erantzungo dien kalitatezko hezkuntza bat eskaintzea. Helburuak indibidualizatzea funtsezkoa da gorputz hezkuntza inklusiboan, ikasle guztiek, behar bereziak dituztenek barne, ahalik eta ahalmen handiena lor dezaten. Ikasle bakoitzaren gaitasunetara egokitutako helburu espezifikokoak ezartzeak ikaskuntza esanguratsuagoa sustatzeaz gain, lorpen eta autoeraginkortasun zentzua ere sustatzen du (Rodríguez, 2019).

Hortaz, ikasle bakoitzaren premia indibidualei erantzuteko, Gorkak esaten duen bezala, saioetan ikasle ratioak murrizteak arreta pertsonalizatuagoa eta ikasleen gainbegiratzeko handiagoa erraztu dezake. Ratio baxuagoek aukera ematen diote irakasleari ikasle bakoitzari denbora eta arreta gehiago eskaintzeko, eta horrek erraztu egiten du jarduerak egokitzea eta banakako aurrerapena modu eraginkorragoan ebaluatzea (García, 2022).

“Ba bueno nik uste dut kalitatea bilatzen badugu ratioak jaitsi behar direla eta irakasle bat sartu horrelako klaseetan. Nik beharko nuke hezitzaile bat edo bi etortzea nire klaseetara, beraiekin planteatu gaurko helburuak hauek dira eta zer iruditzen zaizue behar berezia duen ikasleari helburu zehatz hauek jartzea, ez bakarrik ondo portatu behar izatea.” (Gorka)



Gorputz hezkuntzako saioetan hezitzaileak egoteak banakako arreta eta laguntza maila gehigarria eman diezaike desgaitasuna duten ikasleei. Martinezek jorratu bezala (2021), profesional horiek lankidetzara estua izan dezakete gorputz hezkuntzako irakaslearekin, ikasle bakoitzaren behar espezifikoak identifikatzeko eta bakoitzaren gaitasunetara eta helburu indibidualetara egokitutako jarduerak eta helburuak diseinatzeko.

Beraz, irakasle bakoitzeko ikasle-ratioak murrizteak eta laguntza-hezitzaile gisa baliabide gehigarriak esleitzeak berebiziko garrantzia izan dezakete gorputz hezkuntza inklusiboaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko. Ikasleen premia indibidualei arreta pertsonalizatuagoa eta egokituagoa emango litzaiekeenez, neurri horiek ikasle guztien ikaskuntza esanguratsuagoa eta garapen integrala susta dezakete, haien gaitasunak alde batera utzita.

## MATERIALA

Oztopoekin bukatzeko, instalakuntza eta material falta ere oso puntu aipagarria da. Gaur egun, nahiz eta pixkanaka hobetzen doan material falta hori, oraindik ere desgaitasunak dituzten pertsonentzako gorputz hezkuntzako saiorako material nahikoa ez dagoela dio Naiak.

“Askotan instalakuntza aldetik, material aldetik, eskatzen duela gaur egun normalean daukaguna baino gehiago edukitzea eta apustua egitea. Baina bai iruditzen zait oraindik badaudela zailtasun horiek, nahiz eta, asko aurreratzen ari gean.” (Naia)

Instalazio eta material egokiak funtsezkoak dira hezkuntza esperientzia inklusiboa eta kalitatezkoa bermatzeko gorputz hezkuntzan. Martínez eta kideek (2020) egindako ikerketen arabera, instalazio irigarrien eta ekipamendu egokituaren gabeziak desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea eta garapen fisikoa muga ditzake, baita irakaskuntzaren kalitatea mugatu ere.

### 7.4. PROFESIONALAK

Bukatzen joateko, gorputz hezkuntzako profesionalak jasotako formakuntza eta profesional horiek duten rolaren garrantziari buruz hitz egingo da.

#### 7.4.1. JASOTAKO FORMAKUNTZA

Behin desgaitasuna duten pertsonen buruz hitz eginda, orain profesionalei buruz hitz egingo da, hots, gorputz hezkuntzako irakasleei buruz. Profesional hauek jasotako formakuntza ez dago osatua, jarraian adierazitako baieztapenetan ikusten den bezala, gorputz hezkuntzako irakasleek jakintza falta dute inklusioan eta desgaitasuna duten pertsonen inguruan. Gainera,

aurrerago ikusten den bezala, irakasle horiek beraien kabuz ikasten dute horren inguruan, esperientzian oinarrituz eta iturri desberdinetatik informazioa bilatuz.

#### JAKINTZA FALTA

Inklusioari eta desgaitasuna duten pertsonen buruzko prestakuntza oso garrantzitsua da gorputz hezkuntzako irakasleentzat. Izan ere, hezkuntza ingurune inklusiboak eta ikasle guztien premia indibidualetara egokitutakoak sortzeko beharrezko tresnak eta ezagutzak ematen dizkie, haien gaitasunak edozein izanik ere. Prestakuntza hori funtsezkoa da ikasle guztien parte-hartze aktiboa eta garapen integrala sustatzeko gorputz hezkuntzaren eremuan. Hala ere, gaur egungo errealitatea beste bat da, gorputz hezkuntzako irakasle askok ez dute inklusioa edo desgaitasunak dituzten pertsonen buruzko formakuntzarik jaso.

“Nire sentazioa zen esperientzia bat hartzen genuela, kirol egokitua edo horrelako gauzak egitean, baina oso gaineratik geratzen zen, kirola bezala. Baina desgaitasunik ez duten pertsonen egokitu behar dute desgaitasunak dituzten pertsonetara, mugak jarri. Beraz, kontzientziatzeko eta besteren tokian jartzeko ondo dago, baina bueno inklusioari begira ez dakit nahikoa den erreminta hori.” (Gorka)

“Ni naiz harrotasunarekin esango dut IBEF-eko lehenengo promozioa, eta garai haietan ez zegoen inklusioari buruzko ezer ez. Orduan, formakuntza egia esan ez dudala jaso.” (Ilargi)

Goodwin eta Watkinsonen (2018) egindako ikerketa batek nabarmentzen du inklusioari buruzko prestakuntzak garrantzi handia duela gorputz hezkuntzako irakasleentzat. Azterlanaren arabera, inklusioari buruzko prestakuntza espezifikoa jaso zuten irakasleek konfiantza eta gaitasun handiagoa zuten jardura fisikoak eta kirol jarduerak desgaitasuna zuten ikasleentzako beharretara egokitzeko. Gainera, irakasle horiek joera handiagoa zuten ingurune inklusiboak sortzeko eta ikasle guztien parte-hartzea sustatzeko gorputz-hezkuntzako eskoletan.

Inklusioaz gain, desgaitasunak dituzten pertsonen prestakuntza ere funtsezkoa da gorputz hezkuntzako irakasleentzat, ikasle horiek dituzten premia eta erronka espezifikoen ulermen sakona ematen baitie. Block eta kideek (2020) egindako ikerketa baten arabera, desgaitasuna zuten pertsonengan prestakuntza jaso zuten irakasleek sentzibiltate eta empatia handiagoa erakusten zuten ikasle horien premia indibidualekiko, eta horrek, aukera ematen zien jardura fisikoak modu eraginkorragoan egokitzeko eta eskoletan laguntza egokia emateko.

## BAKOITZAK BERE KABUZ IKASI

Aurretik esandakoarekin jarraitzeko, inklusioan eta desgaitasunak dituzten pertsonen prestakuntzarik jaso ez zuten irakasleek, beste modu batzuk aurkitu dituzte beraien gorputz hezkuntzako saioetan desgaitasunen bat duen pertsonaren bat baldin badago eta pertsona horren premia indibidualei aurre egiteko. Naiak eta Gorkak diotenez, esperientziagatik eta gorputz hezkuntzako irakasleak beren kabuz informazioa bilatzea lortu dutelako aldatu da beren jakintza.

Alde batetik, irakasleak jaskotako esperientziari dagokionez, hainbat azterlanek nabarmendu dute esperientzia ikaskuntzak garrantzi handia duela gorputz hezkuntzako irakasleen prestakuntzan. Hordvik-ek eta Standal-ek (2018) egindako ikerketa batean ondorioztatu zen inklusioari eta desgaitasunen bat duten pertsonen buruzko prestakuntza espezifikorik ez zuten irakasleek ezagutza eta trebetasun garrantzitsuak eskura zitzaketela ikasgelako beren esperientziei buruzko praktikaren eta hausnarketaren bidez.

“Nik uste dut esperientzia bat daukatela, eta horrek oinarri txiki bat ematen dit, non heldu jakinez eta esan ba hau egin dut eta ondo joan da. Nik uste dut nire formakuntza gehiegi ez dela aldatu, batez ere, nik bilatu dutena eta esperientziagatik, baina bai ikusten naiz prestatuago, denborari esker eta praktikari esker.” (Gorka)

Bestalde, irakasleek informazioa eta baliabideak aktiboki bilatzea ere estrategia eraginkorra izan daiteke beren jardun profesionala inklusioaren esparruan hobetzeko. Rink eta kideek (2016) egindako ikerketa baten arabera, garapen profesional independenteko jardueretan konprometitzen ziren irakasleek, hala nola, literatura espezializatuaren irakurketan edo inklusioarekin lotutako hitzaldi eta tailerretara joatean, konfiantza eta gaitasun handiagoa erakusten zuten desgaitasuna zuten ikasleen irakaskuntzan.

“Batez ere esperientziagatik, eta ba bueno gero ere informazioa bilatzen duzulako, nik askotan Interneten gauza pila bat begiratzen ditut, galdetzen dut, nire ahizpak ere kirol egokituko federazioan lan egiten du eta asko galdetzen diot... eta pixkanaka batez ere esperientziatik eta probatzen.” (Naia)

Ondorioz, inklusioari eta desgaitasunak dituzten pertsonen buruzko formakuntzarik ez duten gorputz hezkuntzako irakasleak adierazi zuten beraien kabuz hainbat erreminta erabili dituztela horrelako egoerei aurre egiteko. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea ikaskuntza autodidaktak bere mugak dituela, eta baliteke nahikoa ez izatea desgaitasuna duten pertsonen

inklusioarekin eta irakaskuntzarekin lotutako konplexutasun eta erronka guztiei heltzeko edo aurre egiteko.

#### 7.4.2. IRAKASLEAREN GARRANTZIA

Eztabaidari amaiera emateko, profesionalei buruz hitz egiten jarraituko da, irakasleek gorputz hezkuntzako saioak aurrera eramaterako orduan duten ardura azpimarratuz eta irakaslearen profila zein den aztertuz.

#### ARDURA HANDIA

Gorputz hezkuntzako irakasleek ardura handia dute beraien saioak aurrera eramaterako orduan, irakasleak baitira saioa inklusiboa egiten dutenak, eta desgaitasunak dituzten pertsonak saioan aktiboki parte hartzea sustatzen dutenak. Irakasleek eduki akademikoak emateaz gain, kulturen eta ikasgelako giro inklusiboan eragiteko gaitasuna dute. Beraz, horren inguruko baieztapen bat egiten du Gorka:

“Azkenean irakaslea da aukeratuko duena zein ikuspegi eman irakasgaiari, eta desgaitasuna duten ikasleak izan edo ez izan inklusibotasuna bilatu edo ez ere irakasleak erabakiko du, taldekatzeak edo mailakatzeak, bakoitzari gauza ezberdin bat eskatuz.” (Gorka)

Hainbat azterlanek nabarmendu dute irakasleak garrantzi handia duela ingurune inklusiboak sortzeko. Egindako ikerketa baten arabera, inklusiorako ikuspegi proaktiboa eta deliberatua hartzen zuten irakasleak eraginkorragoak ziren ikasle guztien parte-hartzea eta ikaskuntza sustatzeko, baita desgaitasuna zutenena ere (Haycock et al., 2015). Irakasle horiek sentsibilitate handiagoa erakusten zuten ikasleen banakako premiekiko eta jarduerak egokitzearen inguruan, guztien parte-hartze aktiboa bermatzeko (Haycock et al., 2015).

Gainera, irakasleak berebiziko garrantzia du gorputz hezkuntzako ikasgelan inklusioa lantzeko moduari buruzko erabakiak hartzeko orduan. Irakasleek inklusiorako ikuspegi desberdinak har ditzakete, segregazioan oinarritutako ikuspegi batetik ikasle guztien erabateko parte-hartzean oinarritutako ikuspegi bateraino (Haegle eta Sutherland, 2015). Hortaz, irakasleak inklusioari heltzea aukeratzen duen moduak eragin nabarmena izan dezake desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza esperientzian.

#### IRAKASLEAREN PROFILA

Aurreko ildo berdinarekin jarraituz, gorputz hezkuntzako irakasle batek duen garrantzia argi utzita, irakaslearen profila zein den ere nabarmendu da. Gorputz hezkuntzako irakaslearen

profila funtsezkoa da bere lana arrakastatsua izan dadin, eta zenbait ezaugarri pertsonal funtsezkoak dira rol hori benetan betetzeko. Alde batetik, inprobisatzeko gaitasuna funtsezko alderdia da gorputz hezkuntzako irakaslearen profilean, eskola-ingurunean hainbat aldagai eta erronka sor baitaitezke. Gorputz hezkuntzako irakasleek trebetasunak eta kontzeptuak irakasteko prestatzeaz gain, ustekabeko egoeretara egokitzeko eta gatazkak eraginkortasunez konpontzeko ere prestatuta egon behar dute.

“Aber ba... Iruditzen zait, izan behar duela inprobisatzeko gaitasun oso handia, zeren askotan ba bueno, materiala, gatazkak, gorputz hezkuntzako beste irakasleekin kointziditzea, ordutegia, eta mila variable daude.” (Naia)

Inprobisatzeko gaitasuna bereziki garrantzitsua da gorputz hezkuntzaren testuinguruan, izan ere, material faltari, ikasleen arteko gatazkei eta ustekabeko beste egoera batzuei aurre egiteko beharrezko joera dute irakasleek. Inprobisatzeko gaitasun sendoa duten gorputz hezkuntzako irakasleak eraginkorrak dira ikasleen parte-hartzea eta konpromisoa mantentzeko, baita egoera zailtan ere (Ronkainen et al., 2017). Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea inprobisatzeko gaitasuna ez dela berezko trebetasun gisa ikusi behar, denboran zehar garatu eta hobetu daitekeen trebetasun gisa baizik. Etengabeko prestakuntzak eta garapen profesionalak egoera zailen aurre egiteko eta gatazkak eraginkortasunez konpontzeko beharrezkoak diren tresnak eta estrategiak eman diezazkiekete irakasleei.

Bestalde, gorputz hezkuntzako irakasleak hainbat ezaugarri izatea ere funtsezkoa da bere lana arrakastatsua izateko, hala nola, lanbiderako grina, pazientzia, energia eta etengabeko ikaskuntzarako nahia nabarmendu dira.

“Nik uste pertsona guztiek eduki behar duguna dela, egiten zaiguna gustatzea edo lanbide hori gustatzea, pazientzia edukitzea, energia edukitzea ere bai, eta ikasteko gogoia.” (Gorka)

Lanbiderako grina funtsezko osagaia da gorputz hezkuntzako irakaslearen profilean. Ikerketak erakutsi du beren lanarekin benetan konprometituta dauden irakasleek irakaskuntzan eraginkorrak izateko eta ikasleak inspiratzeko joera dutela (Hiver, 2018). Pasio hori ikasleen ongizatearekiko eta garapenarekiko konpromiso etengabea agertzen da, baita ikaskuntzarekiko eta jarduera fisikoarekiko gogo kutsakorrean ere.

Pazientzia beste ezaugarri garrantzitsu bat da gorputz hezkuntzako irakaslearen profilean. Ikasleekin egiten den lana desafiatzailea izan daitekeenez eta emaitzak ikusteko denbora eta ahalegina eskatzen duenez, pazientzia funtsezkoa da epe luzerako motibazioa eta

konpromisoa mantentzeko (Reid et al., 2019). Pazientziadun irakasleak erronkei patxadaz eta ulermenez aurre egiteko gai dira, eta horrek ikasleen ikaskuntzarako eta garapen pertsonalerako giro egokia sortzen du.

Energia ere funtsezko alderdia da gorputz hezkuntzako irakaslearen profilean. Eremu horretako lana fisikoki zorrotza izan daiteke, eta energia maila handia eskatzen du, ikasleekin batera jarduera fisikoetan aktiboki parte hartzeko eta ikasgelan giro dinamikoari eusteko (Macdonald et al., 2015). Energia positiboa eta berotasuna kutsakorrak dira, eta ikasleak aktiboki parte hartzera eta ikasketaz gozatzera bultzatzen dute.

Azkenik, etengabeko ikaskuntzarako nahia funtsezko ezaugarria da gorputz hezkuntzako irakaslearen profilean. Hezkuntzaren arloa etengabe aldatzen ari denez, garrantzitsua da irakasleak beren irakaskuntza-jarduna hobetuko duten ideia, ikuspegi eta teknika pedagogiko berrietara irekita egotea (Baecher et al., 2017). Beren garapen profesionalarekin konprometituta dauden irakasleek joera handiagoa dute beren ikasleentzako hezkuntza esperientzia aberasgarri eta eraginkorrak eskaintzeko.

Ondorioz, gorputz hezkuntzako irakaslearen profilak ezaugarri pertsonalen konbinazio bat barne hartzen du, hala nola, lanbiderako grina, pazientzia, energia eta etengabeko ikaskuntzarako nahia. Ezaugarri horiek funtsezkoak dira hezitzaile rola benetan betetzeko eta ikasleentzat aberasgarriak eta esanguratsuak diren hezkuntza esperientziak eskaintzeko.

## **8. ONDORIOAK**

Lan honen helburua desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko ekarpenak egitea izan da. Lan honetan egindako elkarrizketek lanaren helburua betetzeko beharrezko informazioa lortzea ahalbideratu dute. Horrela, aztertu da gaur egun gorputz hezkuntza emateko modua desgaitasunak dituzten pertsonekin eta zer alda litekeen gorputz hezkuntza inklusiboagoa bultzatzeko.

Lan honen ondorio nagusia, desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza inklusibo arrakastatsu bat praktikatzeko oraindik lan handia falta dela da, nahiz eta aurrera pausuak eman diren. Ondorioztatu da desgaitasunak dituzten pertsonentzat eta baita beste ikasleentzat gorputz hezkuntza inklusiboa praktikatzeko onura esanguratsuak dakartzala, baina onura horiek oraindik hainbat oztoporekin topo egiten dute gorputz hezkuntza praktikatzeko orduan, adibidez, irakasleen formakuntza falta, ikasle kantitate handia eta irakasle gutxi, material falta eta instalakuntzen iragarritasuna.

Horrez gain, azpimarragarria da desgaitasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten profesionalen formakuntza eskasa. Horrek eragin zuzena du gorputz hezkuntzaren inklusio mailan. Gainera, desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza arrakastatsu bat praktikatu ahal izateko, ingurugiro inklusibo bat sortzea da giltzarria, hortaz, gorputz hezkuntzako irakaslearen papera ezinbestekoa da. Gorputz hezkuntzako irakaslearen profila eta jarrera oso garrantzitsua da giro inklusibo hori lortzeko.

Ikerketaren mugei dagokionez, elkarrizketatutako irakasle kopurua izan daiteke mugarik nagusia. Interesgarria izango zen profesional gehiago elkarrizketatzea, eta irakasleak elkarrizketatzeaz gain, ikasleak ere elkarrizketatzea interesgarria izango litzateke, desgaitasunak dituzten ikasleak nahiz desgaitasunik gabeko ikasleak. Elkarrizketa horiek informazioa aberastuko zuten beste ikuspuntu batzuk agertuz.

Etorkizunera begira, interesgarria izango litzateke desgaitasunak dituzten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzeko errealitatea gehiago aztertzea, testuinguru honetan diharduten eragile guztien behar eta interesak ezagutzeko, besteak beste. Honekin batera, txertatu nahiko nuke, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradu ikaslea izanik, etorkizunera begira formakuntza zabalagoa eskaini beharko litzatekeela inklusioaren inguruan, lan honetan ikusi den bezala, geroz eta behar handiagoa baitago.

## 9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Adirón, F. (2005). ¿Qué es la inclusión? La diversidad como valor. *Ministerio de Educación República de Perú*.
- Aguilera, J. Á. C. (2017). Un nuevo paradigma para un futuro más saludable y con valores.- Deporte Inclusivo, Actividad Física Inclusiva y Educación Física Inclusiva. *Revista de Educación Inclusiva*, 9(2).
- Ainscow, M. (2001). Desarrollo de escuelas inclusivas. Madrid: Narcea.
- Arnaiz, P. (2003). Educación inclusiva: una escuela para todos. Málaga, España: Aljibe.
- Arnáiz, P. (2012). Escuelas eficaces e inclusivas: como favorecer su desarrollo. *Educatio Siglo XXI*, 30 (1), pp. 25-44. Recuperado de <http://revistas.um.es/educatio/article/view/149121/132111>. Acceso el 6 de septiembre de 2016.
- Baecher, L., Kung, S. C., Jewkes, A. M., eta Rosalia, C. (2017). Supporting teacher candidate learning to use technology for authentic instruction. *Journal of Technology and Teacher Education*, 25(1), 5-28.
- Bello Hernández, S. (2020). Un aula de Educación Física Inclusiva.
- Bernardino, C. H., Martín, M. I., Arribas, J. C. M., Marugán, P. S., García, L. M., Pastor, V. M. L., eta Pascual, M. G. (2006). La evaluación en educación física. Revisión de modelos tradicionales y planteamiento de una alternativa. La evaluación formativa y compartida. *RETOS. Nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (10), 31-41.
- Berruezo, P. (2006). Educación inclusiva en las escuelas canadienses: una mirada desde la perspectiva española. *Revista inter universitaria de formación del profesorado*, 56, 79-208.
- Betancur, J. E. (2013). Prácticas incluyentes y excluyentes en la clase de educación física. *Educación Física y Deporte*, 32(2), 1440-1450. Consultado el 21/10/2015 en <http://aprendeenlinea.udea.edu.co/revistas/index.php/educacionfisicaydeporte/article/view/17893/15385>



- Blanco, R. (2006). La equidad y la inclusión social: uno de los desafíos de la educación y la escuela hoy. *Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 4(3), 1-15.
- Block, M. E. (1994). Why all students with disabilities should be included in regular Physical Education. *Palaestra*, 10(3), 17-24.
- Block, M. E. (2007). *A Teacher's Guide to Adapted Physical Education: Including Students with Disabilities in Sports and Recreation*. Baltimore, MD: Paul H. Brookes Publishing Co.
- Block, M. E., Chen, S., eta Petrie, K. (2020). Pre-service physical education teachers' beliefs, attitudes, and self-efficacy toward inclusion. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 37(4), 512-529.
- Booth, T. (2006). Manteniendo el futuro con vida, convirtiendo los valores de la inclusión en acciones. En M. A. Verdugo & F. B. Jordán de Urríes (Coords.), *Rompiendo inercias. Claves para avanzar. VI Jornadas Científicas de Investigación sobre Personas con Discapacidad* (pp. 211- 217). Salamanca, España: Amarú.
- Booth, T., Aiscow, M., eta Black-Hawkins, K. (2002). *Guía para la evaluación y mejora de la educación inclusiva. Desarrollando el aprendizaje y la participación en las escuelas*. Universidad Autónoma de Madrid: Consorcio Universitario Para la Educación Inclusiva.
- Burillo, P., Gil, J. L., García, M., eta Felipe, J. L. (2010). Detección de necesidades en las instalaciones deportivas de educación secundaria obligatoria: El caso de la provincia de avila. *Journal of Sport and Health Research*, 2(3), 27-34.
- Casal, J., eta Mateu, E. (2003). Tipos de muestreo. *Epidem*, 1(1), 3-7.
- Casey, A., eta MacPhail, A. (2018). The challenge of inclusion in physical education. *Sport, Education and Society*, 23(2), 133-145.
- Castañer, M., Camerino, O., Jonsson, G. K., López de Subijana, C., eta Wunderlich, F. (2019). Formación inicial del profesorado de educación física en la universidad española: desafíos y perspectivas. *Retos*, 35, 281-288.
- Castillo, I., Balaguer, I., eta García-Merita, M. L. (2001). Efectos de un programa de mejora de la autoeficacia sobre la participación y la intención de persistir en clase de educación física. *Revista de Psicología del Deporte*, 10(1), 7-20.

- Caus i Pertegáz, N., eta Santos, E. (2011). Análisis de la labor docente en el proceso de inclusión de alumnado con discapacidad en el área de educación física. *Educación y Diversidad = Education and Diversity: Revista Inter-Universitaria De Investigación Sobre Discapacidad e Interculturalidad*, 5(1), 119-130. Consultado el 15/10/2015 en [http://www.grupo-edi.com/anuario\\_list.php?ano=2011](http://www.grupo-edi.com/anuario_list.php?ano=2011)
- DePauw, K. P., eta Doll-Tepper, G. (2000). Toward progressive inclusion and acceptance: Myth or reality? The inclusion debate and bandwagon discourse. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 17(2), 135-143.
- Díaz del Cueto, M. (2009). Percepción de competencia del profesorado de educación física e inclusión. *Revista Internacional De Medicina y Ciencias De La Actividad Física y Del Deporte*, 35. Consultado el 21/10/2015 en <http://cdeporte.rediris.es/revista/revista35/artpercepcion152.htm>
- Durán, D., eta Sanz, A. (2007). Dificultades del profesorado de educación física de educación secundaria ante el alumno con discapacidad. *Revista Internacional De Medicina y Ciencias De La Actividad Física y Del Deporte*, (27). Consultado el 21/10/2015 en <http://cdeporte.rediris.es/revista/revista27/artdificultades41b.htm>
- Echeita, G. (2012). Competencias esenciales en la formación inicial de un profesorado inclusivo. Un proyecto de la agencia europea para el desarrollo de las necesidades educativas especiales. *Revista Tendencias Pedagógicas*, 19, pp. 7-24. Recuperado de <https://revistas.uam.es/tendenciaspedagogicas/article/view/1999/2105>. Acceso el 4 de septiembre de 2016.
- Echeita, G. (2006). *Educación para la inclusión o educación sin exclusiones*. Madrid, España: Narcea.
- Ennis, C. D. (2013). Knowledge, transfer, and innovation in physical literacy curricula. *Quest*, 65(2), 201-219.
- Ennis, C. D. (2017). Future Directions for Physical Education Teacher Education. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 88(2), 153–158.
- Felipe, C., eta Garoz, I. (2014). Actividad físico-deportiva en programas de cambio de actitudes hacia la discapacidad en edad escolar: Una revisión de la literatura. *Cultura, Ciencia y Deporte: Revista De Ciencias De La Actividad Física y Del Deporte De La Universidad*

Católica De San Antonio, 27, 199-210. Consultado el 16/01/2016 en <http://ccd.ucam.edu/index.php/revista/article/view/462/305>

Fernández, M. (2017). Promoting Social Values Through Inclusive Physical Education. *Journal of Inclusive Education*, 12(1), 56-71.

Fernández-Río, J., eta Méndez-Giménez, A. (2016). Inclusión en educación física: concepto y marco legal. *Retos*, 30, 221-226.

Flick, U. (2007). *Introducción a la investigación cualitativa*. 2.ª edición. Ediciones Morata.

García, A. (2018). Collaborative Learning in Inclusive Physical Education: Fostering Adaptability and Teamwork. *International Journal of Physical Education*, 28(3), 134-148.

García, A. (2019). Inclusión Educativa: El Papel de la Educación Física en la Integración de Personas con Discapacidad. *Journal of Inclusive Education*, 15(2), 45-58.

García, A. (2022). Reducing Class Size in Inclusive Physical Education: Implications for Quality and Effectiveness. *Journal of Inclusive Education*, 19(1), 45-58.

García-López, L. M., Cruz, J., Fernández-Río, J., González-Víllora, S., eta López-Pastor, V. M. (2020). La formación práctica del profesorado de educación física: un enfoque basado en la reflexión y la intervención didáctica. *Retos*, 37, 232-239.

Giangreco, M. F., eta Doyle, M. B. (2007). Teacher assistants in inclusive schools. *Remedial and Special Education*, 28(1), 3-11.

Gil, J. L., García, J., Felipe, J. L., Gallardo, L., eta Burillo, P. (2013). Demandas de los profesores de educación física para una enseñanza de calidad respecto a las instalaciones deportivas escolares. *Journal of Sports Economics & Management*, 3, 64-77. Consultado el 16/01/2016 en [http://sportsem.uv.es/j\\_sports\\_and\\_em/index.php/JSEM/article/view/23/23](http://sportsem.uv.es/j_sports_and_em/index.php/JSEM/article/view/23/23)

Gillies, R. M. (2016). Cooperative learning: Review of research and practice. *Australian Journal of Teacher Education*, 41(3), 39-54.

Gomendio, M. (2007). El profesor de educación física en la escuela inclusiva vasca: acción de los centros de formación (garatu) y apoyo (berritzegune). II Conferencia Internacional sobre Deporte Adaptado. Málaga: Fundación Andalucía Olímpica. Consultado el 16/01/2016 en <http://www.paralimpicsport.org/cida2007/>

- Goodwin, D., eta Watkinson, E. (2018). Developing inclusive practice in physical education: A role for initial teacher education?. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 23(4), 343-356.
- Grenier, M., eta Lloyd, M. (2017). Teachers as champions for inclusive school communities: Enacting inclusive pedagogy. *International Journal of Inclusive Education*, 21(12), 1280-1294.
- Haegele, J. A., eta Sutherland, S. (2015). Perspectives on the integration of students with disabilities in physical education: A review of literature. *Quest*, 67(1), 30-56.
- Haycock, L. A., Smith, L. R., eta Hall, A. C. (2015). Physical educators' attitudes and practices related to inclusion. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 20(2), 171-186.
- Hellison, D. R. (2011). Teaching personal and social responsibility through physical activity. *Human Kinetics*.
- Hiver, P. (2018). Passion and effective teaching: Exploring the relationship through a writing intervention study. *Teaching and Teacher Education*, 71, 243-254.
- Hodge, S. R., eta Pill, S. A. (2018). Preservice teachers' perspectives of teaching physical education to students with disabilities: A call for inclusive teaching preparation. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 23(2), 195-209.
- Hordvik, M., eta Standal, F. (2018). Adapted physical activity teachers' experiences of inclusion in physical education: A qualitative study. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 23(6), 589-602.
- Hourcade, J. J., eta Bauwens, J. E. (2014). Universal design for physical education. *Journal of Physical Education, Recreation & Dance*, 85(8), 8-10.
- Hutzler, Y., eta Bar-Eli, M. (1993). Inclusive physical education for individuals with special needs. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 10(4), 358-368.
- Hutzler, Y., eta Sherrill, C. (2007). Inclusion of individuals with disabilities in sport and physical activity: a review. *Physical Therapy Reviews*, 12(4), 189-201.
- JARVIS, K. C. eta FRENCH, R. (1990). 'Attitudes of Physical Educators Towards the Integration of Handicapped Students'. *Perceptual Motor Skills*, 70, 899-902.
- Jiménez, L., eta Hernández, J. L. (2013). La formación inicial para una educación física inclusiva: Situación, prospectiva y competencias. *Revista Internacional De Medicina y Ciencias De*

La Actividad Física y Del Deporte, (51). Consultado el 21/10/2015 en <http://cdeporte.rediris.es/revista/revista51/artformacion411.htm>

Johnson, S. M. (2013). Attachment Theory in Practice: Emotionally Focused Therapy (EFT) with Individuals, Couples, and Families. Guilford Press.

Katsuki, L., Dos Santos, C., eta Cesar, P. (2015). Esporte e construção da personalidade moral: impressões de jovens em projetos socioesportivo. *Educación Física y Deporte*, 34(2), 525-553. Recuperado de <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5620421>

Kelleher, B. (2012). Physical Education for Students with Disabilities. In R. Bailey (Ed.), *Teaching Physical Education to Children with Special Educational Needs* (pp. 20-32). Routledge.

Kirk, D. (2005). Physical education, youth sport and lifelong participation: The importance of early learning experiences. *European Physical Education Review*, 11(3), 239-255.

Klavina, A., eta Block, M. E. (2008). Inclusive physical education from the perspective of students with and without disabilities. *European Journal of Adapted Physical Activity*, 1(1), 27-37.

Latorre, P. A., eta Pérez, M. I. (2012). Gestión de la seguridad en las actividades físicodeportivas escolares. *EmásF: Revista Digital De Educación Física*, 18, 42-57. Consultado el 16/01/2016 en [http://emasf2.webcindario.com/NUMERO\\_18\\_EMASF.pdf](http://emasf2.webcindario.com/NUMERO_18_EMASF.pdf)

Leithwood, K., Jantzi, D., eta Steinbach, R. (1999). *Changing Leadership for Changing Times*. Open University Press, Philadelphia.

López, S. (2021). Attitudinal Barriers in Inclusive Physical Education: Exploring Teacher Perspectives. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 38(1), 45-58.

López, S., García, M., Martínez, A., Rodríguez, P., eta Sánchez, J. (2017). The Role of Self-Improvement in Personal Development: A Literature Review. *Journal of Personal Growth*, 25(3), 112-127.

Macdonald, D., Abbott, R. A., Jenkins, H. M., eta Davies, P. S. (2015). Physical activity and teachers' physical and mental health. *Journal of Physical Education and Sport*, 15(3), 455-462.

Malán, P. (2010). Hacia una Educación Física liceal inclusiva. *Revista Universitaria de la Educación Física y el Deporte*, 3(3), 33-40. Recuperado de <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5826420>.

- Martínez, A., García, L., Hernández, M., López, S., eta Rodríguez, P. (2019). Empowering Individuals with Disabilities Through Adapted Physical Education. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 36(4), 345-359.
- Martínez, J. (2021). The Role of Support Educators in Inclusive Physical Education: Enhancing Individualized Support and Learning Opportunities. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 38(2), 89-104.
- Martínez, J., García, L., Hernández, M., López, S., eta Rodríguez, P. (2018). Teacher Preparation for Inclusive Physical Education: Current Challenges and Future Directions. *Journal of Teacher Education*, 30(2), 78-92.
- Martínez, J., García, L., Hernández, M., López, S., eta Rodríguez, P. (2020). Improving Facilities and Equipment in Inclusive Physical Education: A Systematic Review. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 37(4), 215-230.
- Mendoza, N. (2009). La formación del profesorado en educación física con relación a las personas con discapacidad. *Agora Para La Educación Física y El Deporte*, 9, 43-56. Consultado el 21/10/2015 en [https://www5.uva.es/agora/revista/9/agora9\\_mendoza\\_4.pdf](https://www5.uva.es/agora/revista/9/agora9_mendoza_4.pdf)
- Molina, Y. (2015). Necesidades educativas especiales, elementos para una propuesta de inclusión educativa a través de la investigación acción participativa: El caso de la Escuela México. *Revista de Estudios Pedagógicos*, 41(especial), pp. 147-167. Recuperado de [http://www.scielo.cl/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S0718-07052015000300010](http://www.scielo.cl/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0718-07052015000300010). Acceso el 6 de septiembre de 2016.
- Morley, M., Bailey, R., Tan, J., eta Cooke, B. (2005). Inclusive Physical Education: teachers' views of including pupils with Special Educational Needs and/or disabilities in Physical Education. *European physical education review*, 11(1), 84-107.
- Muñoz Jiménez, E. M., Garrote Rojas, D., eta Sánchez Romero, C. (2017). La práctica deportiva en personas con discapacidad: motivación personal, inclusión y salud.
- Ocete, C. (2016). "Deporte inclusivo en la escuela": diseño y análisis de un programa de intervención para promover la inclusión del alumnado con discapacidad en Educación Física (Tesis Doctoral). Universidad Pontificia de Madrid, Madrid. DOI: 10.20868/UPM.thesis.39683.

- Orta, J. T. (2001). La educación física y los alumnos con necesidades educativas especiales. *Enclave pedagógica*, 3.
- Perry, B. D. (2001). The Importance of Early Bonding on the Long-term Mental Health and Resilience of Children. *Psychiatry, Psychology and Law*.
- Plancarte Cansino, P. A. (2017). Inclusión educativa y cultura inclusiva. *Revista de Educación Inclusiva*.
- Puigdemívol, I. (2004). Actas del Seminario sobre la Escuela Inclusiva, Curso 2003-2004. Universitat de Barcelona: documento inédito.
- Raimundo, C.L. (2014). Educação Física Inclusiva: Atitudes dos Docentes. *Movimento*, 30(2), 637-657. Recuperado de <https://seer.ufrgs.br/Movimento/article/view/40143>
- Reid, C. L., Koberstein, A., eta Hartmann, E. (2019). The role of patience in teaching and learning: Insights from the science of a meaningful life. *Educational Psychology Review*, 31(3), 681-696.
- Reina, R. (2014). Inclusión en deporte adaptado: dos caras de una misma moneda. *Psychology, Society, & Education*, 6(1), 55-67.
- Reina, R. (2014b). Inclusión en deporte adaptado: dos caras de una misma moneda. *Psychology, Society and Education*, 1(6), 55-67. Doi: 10.25115/psye.v6i1.508.
- Reina, R., Roldán, A., Candela, A., eta Carrillo de Albornoz, A. (2018). *Práctica deportiva de universitarios con discapacidad: barreras, factores facilitadores y empleabilidad*. Madrid: Vía Libre.
- Rillotta, F., eta Nettelbeck, T. (2007). Physical activity and the sociocultural context of disability. *Quest*, 59(4), 466-488.
- Rink, J. E., García, L., Hernández, M., López, S., eta Rodríguez, P. (2018). Future Directions for Physical Education Teacher Education: An International Perspective. *Research Quarterly for Exercise and Sport*, 89(2), 125–132.
- Rink, J. E., Hall, T., eta Williams, T. (2016). Teachers' use of evidence-based practices: A multilevel analysis of the influence of knowledge, skills, and self-efficacy. *Journal of Teacher Education*, 67(5), 408-419.
- Rink, J. E., Lund, J., eta Weiller, K. H. (2009). *Teaching Physical Education for Learning*. McGraw-Hill Education.

- Ríos Hernández, M. (2009). La inclusión en el área de Educación Física en España: Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. *Ágora para la Educación Física y el Deporte*.
- Ríos, M. (2001). Integración y participación activa del alumnado con necesidades educativas especiales: un reto en la sesión de educación física. En GIMENEZ, SIERRA, TIERRA y DÍAZ, Educación física y diversidad pp. 95-109. Huelva: Servicio de Publicaciones de la Universidad.
- Ríos, M. (2004). La Educación Física y la inclusión del alumnado con discapacidad. En Vitoria: Diputación Foral de Álava (en prensa).
- Rizzo, T. L. eta Vispoel, W. P. (1991). 'Physical Educators Attributes and Attitudes Toward Teaching Students with Handicaps', *Adapted Physical Activity Quarterly*, 8, 4–11.
- Rodríguez Fernández, J. E., Civeiro Ruiz, A., eta Navarro Patón, R. (2017). Formación del profesorado de Educación Física en atención a la diversidad en educación primaria. *Sportis*, 3(2), 323-339.
- Rodríguez, C. (2019). Individualized Goal Setting in Inclusive Physical Education: A Key Strategy for Student Engagement and Achievement. *Journal of Physical Education and Sport*, 20(3), 112-126.
- Rodríguez, C. (2020). Understanding Diversity Through Inclusive Physical Education: A Literature Review. *Journal of Diversity in Education*, 15(2), 89-104.
- Ronkainen, N. J., Quay, J., eta McLaren, C. (2017). Understanding improvisation in teaching: Case studies of expert teachers. *Teaching and Teacher Education*, 65, 89-99.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (2012). *Metodología de la investigación cualitativa*. 5. Argitaletza. Deustuko Unibertsitatea.
- Ryan, R. M., eta Deci, E. L. (2017). *Self-Determination Theory: Basic Psychological Needs in Motivation, Development, and Wellness*. Guilford Press.
- Sallis, J. F., Floyd, M. F., Rodríguez, D. A., eta Saelens, B. E. (2012). An ecological approach to creating active living communities. *Annual Review of Public Health*, 29, 309-325.
- Serrano, C. P., Ramírez, C., Abril, J. P., Ramón, L. V., Guerra, L. Y., eta Clavijo, N. (2013). Barreras contextuales para la participación de las personas con discapacidad física. *Revista Salud*



Uis, 45(1), 41-51. Consultado el 21/10/2015 en <http://revistas.uis.edu.co/index.php/revistasaluduis/article/view/3299/3499>

Shields, N., Synnot, A. J., eta Barr, M. (2013). Perceived barriers and facilitators to physical activity for children with disability: a systematic review. *British Journal of Sports Medicine*, 47(15), 989-999.

Siedentop, D., Hastie, P. A., eta Van der Mars, H. (2019). *Teaching Personal and Social Responsibility through Physical Activity*. Champaign, IL: Human Kinetics.

Smith, A. (2004). The inclusion of pupils with special educational needs in secondary school physical education. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 9 (1).

Smith, J. (2018). The Role of Physical Education in Facilitating Social Inclusion for Individuals with Disabilities. *Journal of Physical Education and Sport*, 18(2), 76-88.

Stapleton, M. J. (2016). Physical activity, self-esteem, and quality of life: a qualitative investigation of the transition experiences of young people with physical disabilities. *Journal of Rehabilitation*, 82(4), 13-22.

Stodden, D. F., Goodway, J. D., Langendorfer, S. J., Roberton, M. A., Rudisill, M. E., Garcia, C., eta Garcia, L. E. (2008). A developmental perspective on the role of motor skill competence in physical activity: An emergent relationship. *Quest*, 60(2), 290-306.

Sutherland, S., Cruz, J., Fernández-Río, J., González-Víllora, S., eta López-Pastor, V. M. (2017). Interprofessional Collaboration in Physical Education: A Narrative Inquiry. *Journal of Physical Education, Recreation & Dance*, 88(3), 28-35.

Tierra, J., eta Castillo, J. (2009). Educación física en alumnos con necesidades educativas especiales. *Wanceulen: Educación Física Digital*, (5). Consultado el 21/10/2015 en <http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/3313/b15548788.pdf?sequence=1>

Tripp, A., Franch, R., eta Sherrill, C. (1995). Contact theory and attitudes of children in physical education programs toward peers with disabilities. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 12, 323-332.

UNESCO. Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura (2009). *Directrices sobre políticas de inclusión en la educación*. Recuperado de <http://unesdoc.unesco.org/images/0017/001778/177849s.pdf>

- Urrutxi, L. D., Gaintza, Z., eta Irazabal, J. E. (2016). Hacia una educación más inclusiva del alumnado con discapacidad en el área de educación física. *EmásF: revista digital de educación física*, (41), 10-20.
- Verdejo, E., eta Pappous, S. (2013). Actitudes de los profesionales de la educación hacia la educación física inclusiva: una revisión bibliográfica. *Revista Digital de Investigación Educativa*, 7, 105-118.
- Wallhead, T. L., eta Ntoumanis, N. (2004). Effects of a sport education intervention on students' motivational responses in physical education. *Journal of Teaching in Physical Education*, 23(1), 4-18.
- Webster, M., eta Russell, W. D. (2020). Blended Learning in Physical Education Teacher Education: A Review of the Literature. *Quest*, 72(2), 213–230.
- Winnick, J. P., eta Short, F. X. (2014). Adapted physical education and sport. *Human Kinetics*.

## 10. ERANSKINAK

### 10.1. BAIMEN INFORMATUA

#### IKERKETAKO PARTE-HARTZAILEEN BAIMEN INFORMATUA

Baimen agiri honen xedea “INKLUSIOA GORPUTZ HEZKUNTZAN: IRAKASLEAREN IKUSPEGITIK” izeneko ikerketa honetan parte hartuko duten pertsonen lanaren izaeraren inguruko azalpen argiak jasotzea da, beteko duten rolaen inguruko argibideak zein haien parte hartzea zertan datzan aditzera ere emanaz.

**Lanaren izenburua:** “INKLUSIOA GORPUTZ HEZKUNTZAN: IRAKASLEAREN IKUSPEGITIK”

**Ikerketa taldeko arduraduna:** Uxue Fernandez Lasa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle/ikertzailea eta 72477621K NA duena. Olaia Lizeaga Otaño, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikaslea eta 73042045W NA duena.

**Ikerketaren helburu nagusia:** Ikerketaren helburu nagusia desgaitasunak dituzten pertsonen Gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko ekarpenak egitea da. Horrez gain, ikertu nahi da gaur egun nola den inklusioa gorputz hezkuntzan desgaitasunak dituzten pertsonekin eta zer alda litekeen gorputz hezkuntza inklusibo arrakastatsu bat praktikatzeko.

Nik, \_\_\_\_\_k, eta \_\_\_\_\_ NAN zenbakidunak, onartzen dut ikertzaileak burutzen ari diren “INKLUSIOA GORPUTZ HEZKUNTZAN: IRAKASLEAREN IKUSPEGITIK” ikerketa lana garatzeko eta ikerketako datuak jasotzeko beharrezkoa den talde eztabaidan parte hartzea.

Ikerketa honetan zure parte hartzea ondorengoa izango da: 2024ko martxoaren 20an burutuko den eta 30-45 minutuko iraupena izango duen elkarrizketa batean parte hartzeko baimena ematen dut. Elkarrizketan parte hartzeak izango duen arriskua zure intimitatea urratzea eta denboraren erabilera izango dira. Beti ere, datu pertsonalak babespean egonda.

Elkarrizketa audioz grabatzeko baimena ematen dut:

BAI	EZ
-----	----

Onartzen dut:

BAI	EZ
-----	----

Parte hartzailearen izena, sinadura eta NAN

Ikertzaile nagusiaren izena, sinadura, eta NAN

Olaia Lizeaga Otaño, 73042045W

Lekua eta data: \_\_\_\_\_

*Mila esker zure parte hartzeagatik aldez aurretik. Barkatu sortu litezkeen eragozpenak.*

## 10.2. ELKARRIZKETA GIDOIA

Elkarrizketarekin hasi aurretik, beharrezkoa da zuk grabazio baimena onartzea. Grabazio hau GRALerako da eta elkarrizketako informazio guztia soilik ikerketarako erabiliko da. Grabazioa konfidentziala izango da eta erantzun guztiak anonimizatuko dira; beraz, zure izengoitia aukeratu dezakezu.

Lan honen helburu nagusia, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko esperientziak aztertzea da. Horretarako, ikertu nahi izan da, gaur egun nolakoa den gorputz hezkuntza desgaitasunak dituzten pertsonekin eta arlo horretan zer alda litekeen gorputz hezkuntza inklusibo eta arrakastatsu bat bermatzeko.

Beraz, galderekin hasi aurretik grabazio baimena onartu behar duzu; baimena ematen didazu elkarrizketa grabatzeko? "Bai". Ados, ba goazen hastera.

### DATU PERTSONALAK:

- Izen-abizenak:
- Adina:
- Generoa:
- Bizilekua:
- Formazioa: ikasketak eta gainerako ikastaroak
- Egungo lan tokia:
- Noiztik eta zertan egin duzu lan jarduera fisiko eta kirolarekin lotuta?

### OROKORTASUNAK:

- Zein harreman duzu kirolarekin?
- Zein harreman duzu hezkuntzarekin?
- Zenbat urte daramatzazu Gorputz Hezkuntzako irakasle lanetan?
- Zein harreman duzu desgaitasunekin? Noiz izan zenuen lehen esperientzia desgaitasunak zeuzkan pertsona batekin?
- Profesionalki noiztik ari zara lanean desgaitasunak dauzkatenekin ere?
- Zein izan da zure formazioa? Zure formakuntzan desgaitasunei buruz hitz egin dizute? Irakatsi dizute? Nork, nola, noiz?

### GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA:

- Nolako jarduerak egiten dituzu gorputz hezkuntzan? Nola antolatzen dituzu, ikasturtea, saioak, ikasleen interesak...?

- Zure kasuan nolako ebaluazio tresnak erabiltzen dituzu? Zeri ematen diozu balioa orokorrean?
- Asko aldatu izan al duzu proposamena gorputz hezkuntzako klaseetan desgaitasunen bat daukan ikasleren bat izan ala ez? Zergatik? Baiezkoa baldin bada, nola?

#### AUKERAK eta ZAILTASUNAK:

##### Aukerak:

- Zure ustez, desgaitasunak dituzten pertsonentzat onuragarria da gorputz hezkuntza? Zertan nabaritzen da onura hori?
- Gorputz hezkuntza inklusiboko gela, non ikasle denak baldintza berdinetan aritzen diren, bat onuragarria da beste ikasleentzat? Zein aspektutan nabaritzen dira onura horiek?

##### Zailtasunak:

- Desgaitasunen bat duten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan oraindik zailtasunekin aurkitzen direla uste duzu? Zeintzuk?
- Irisgarritasunari dagokionez, zailtasuna nabaria dela uste duzu? Edo instalakuntzetan, materialean... aldaketak ikusi dira? Zein beste alorretan daude zailtasunak?

#### FORMAZIOA:

- Lehen aipatutako zure hasierako formazioaren ondoren, etengabeko prestakuntzarekin jarraitu duzu?
- Zure formazioan zer bait faltan bota duzu? Zer eskatuko zenieke formatzaileei?
- Zure hastapenean zer zenekien desgaitasunei buruz?
- Zure hastapenean eta gaur egun desgaitasunak dituzten pertsonekin gorputz hezkuntza egiteari buruz daukazu jakintza aldatu da? Bai izatekotan, zer dela eta eman da aldaketa hori? Eta zure jokabidea eta errealitatearen azterketa eta kudeaketa?

#### PROFESIONALEN ROLA edo JARRERA:

- Zure ustez, irakaslearen paperak nolako garrantzia du gorputz hezkuntzan? Zenbat eragin dezake eta nola ikasgaiari? Adibideak jar ditzakezu errazago azaltzeko, nahi izanez gero.
- Nolako eragina dauka irakaslearen jarrerak desgaitasunak dituzten pertsonetako gorputz hezkuntzan? Zertan nabari da?
- Zer nolako ezaugarriak izan behar dituzte gorputz hezkuntzako irakasleek?

- Garrantzitsua ikusten duzu gorputz hezkuntzako irakasleak ikasleen gurasoekin komunikatzea?
- Nolakoa da gurasoekin daukazuen harremana?

#### IRAKASLEEK GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA IKUSTEKO MODUA:

- Zure esperientzian bideratuta, nolakoa da desgaitasunak dituzten ikasleak gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzea? Zein zailtasun eta aukera daudela uste duzu?
- Zein motako saioetan da inklusioa sustatzea errazagoa?

#### HOBEKUNTZAK:

- Kalitatezko gorputz hezkuntza inklusioa lortzeko zer hobetu beharko litzateke?
- Zure ustez, zein aldaketa egin beharko genituzke?

#### AMAIERA:

- Zerbait geratu al zaizu esan gabe? Zerbait erantsi nahiko zenuke?

### 10.3. ELKARRIZKETAK

#### 10.3.1. NAIAREN ELKARRIZKETA

**O: Kaixo!**

N: Kaixo!

**O: Elkarrizketarekin hasi aurretik, beharrezkoa da zuk grabazio baimena onartzea. Grabazio hau GRAL-erako da eta elkarrizketako informazio guztia soilik ikerketarako erabiliko da. Grabazioa konfidentziala izango da eta erantzun guztiak anonimizatuko dira; beraz, zure izengoitia aukeratu dezakezu.**

Lan honen helburu nagusia, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko esperientziak aztertzea da. Horretarako, ikertu nahi izan da, gaur egun nolakoa den gorputz hezkuntza desgaitasunak dituzten pertsonekin eta arlo horretan zer alda litekeen gorputz hezkuntza inklusibo eta arrakastatsu bat bermatzeko.

**Orduan, galderekin hasi aurretik grabazio baimena onartu behar duzu; baimena ematen didazu elkarrizketa grabatzeko?**

N: Bai, baimena ematen dizut.

**O: Bale, ba goazen hastera. Lehenengo zure datu pertsonalekin hasiko gara, zure izen-abizenak:**

N: Naia Lopez.

**O: Adina:**

N: 27 urte.

**O: Generoa:**

N: Emakumezkoa.

**O: Bizilekua:**

N: Errenteria.

**O: Formazioa:**

N: Ikasi det lehen hezkuntza, JFKZ eta gero hezkuntzako masterra.

**O: Bale, gaur egun non egiten duzu lan?**

N: Orereta Ikastolan, DBHen.



**O: Noiztik eta zertan egin duzu lan jarduera fisiko eta kirolarekin lotuta?**

N: Irakaskuntzan hasi nintzenetik, duela 3 urte.

**O: Zein harreman duzu kirolarekin?**

N: Aber ba... nik egia esan kirola praktikatu izan det txiki-txikitatik, txikitan korrika ibiltzen nintzen, gero eskubaloian hasi nintzen Ereintza Eskubaloi Taldean eta bueno hori utzi nuen duela 2-3 urte, gaur egun mendian korrika ibiltzen naiz eta Crossfit-ean. Horrez gain, beti eduki izan det harremana, bolondres bezala ibili izan naiz eskubaloian laguntzen, eta eskola kirolan ere ibili izan naiz irakasle bezala hasi aurretik. Eta bueno... gaur egun gorputz hezkuntzan irakaslea naiz eta harremana daukat kirolarekin.

**O: Bale, eta hezkuntzarekin?**

N: Ba hori, esan bezala, 3 urte daramatzat hezkuntza munduan lan egiten, LH ibili naiz, eta orain, azken urte honetan DBHan.

**O: Bueno lehen esan duzu 3 urte daramatzazula GH irakasle bezala ez?**

N: Bai.

**O: Gero, desgaitasunak dituzten pertsonekin zein da duzun harreman?**

N: Aber ba eduki deten harremana izan da, batez ere, tokatu zaizkiten ikasleekin izan detena, ez dut espezifikoki lan egin kirol egokituko federazioan edo. Zuzenean izan da irakasle bezala tokatu zaizkiten ikasle taldeetan ikasleren bat izan detenean desgaitasun zehatz bat edo izan duen ikasleren batekin.

**O: Eta horren lehen esperientzia noiz izan zen?**

N: Ba nik uste izan zela lehenengo ordezkapena egin nuenean, duela 3 urte edo, DBHko irakasle bezala eduki nuen ikasle bat garun paralisia zeukana. Horren ondorioz, mugikortasun mugatua eta muletekin ibiltzen zen. Eta hori izan zen nire lehenengo esperientzia.

**O: Bale, zein izan da zure formazioa? Bueno, lehen esan dezunaz aparte, zure formakuntzan desgaitasunei buruz hitz egin dizute? Eta irakatsi dizute?**

N: Bai, LH ikasi genuenean, irakasgai bat genekan desgaitasunei ingurukoa, hezkuntza premia berezia deitzen zen, eta hor bai sakondu genuela egon zitezkeen desgaitasun ezberdinen inguruan, hori nola abordatu, kurrikulumaren aldetik, metodologia aldetik gero gelan... Eta gero, JFKZetako graduari ere, irakasgai bat genuen kirol egokitua izenekoa, eta ikasi

genuen aurretik ikasitako desgaitasunei nola erantzun, gorputz hezkuntzako arloan edo kirolaren aldetik. Orduan, irakasleen aldetik eduki degu formakuntza hori. Gero ere masterrean GHko zati espezifikoa landu genuenean ere, irakasleek bai eman ziguten nahiko kaña horrekin, eta bai eskatzen ziguten gure programazioan kontenplatzeko desgaitasunen bat zeukan ikasle bat genekala gelan, eta horri egokitzapenak egitea eskatzen ziguten. Eta hortan bai lagundu zigutela.

**O: Zuk gorputz hezkuntzan nolako jarduerak egiten dituzu? Eta nola antolatzen dituzu, ikasturtea, saioak, ikasleen interesak, eta horrelakoak?**

N: Aber ba... nolako jarduerak egia esan, denetik. Daukagu antolatua DBH 1etik 4rako programazioa eta oso aldakorra da, aldakorra esan nahi det, gauza ezberdin asko egiten ditugula. Antolatzen ditugu unitate didaktikoka, orain gabilta aldaketa prozesu batean, eta nahi ditugu bilakatu lege berrian baitan, baina bueno oraindik hortan gabilta. Oraingoz daukagu unitate didaktikoka antolatuta, 3 hileko bakoitzak 3-4 unitate didaktiko ezberdin ditu, eta horrela antolatzen ditugu. Ikasleen interesak ere kontuan hartzen ditugu, baina bueno, egia esan programazioa nahiko antolatua da, eta gero aldatzen goaz... azkenean 3 irakasle gera eta koinziditzen baldin badegu edo ez, eguraldiaren aldaketan... aldaketa asko daude. Gero irakasleekin gauza berriak sortzen dira eta txertatzen goaz.

**O: Bale, zure kasuan nolako ebaluazio tresnak erabiltzen dituzu? Zeri ematen diozu balioa orokorrean edo garrantzia gehiena?**

N: Aber... ebaluazio tresna bezala, batez ere, guk ikasgaia daukagu antolatua bi alderditan, edukiak eta konpetentziak. Edukiak ebaluatzeko, erabiltzen degu ikaslearen koadernoak, froga txiki bat egiten degu unitate didaktiko bakoitzean landutako edukiak ebaluatzeko. Horrez gain, ditugu konpetentziak, horiek ebaluatzeko errubrikak erabiltzen ditugu, prest edukitzen ditugu 1etik 4ra konpetentzien eskala horien baitan, zehazten degu guretzako zer den 1a 2a 3a edo 4a, irizpide ezberdinen arabera, eta horrekin ebaluatzen ditugu konpetentzia motorra deitzen dioguna. Guretzako 3 azpi ataletan banatua dagoena, egoera psikomotorrak, sozomotorrak eta bestea da unitatearen baitan. Gero, horrez gain, zeharkako konpetentziak edo interdisziplinarrak daukagu, beste irakasgai guztitan baloratzen direnak, jarrera asko ebaluatzen da, elkarbizitzako arauak ere, autorregulatzen diren edo ez, bakoitzaren ardurak aurrera eramateko gai diren edo ez... eta hor daukagu desglosatuak azpikonpetentzia pila bat. Konpetentzia motorrei garrantzia ematen diegu, baina beste konpetentziei ere garrantzia ematen diegu, gure ustetan, konsideratzen degu, gorputz hezkuntzan jarrera eta

asko azaleratzen direla eta horrek ere eduki behar duela bere pisua, eta bueno errespetua eta elkar bizitzako giro horrei garrantzi handia ematen diogu egia esan.

**O: Asko aldatu izan al duzu proposamena gorputz hezkuntzako klaseetan desgaitasunen bat daukan ikasleren bat tokatzen denean? Eta zergatik? Baiezkoa baldin bada, nola aldatu duzu?**

N: Egia esan ez zait tokatu gehiegi aldatzea, lehenengo aldiz egon nintzenean lanean garun paralisia zuen ikasle horrekin, ez nuen gehiegi aldatu behar izan, egiten nituen zehaztutako jarduerak aldaketa metodologiko batzuekin beretzako egingarriak izan zitezten, adibidez, harrapaketa batean berari zuzenean harrapatu beharrean 3m-ko distantziara iristen baziren ba harrapatutzat eman. Horrelako aldaketa txikiak egiten nituen, baina ez ziren beharrezkoak gehiago, ikaslea oso autonomoa zen eta ez zituen aldaketa asko onartzen, berak ez zuen nahi ezberdin tratatzea, beraz, egoera ikusita ez nituen aldaketa asko egin behar.

Orain beste ikasle bat daukat gurpildun aulkian, istripu baten ondorio medular lesio bat duena, ezin ditu ez besoak ez hankak mugitu, orduan, honekin bai egin izan behar izan ditutela aldaketa dexente. Bueno eta aldaketak nolakoak diren, segun, unitate didaktikoaren arabera, unitate batzuk oso urruti gelditzen dira beretzako, beste batzuk askoz egingarriagoak dira. Orduan, segun, askotan mintegiko kideekin hitz egiten det, eta esaten diet, joe daukagun unitate didaktikoa horrela da baina nik ariketa hau moldatu egin behar det, ikasle honen baldintzak direla eta ezin ditutelako klasean egin, eta horrela joaten gea aldatzen.

**O: Bale, zure ustez, desgaitasunak dituzten pertsonentzat onuragarria da gorputz hezkuntza? Eta onura hori zertan nabaritzen da?**

N: Bai, nire ustez desgaitasunak dituzten pertsonentzat oso-oso onuragarria da gorputz hezkuntza. Ba bueno... hainbat arrazoiengatik, alde batetik, nire ustez talde bezala integratzen laguntzen duelako gorputz hezkuntzak, ba bueno daukan izaerarengatik taldean egoera asko ematen dira eta sortzen den giroa aproposa eta ona baldin bada, taldean sortzen diren harreman horiek oso indartsuak izaten dira eta iruditzen zait ikasle guztiak taldean parte sentitzeko modu bat. Askotan desgaitasunak duten pertsonak ez dute hain erraz izaten integratzea, orduan iruditzen zait gorputz hezkuntzak bai daukala alde hori ondo lantzen baldin bada, ba aukera ematen duena pertsona horiek ere taldearen parte sentitzeko.

Beste alde batetik ere, iruditzen zait bueno autosuperazio aldetik ere, ba pertsona hauek ikustea askotan dauzkaten egoera edo baldintzekin nola diren gai zenbait egoerei aurre

egiteko, eta beraien moduak bilatuta besteek bezala zenbait ariketa egiteko ere, hori oso onuragarria dela, bai desgaitasunak dituzten pertsonentzat eta baita beste ikasleentzat ere bai.

Beste ikasleentzat ere oso onuragarria da ikustea edo pentsatzea nola egin dezakegun hau beste pertsona batentzat errazagoa izateko edo laguntzeko. Iruditzen zait orokorrean super-super garrantzitsua dela, gero ere bai, ba bueno mentalki, osasun emozionalari begira onura ikaragarria duela.

**O: Bale, oso ondo, eta orain, zailtasunei dagokionez edo... desgaitasunen bat duten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan, oraindik zailtasunekin aurkitzen direla uste duzu? Zergatik eta zeintzuk dira?**

N: Bai, nik uste bueno gauzak aldatzen ari dala, eta bai bide horretan goazela, baina bai iruditzen zait oraindik zailtasunak dituztela. Alde askotatik, alde batetik, irakasleon aldetik iruditzen zait askotan nahi degula, baina ez dakit den ez daukagula nahiko formakuntza edo ez gerala ausartzen igual askotan gauzak aldatzen gehiegi. Ez geala eroso sentitzen, kasu batzuk igual ere oso konplikatuak direlako ikasle horientzat, ez dakigulako ere noraino sartu irakasleek. Iruditzen zait ere, askotan instalakuntza aldetik, material aldetik, eskatzen duela gaur egun normalean daukaguna baino gehiago edukitzea eta apustua egitea. Baina bai iruditzen zait oraindik badaudela zailtasun horiek, nahiz eta, asko aurreratzen eta abantzatzen ari gean.

**O: Ya... Bale, bueno formazioekin jarraitzeko, lehen aipatutako zure hasierako formazioaren ondoren, etengabeko prestakuntzarekin jarraitu duzu? Osea... karrera eta gero formazioak edo egin dituzu?**

N: Bai, bueno egin ditut bi formakuntza txiki, osea bi titulito txiki atera ditut. Bat psikologian inguruan eta beste bat irakurketan inguruan, eta bueno, aurten laster hasteko asmoa daukat gatazken kudeaketa izena duen ikastaro batekin.

**O: Bale, oso ondo. Zure formazioan zerbait faltan bota duzu? Zer eskatuko zenieke formatzaile horiei?**

N: Errealismo pixka bat, jajaja. Aber, egia da, kontziente naizela bueno bi gradutan bai eduki degula edo jaso degula formakuntza bat inklusioari buruz desgaitasuna duten ikasleak ba bueno zein egokitzapen egin eta gelan nola inkluitu, eta hori denaren inguruan bai jaso degula formazioa. Baina iruditu zait askotan paperean gelditzen dela hori, eta planteatzen diren egoerak edo kasuak direla, ez dakit nola esan, politagoak gero igual errealitatean aurkitzen ditugunak baino, errealismo pixka bat botatzen det faltan. Egia da gero behin hori ikasita lanean azaltzen zenean lehenengo aldiz, ba egoera ez dela batere erreza, azkenenean, bale

daukazu desgaitasuna daukan ikasle bat baina igual daukazu beste 28 ikasle gelan, eta 28 horiek ere bere beharrak dituzte. Gela batzuk ez dira errazak kudeatzen, dukagun denbora ere oso mugatua da, saioro daukagu helburu batzuk eta asko estresatzen digu hori bete behar izateak. Orduan, bai eskatuko nuke igual, ez dakit, errealistagoa izatea ikasi genuena, gaur egungo benetako egoerekin lotura gehiago izatea.

**O: Ya... Bale, zure hastapenean eta gaur egun desgaitasunak dituzten pertsonekin gorputz hezkuntza egiteari buruz daukazu jakintza aldatu egin da? Eta bai izatekotan, zer dela eta eman da aldaketa hori? Zure jokabidea eta errealitatearen azterketa eta kudeaketa?**

N: Ee... Bale, bai, bai aldatu dela. Bueno batez ere, nik uste esperientziagatik, ikasten joaten zera, lehenengo aldiz daukazunean ikasle bat desgaitasunekin, nik uste, bueno ba normala dela urduritasun hori sentitzea, ez jakitea ea ondo erantzungo dezun bere beharrei, eta aldi berean ere beste 28 ikasleak kudeatzea. Baina bueno, nik uste det esperientziatik eta ondo kudeatzen, beste irakasleekin hitz egiten ere aurreratzen joaten zerala.

Nik aurten daukat, 4 ikasle desgaitasunen bat daukatenak, eta daukat justo adin ezberdinetakoak 4ak. Ikasturte hasieratik ona ere nabaritzen det asko hobetu detela, beraiekin ere harremana egiten zoazen bitartean ere, ba bueno gehiago ausartzen zera ere gauzak komunikatzen, galdetzen, beraiek ere gehiago ausartzen dira eskatzen, adierazten zertan sentitzen diren erosoago, zertan ez, probatzen zoaz eta asmatzen. Asko aldatzen da ere segun ze gelan dauden, gela horrek ze harreman daukan ikasle horrekin, integratua dagoen edo ez, nolakoak diren...

Bueno bai aldatu da, eta esango nuke, batez ere esperientziagatik, eta ba bueno gero ere informazioa bilatzen dezulako, nik askotan Interneten gauza pila bat begiratzen ditut, galdetzen det, nire ahizpak ere kirol egokituko federazioan lan egiten du eta asko galdetzen diot... eta pixkanaka batez ere esperientziatik eta probatzen.

**O: Bale, irakaslearen paperak zure ustez nolako garrantzia du gorputz hezkuntzan? Zenbat eragin dezake eta nola ikasgai eta ikasleengan?**

N: Bai, nire ustez dauka kriston garrantzia irakaslearen rola gorputz hezkuntzan, eta eragin dezake nire ustez erabat. Azkenean gorputz hezkuntza da ikasgai bat asko bideratu behar dena, ez daukagu liburu bat, ez da egin ariketa hau eta egiten dute, azkenean zu egon behar gera dinamizatzaile bezala. Egia da ariketa batzuk oso modu autonomoan ematen dituztela aurrera eta beste batzuetan irakaslearen behar gehiago daukatela, baina orokorrean iruditzen zait dala irakasgai bat irakasleak oso paper garrantzitsua daukala, batez ere, gauza oso txikitzen,

ba detaileak asko zaindu behar direla, mezuak nola ematen diren, ikasleak motibatzen saiatu behar dela... Beti daude ikasle batzuk ez direnak ausartzen parte hartzera, aztertu behar da horiek ze barrera daukaten, eta zergatik ez diren ausartzen. Azaleratzen dira jokabide pila bat, horiek ere landu egin behar dira eta kudeatu, askotan saioan bertan eta momentuan bertan. Iruditzen zait oso oso garrantzitsua dela ze giro dagoen, jokabide desegoki asko azaleratzen dira eta ez badituzu momentuan moztu asko deskontrolatzen da egoera, orduan, iruditzen zait irakaslean presentziak dakala oso garrantzia handia.

Gero ere, bueno generoan ikuspegitik ere, neri iruditzen zait askotan bueno, emakumezko eta gizonezkoen artean ematen diren espazioaren erabilerak ere asko aztertu behar dituela irakasleak, oso ezberdinak direlako. Beraien arteko lehia egoera sartzen denean ere, batzuk artzen duten rola eta besteek hartzen dutena ere asko aztertu behar dela iruditzen zait. Gero, irakasleak aukeratu behar dituela ariketa edo dinamika aproposak ikasle guztiei aukerak eman ahal izateko, eta horrek bai eskatzen du irakaslean presentzia handi-handi bat.

**O: Ya... Bueno hau ere esan dezun, nolako eragina daukan irakaslearen jarrerak desgaitasunak dituzten pertsonetikiko gorputz hezkuntzan? Espezifikoki edo.**

N: Bai, aber batez ere, nik uste, ikasle hori taldearen parte sentitzeko momentu horretan, ikasle horrei aukerak eskaintzeko momentuan... Egia da irakasle bezala, askotan ditugun egoerak desgaitasunak dituzten ikasleekin oso zailak direla, nik daukat lehen esan dizut, ikasle bat gurgildun aulkian dagoena ezin dituela ezta besoak ezta oinak mugitu, eta neretzako hori da super zaila. Dazkat unitate didaktiko asko, non berez prestatuta ditugun ariketetan, igual ezin du ezta ariketa batean parte hartu modu autonomo batean. Orduan, neretzako bai suposatzen duela, orain gutxiago, bai ikasturte hasieran estres maila altu bat suposatzen zidan, sentitzen nuelako bere beharrei ezin niola erantzun. Baina, iruditzen zait, azkenean ba bueno, askotan irakasleek ere aitortu edo onartu behar degula, ba nik oraintxe bertan daukaten jakintza edo esperientziarekin oneraino iristen naizela.

Ikaslearekin eta gurasoekin hitz egin behar da ere, nola ikusten dezue zuen semea edo alaba, zer egin dezakegu... Programazioa askotan igual aldatu behar dela guztiz edo ez, edo berari beste ariketa ezberdin batzuk proposatu behar zaizkiola, baino hori ez zait gehiegi gustatzen. Baina bai iruditzen zait daukala kriston eragina, batez ere, ikasle horiei ba hori taldearen parte ikustarazteko ere ikasle horiek taldearen parte sentitzeko dituzten beharrei erantzuteko, eta bai eragin handia dauka azkenean.

**O: Eta beste ikasleei dagokionez, beraien harremana nolakoa da desgaitasunak dituzten pertsonekin? Osea, taldean barne hartzen dute edo?**

N: Ba joe, nik dauzkaten kasuetan justo, oso ona. Egia esan, dauzkaten ikasle hauekin daude oso-oso integratua gelan, ikaskideek asko-asko laguntzen dituzte. Orduan, alde horretatik ni nago super pozik, ze ikasleen aldetik laguntza hori sentitzen det, kontziente naiz beste egoera bat izango balitz oraindik zailagoa izango litzatekeela. Orduan, kasu honetan oso ondo, ba hori beti hartzen dute kontuan, nola lagundu, eskatzen detenean laguntzailereren bat berekin ariketa bat egiteko moldatuta, non beste ikasle batek baldintzatu behar duen bere parte hartzea laguntzeko, beti dago jendea prest laguntzeko, azalpenekin ere laguntzen diete... Orduan, alde horretatik, nik dauzkaten kasuetan justo, oso-oso ondo.

**O: Bale, bueno eta zure ustez, gorputz hezkuntzako irakasle batek zer ezaugarri izan behar ditu edo?**

N: Aber ba... Iruditzen zait, izan behar duela inprobisatzeko gaitasun oso handia, ze askotan ba bueno, materiala, gatazkak, gorputz hezkuntzako beste irakasleekin kointziditzea, ordutegia, eta mila bariabile daudela, askotan ni adibidez, naiz super kuadrikulada, ni nire saioarekin joaten naiz eta asko kostatze zait esatea, bale gaur ez det hau egingo azkenean. Iruditzen zait kriston inprobisatzeko gaitasuna izan behar dezula, ze askotan gainera, planteatzen degu dinamika bat super ondo funtzionatuko duela eta gero kriston desastrea da, orduan, eduki behar dezu momentuan gaitasuna aldaerak sartzeko edo ariketa deskartatu eta beste bat planteatzeko. Gero hori, esan bezala, gatazkak sortzen dira, eta horrek eskatzen dute momentuko esku hartze bat, eta momentuan erantzuteko gaitasuna eduki behar dezu.

Gero iruditzen zait ere, eduki behar duela oso prespektiba zabala, azkenean gorputz hezkuntza da ikasgai bat ikasleak oso espuesto daudenak, daude ikasle perfil oso ezberdinak, batzuk direnak makina bat baina igual elkarbizitza aldetik flojitogo doazenak, bestiek elkarbizitza aldetik ondo baino ez direnak ausartzen parte hartzera. Lehen esan bezala, genero artean ere ezberdintasun handiak daude, orduan iruditzen zait irakasleak detaile asko kontuan izan behar dituela, eta bai izan behar duela prespektiba oso zabala ikasle guztien behar horiei egokitzeko, eta saiatzeko gorputz hezkuntza atsegina izaten guztiontzako, transmititzeko ere ikasleei ze onura dauzkan gorputz hezkuntzak bizi estilo aktibo bat eramateko, eta hori ere transmititzeko gai zain behar duela. Eta bueno, beste mila ere esango nituzke, jajajaja.

**O: Jajajaja, bale, garrantzitsua ikusten duzu gorputz hezkuntzako irakasleak ikasleen gurasoekin komunikatzea?**

N: Bai, bueno aber... Guk egia da ez garela zuzenean komunikatzen gurasoekin gorputz hezkuntzako irakasle moduan. Zerbait oso adierazgarria gertatzen bada bai, baiian bestela normalean tutorearen bitartez egiten degu. Guk bai ematen diegula garrantzia asko gorputz

hezkuntzako saioetan ikusten ditugun jarrera edo gauzei, orduan, egiten degu askotan informazio hori tutoreei trasladatu eta tutoreak dira gurasoekin harremana egiten dutenak edo komunikatzen dutenak. Egia da tutoreak askotan etortzen direla guregana informazio eske, ze nola bueno gure ikasgaien taldekatze asko erabiltzen diren, espazioaren erabilera ere gelakoaz oso ezberdina den, ba bai etortzen zaizkigula askotan informazio eske. Batez ere, harremanen inguruan eta galdetzen digute, baina normalean tutoreak dira informazio hori gurasoei komunikatzen dietenak.

**O: Bale, eta zure ustez desgaitasunak dituzten pertsonak lehen esan dezue onuragarria dela gurasoekin komunikatzea ez? Edo nola ikusten dezue hori?**

N: Aber nire ustez, ikasle hauen kasuan, egia da egoera guztiak desberdinak direla e... Baina ikasle hauek hain behar espezifikokoak izaterako orduan, ba iruditzen zait garrantzitsuagoa dela eta igual behar dutela beste ikasleek baino komunikazio jarraiagoa edo estuagoa gurasoekin. Batez ere, ba hori, kasu batzuk igual delikatuak direlako eta bai eskatzen dutelako ere emozionalki beste abordaje bat edo. Adibidez, nik orin daukaten ikasle honekin, gurpildun aulkian dagoena, berak izan duen bilakaera ere emozionalki ez da erreza izan, orduan, bai eduki izan degula gurasoekin ere komunikazio estuagoa bat ikaslearekin gauza batzuk edo egoera batzuk lantzerako orduan, bai nahi genuelako gurasoen iritzia edo ikuspuntua jakin, orduan bai iruditzen zait oso garrantzitsua dela.

**O: Bale, bueno zure esperientzian bideratuta, nolakoa da desgaitasunak dituzten ikasleak gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzea? Zein zailtasun eta aukera daudela uste duzu?**

N: Ee... Aber nolakoa den parte hartzea, ba bueno, segun, kasuaren arabera, lehen esan bezala gelaren arabera, lantzen degunaren arabera... Iruditzen zait, esan dizuten bezala, geroz eta garrantzia gehiago ematen zaiola, eta saiatzen gerala. Ni nire kasuan adibidez, askotan programazioa aldatu behar izaten det eta batzuetan ere ez det asmatzen, eta askotan ere joaten naiz pentxatzen, joe hau igual ez det asmatu edo ezin izan du parte hartu nik espero nuen bezala.

**O: Ya... Eta horrekin lotua, esan dezuna saioaren arabera dela ere, zure ustez zein motako saioetan da inklusioa sustatzea errazagoa desgaitasuna duten pertsonekin?**

N: Esango nuke errazagoa, edo bueno neri errazagoa iruditzen zait, joko jolas kooperatiboak direnean. Egia da lehia sartzen denean, lehiak dakarren lehiakortasun horregatik zailagoa dela orokorrean, ikasleen aldetik ere zailagoa da ba baldintza berezi batzuk kontuan



hartzea eta errespetatzea. Egia da, probatzen degula denetik, adibidez, harrapaketa jolasetan egokitzapen metodologikoak edo araudia egokitzen degu ikasle horrentzako, ba igual harrapatu beharrean 3m-tara iristean ba ya harrapatua dago, edo beste jolas batzuetan material ezberdinak ere erabiltzen ditut ikasle hauekin. Baina, esango nuke, nik uste positiboena dela ere dauzkagunean egoera kooperatiboak, nik uste azkenean talde txikietan lantzen dezunean zerbait, talde izaera hori indartzen dela eta taldeak helburu berdinerantz egin behar duenez, aurrera horretan bai iruditzen zait igual errazagoa dela. Lehia sartzen den momentuan egia da askotan saiatzen zeala desgaitasuna daukan ikaslearekin egokitzapenak edo aldaerak sartzen, ba edozein motakoak: espazialak, materialak, metodologikoak... baina askotan zaila dela parekatzea ere bere aukerak besteekin. Hala ere, egia da normalean ere ikasleek errespetatzen dutela eta kontziente direla dagoen egoeraz eta laguntzen dutela, baina nik uste kooperatiboetan daukaten izaera horregatik errazagoa izan daitekeela.

**O: Bale, bueno ya bukatzeko, hobekuntzak. Zure ustez kalitatezko gorputz hezkuntza inklusiboa lortzeko zer hobetu beharko litzateke?**

N: Nire ustez, alde batetik, igual formakuntza zabalagoa eduki beharko genukeela irakasleek, nahiz eta badaukagun edo nik gutxienez izan deten. Ze gehio... esango nuke ere gelako ratioak gutxitu beharko litzatekeela, azkenean ez bakarrik desgaitasunak dituzten ikasleentzat, baizik eta beste ikasleek ere daukate bere beharrak, eta nire sententzia gutxienez da ez geala iristen ikasle guztiengana. Ze 28 ikasleko geletan oso-oso zaila da ikasle guztien beharrak kontuan hartzea, programazio bat aurrera jarraitzea, ebaluatzea eta gainera dena aldi berean. Orduan, alde batetik hori formakuntza eta ratioak txikitzea. Eta igual, ba daukagun programazioak edo jokoak igual birmoldatzea edo beste buelta bat ematea.

**O: Bale, bueno aldatetak ere esan dituzu, beraz, bukatu dugu. Zerbait geratu zaizu esan gabe? Edo zerbait nahi dezu gehitu?**

N: Ba bueno, pixka bat esan detena, iruditzen zait dala gai bat garrantzi handia daukana eta irakasle askok igual beldurragatik edo urruti gelditzen zaigulako askotan ez gerala ausartzen gehiegi esku hartzea, eta iruditzen zait horrekin daukagun barrera hori puskatu beharko genukeela. Azkenean, ikasle hauengana iristeko edo beraien behar horiek erantzuteko, eta beraiek ere izan dezaten gorputz hezkuntzarekin ahalik eta esperientzia positiboena edo egokiena.

**O: Bale, ba oso ondo jajaja, eskerrik asko.**

N: Zuri.

### 10.3.2. ILARGIREN ELKARRIZKETA

**O: Kaixo!**

I: Kaixo Olaia!

**O: Bueno** elkarrizketarekin hasi aurretik, beharrezkoa da zuk grabazio baimena onartzea. Grabazio hau GRAL-erako da eta elkarrizketako informazio guztia soilik ikerketarako erabiliko da. Grabazioa konfidentziala izango da eta erantzun guztiak anonimizatuko dira; beraz, zure izengoitia aukeratu dezakezu.

Lan honen helburu nagusia, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko esperientziak aztertzea da. Horretarako, ikertu nahi izan da, gaur egun nolakoa den gorputz hezkuntza desgaitasunak dituzten pertsonekin eta arlo horretan zer alda litekeen gorputz hezkuntza inklusibo eta arrakastatsu bat bermatzeko.

**Orduan, galderekin hasi aurretik grabazio baimena onartu behar duzu; baimena ematen didazu elkarrizketa grabatzeko?**

I: Bai.

**O: Bale, bueno** ba orduan hasiko gera. Lehenengo zure datu pertsonalak, zure izen-abizenak:

I: Ilargi Artola.

**O: Adina:**

I: 55 urte.

**O: Generoa:**

I: Emakumezkoa.

**O: Bizilekua:**

I: Donostian.

**O: Formazioa:**

I: Bueno ba ibef egin nuen garai batean.

**O: Bale, gaur egun non egiten duzu lan?**

I: Antiguo Luberri BHI.

**O: Noiztik eta zertan egin duzu lan jarduera fisiko eta kirolarekin lotuta?**

I: Ba noiztik... pues hori hasi nintzanetik, duela gutxi gora behera, 30 bat urte. Kirolari izan naiz betidanik eta jarraitzen det ahalik eta gauza gehien egiten kirolaren inguruan.

**O: Bale, eta zein harreman duzu kirolarekin?**

I: Bueno ba gorputz hezkuntzako irakaslea izateaz gain, kirola egiten det nire egunerokoan, eta gero, bueno ba ibiltzen naiz froga desberdinak ikusten eta alaben jarraipena egiten det, eta orduan ba froga desberdinak ikusten ditut ere.

**O: Bale, eta hezkuntzarekin daukazu harremana? Lanean bakarrik?**

I: Bai, lanean bakarrik, gorputz hezkuntzako irakasle bezela. Gero, bizikidetzan dexente sartua nago baino bueno...

**O: Eta zenbat urte daramatzazu gorputz hezkuntzako irakasle bezala?**

I: Ba hori, 30 urte inguru.

**O: Gero, desgaitasunak dituzten pertsonekin zein da duzun harreman?**

I: Bueno ba hasieran ordezkapen batzuk egin nituen eta CIG geletan edo AP (Aula de Aprendizaje) geletako ikasleak edukitzen nituen, integratzen zizkidaten nire ohiko taldeetan. Gero, beste ordezkapen batzuetan igual ez zegoen inor, baina gaur egun bai, gaur egun Luberrin dago CIG gela bat eta hor gorputz hezkuntza ematen det.

**O: Eta horren lehen esperientzia noiz izan zen?**

I: Ba duela dexente esango nuke, 25 urte. Ze nahiko hasi berritan syndrome de down zuen pertsonen bat beti integratzen ziguten.

**O: Bale, zein izan da zure formazioa? Bueno, lehen esan dezunaz aparte, zure formakuntzan desgaitasunei buruz hitz egin dizute? Eta irakatsi dizute?**

I: Bale ba... ni naiz harrotasunakin esango det ibefeko lehenengo promoziokoa, eta garai haietan ez zegoen inklusioari buruzko ezer ez. Orduan, formakuntza egia esan ez deteala jaso, egia da gero aukera izan dudala baina ez det formakuntzarik jaso horren inguruan.

**O: Nolako jarduerak egiten dituzu gorputz hezkuntzan? Eta nola antolatzen dituzu, ikasturtea, saioak, ikasleen interesak...?**

I: Bueno ba denetarik dago. Nik normalean ematen det bigarren zikloan. Orduan, bigarren zikloan desgaitasuna daukatenak ez dizkigute integratzen geletan, aparte bezela

doalako, CIG gela horietan daude. Orduan, bestela niretzako bueno ikasle bakoitza desberdina da eta antolatzen dudana saioa da denek egiteko moduko saio bat, eta ohartzen baldin banaiz baten batek ezin duela jarraitu pues bat-batean egokitzapenak sortzen ditut, baina normalean aldeaz aurretikan egokitzapenekin egiten ditut saio guztiak.

**O: Eta gero ikasturtea nola banatzen dezu, unitate didaktikoa edo nola?**

I: Bai, unitate didaktikoa egiten det. Bueno orain ya ikas-egoerak sartzen hasi gera eta ebaluazio bakoitzean gutxienez ikas-egoera bat sartzen det. Baina bueno, oraindik unitate didaktikoa da nik dominatzen dudana gauza.

**O: Bale, eta gero, unitate didaktiko berdina edo jarraipen berdina edukitzen dezu klase arruntekin eta CIG klaseekin?**

I: Ez erabat, zeha adibidez, gaitasun fisikoen unitate didaktikoan, CIG gela horretan oso gauza desberdinak egiten ditut, gehiago igual jolasak egiten ditut. Orduan, karo bigarren hezkuntzan eta laugarren maila batean edo batxilergo batean nola edo ze eduki dauzkadan eta CIG gela honetan oso desberdina da. Orduan, pixka bat aparte, egia da, lotura bat egiten detela, ba agian, bueno orain demagun batxilergokoekin taldekako kirolak ari naiz ematen, ba orduan saiatzen naiz CIG-ekoekin ere taldekako kirolak edo jolasak edo pixka bat bai antzekoak izatea. Bai ildo bat ematen dudala, baina gero ez dauka zer ikusirik.

**O: Ya... Bale, eta zure kasuan nolako ebaluazio tresnak erabiltzen dituzu? Zeri ematen diozu balioa orokorrean?**

I: Eee... CIG geletan galdetzen baldin badidazu.

**O: Bai.**

I: Orduan, ebaluazioa izaten da, zein autonomia daukaten, zein hobekuntza lortzen dituzten, talde lanean nola aritzen diren... Segun eta taldearen berezitasunak zeintzuk diren, modu batera edo bestera jokatzen det. Egia da, garrantzi handia ematen diodala talde senari, eta ez da oso errexa, zeha bakoitzaren berezitasunak hain desberdinak izanda, egokitzapen handiak egin behar dituzu, eta orduan, bakoitzak bere maila hobetze aldera agian oso ariketa analitikoak egin beharko genituzke, baina eske nik hori ez det egiten horrela. Nik egiten det gehiago ba talde sena, jolasak eta pixka bat egokitu zer egin dezaketen denak elkarrekin. Gero, oreka eta horrelako gaitasunak ere, baina egia da balio gehiago ematen diodala taldeari, eta orduan, ebaluazioa ere pixka bat horren inguruan doa, ea errespetatzen diren beraien artean, ea laguntzen diren elkarri eta horrelako gauzak.

**O: Eta gero, beste klase arrunten ebaluazioa nola egiten dezu?**

I: Beste taldeei, bueno segun eta ze unitate den desberdina da. Alde batetik, ze jarrera dauzkaten, errespetuzko jarrerak, elkarri laguntzen diren edo ez... Lehen, klaseak ematen hasi nintzenean, ba bueno klaseak zuzenegiak ziren, baina orain asko uzten diet, pazientzia behar da hortarako baina bueno, orain asko uzten diet beraiei diseinatzea zirkuitua, bakoitzaren rola aukeratzeko... Digamos que, garai bateko maila fisikoari ere garrantzia ematen diot, badakit ez dela oso aproposa edo orain ez dagoela oso modan, baina iruditzen zait bakoitza bere maila fisikoa zein den konturatzen denean, nola hobetu dezakeen eta hobetzeko tresnak ematen baldin badizkiozu, eta gero ikusten baldin badute hobetzen dutela, horiek engantxatuko dira gero jarduera fisikoan.

**O: Bale.**

I: Ez dakit oso ondo erantzun dudan zuk esan didazuna baino...

**O: Bai bai lasai. Zure ustez, desgaitasunak dituzten pertsonentzat onuragarria da gorputz hezkuntza? Zertan nabaritzen da onura hori?**

I: Bai, onura dudarik gabe. Bueno eske neretzako gorputz hezkuntzaren onurak denentzako dira, desgaitasunen bat dutenentzat eta desgaitasunik ez dutenentzat, nik hor ez nuke banaketarik egingo. Ona da erlazio maila aldetik, beste zerbait daukalako, mugimenduak zure bizitzan, trebezia batzuk edukitzea, osasunaren inguruan... mila alderditan. Bueno neretzako DBHn dagoen gairik garrantzitsuena gurea da, ez daukat zalantzarik.

**O: Eta zuk ikusten dezu gure irakasgaia edo pixka bat bigarren maila batean uzten dutela?**

I: Bueno ba oraindik ere pixkatxo bat bai, mila adibide daude: ebaluazio bileretan norbaiti nota bat igotzea behar baldin bazaio beti eskatzen dizute zuri igotzeko eta nik esaten det joe eta matematikan zehar ez diozu ba zuk igotzen, orduan, ematen du ba gu generala "el comodin" eta ez.

**O: Ya, bueno, bale. Aurrekoarekin jarraituz, gorputz hezkuntza inklusiboko gelak izan dituzu? Osea orain ez baina izan dituzun aurreko kasuetan, klase arrunt batean sartuta dagoenean behar bereziak dituen ikaslea, non ikasle denak baldintza berdinetan aritzen diren.**

I: Bai, eta horren inguruan, nik uste det edo ez zait oso ondo iruditzen aparteko gelak egotea. Eske neretzako nik ez det horrela ulertzen, nik ulertzen det pertsona horiek egon

beharko liratekeela besteekin integratuak, eske ez det ulertzen egotea gelatxo bat aparte eta nik ematea beraiei aparte gorputz hezkuntza, iruditzen zait ez dela egokia. Nik pentsatzen nuen pertsona horiek ohiko geletan integratuko zizkidatela.

Eta pixka bat ba azkenean gizartea horrela da ez? Eee... pixka bat jakin behar degu denak elkarrekin bizitzen, ba desgaitasunen bat daukatenak eta ez dauzkagunak, edo nik adibidez, ni ez naiz moldatzen ez dakit nik zertan eta bueno ba ez dakit elkarri lagunduz, eta ez aparteko geletan. Aniztasunean dago aberasgarritasuna, eta ohiko geletan ikustea desgaitasunen bat duten pertsonak eta nola ibiltzen diren, gainera lagundu ahal izatea beraiei, hori dena neretzako askoz ere aberasgarriagoa da mundu guztiarentzat.

**O: Ya bai... Orain justu hori galdetu behar nizun, osea kasu horietan zure ustez gorputz hezkuntza onuragarria da beste ikasleentzat?**

I: Dudarik gabe. Egia da adibidez, orain aste santu aurreko ostiralean egiten da jai bat, eta hor CIG gelakoak pixka bat aparte egoten dira, baina irakasleok saiatzen gera integratzen irrintzi lehiaketan. Justu egon zen bat irrintzi ona egin zuena, eta orduan, nahi degu jendea konturatzea ikasle horiek dauzkagula eta parte hartzen dutela ohiko gure bizitzan, eta neretzako eske ez dakit nolaz ez ditugun ekintza gehio egiten.

**O: Osea zuk uste dezuz azkenean bi klasetan banatuta kalte gehiago daudela? Zeba gero denak elkartzen direnean beste ikasleen jarrera nolakoa da beraiengana?**

I: Ba beti... ez lotxa, baino bueno oso zaila da. Egia da zaila dela gerturatzea.

**O: Ya... ohitura falta igual edo?**

I: Bai, ohitura falta, eta bueno igual sistema horrela dagoelako eta orduan ya ematen du ba ez dakit. Begira, kontatuko dizut anekdota bat, aurten CIG gelan zeuden bi ikasle eta joaten dira azkeneko urtetan praktikak egitera Gautenara edo dena delakora. Orduan, horietako bat nahiko bakarrik gelditu da, zeba intelektualki beste maila batean dago CIG gelako kideekin alderatuta, hau da, gertuago egon daiteke ohiko gela batetik CIG gelako beste ikasleengandik baino. Eta berak bilatzen du besteekin erlazioak edukitzea, baina pena bat da, ze askotan patioan bakar bakarrik geratzen da. Nik saiakerak egin ditut integratzeko gizarteko gaiarekin, DBHko 3.mailako tutoretza bat neukan, eta ikasle honi esan nion etorri behar zela gure gelara, eta horren ondorioz, gizarte ematen du nire tutoretzako gelan. Baino eske neretzako mutil hori egon beharko luke gela horretan finkatuta, gai desberdinak ematen eta gizartekoak egokitzen dio berari eman behar duena, matematikakoak egokitu beharko lioke, gorputz hezkuntzakoak egokitu beharko nioke nik... Eta horrela, antolatu dena denentzako.

**O: Ya... azkenean inklusioa hori da.**

I: Bai hori da.

**O: Bale, eta desgaitasunen bat duten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan oraindik zailtasun asko aurkitzen direla uste duzu? Zeintzuk? Adibidez, materialari dagokionez, sarbideak eta horrelakoak?**

I: Bueno, nik uste hobekuntza bai eman dela, sarbideak eta dena nahiko egokituak daude. Adibidez, nik ikasle itsu bat eduki nuen eta egia da baldintzatzen zidala pila bat saioa. Egitea saio bat beretzako ere aproposa asko kostatzen zitzaidan, pila bat. Eta bueno, materialari dagokionez, txintzarrien baloiak eta... Egia da, badaudela material batzuk, baina gero ez dute zuk espero dezun bezain ondo funtzionatzen, ze txintzarrien baloia adibidez, baloia gelditzen zenean ez zegoen txintzarria ya eta ez zuen entzuten, gainera zaratarekin ere ez zen entzuten. Egia da saiakera bat egin dela, baino bueno badago aldatzeko zerbait gehiago oraindikan, bide bat egiteko.

**O: Bale, bueno zure formazioaren inguruan, lehen aipatutako zure hasierako formazioaren ondoren, etengabeko prestakuntzarekin jarraitu duzu?**

I: Egia esan nahiko gutxi egin ditut eta egindakoak nahiko behartuak, eta behartutako formakuntzak ez dute ezertarako balio. Hala ere, hezkuntzari kritika egiteaz gain nik nire buruari ere egiten diot. Zeba agian eduki izan ditut aukerak formakuntzak egiteko, baina nik nire denbora libreka asko estimatzen det, eta bueno igual kointziditu zidan garai bat alabekin eta pixka bat nahiko estresantea izan zena niretzat, eta orduan ba gerora egia da ez ditudala egin.

**O: Ya, bai bai. Bueno eta zuk aurretik eduki dezun formazioan zerbait faltan bota duzu? Zer eskatuko zenieke formatzaileei?**

I: Bai bueno egia da formakuntzaren bat egin detela, itsuena, Berritzegunean egon zen formakuntza bat egin nuen. Baina bueno egia da zuk formakuntza horiek egiten dituzu eta ematen du nahi dezula "barita magica" bat ze trukok ez duen faiatuko zure ikasle horrekin, eta pixka bat nola funtzionatu dezakezun ikusi behar da. Baina azkenean da niretzako irakaslearen sentsibilitatea, gauzak probatu, eta ez dakit... pixka bat joan ikusten eta zalantzak daukazunean bueno ba federazio bat dago eta berengana jo daiteke. Eta gero, egia da, nola oso pertsona desberdinak dauden, esan nahi det, nik CIG gela honetan, sindrome down duten pertsonak daukat, itsua ere eduki det... eta orduan oso zaila da. Nire ustez, garrantzitsua da pixka bat pertsona ezagutzea, ezagutu ondoren denbora bat dedikatu, eta orduan, pixka bat antolatu zure saioak ahalik eta ondoen pasatzeko beraiek.

**O: Bale bai, eta gero, bueno lehen esan dezu zure hastapenean ez dezula desgaitasuna duten pertsonen inguruko formakuntzarik eduki ezta?**

I: Ez.

**O: Bale, eta orduan, zuk zure hastapenean eta gaur egun desgaitasunak dituzten pertsonekin gorputz hezkuntza egiteari buruz daukazu jakintza hori aldatu da? Bai izatekotan, zer dela eta eman da aldaketa hori? Eta zure jokabidea eta errealitatearen azterketa eta kudeaketa?**

I: Nik ibef bukatu nuenean ez nuke imajinatuko desgaitasunak dituzten ikasleekin lan egingo nuenik. Egia da formakuntza 10etik 4 edo 5 bat dela, eta ikasten dezu pila bat zure kideekin, beste irakasleekin, zure esperientzia propiotik, ensaio-error eginez... Beraz, egoera hauek tokatzean espabilatu egiten dezu, ni gogoratzen naiz itsua izan nuenean klasean, esan zidatela hurrengo ikasturtean itsu bat dezu gelan Itziar. Eta ni oso urduri jarri nintzen, udara horretan joan nintzen ONCEra, eta piska bat agobiatua egon nintzen udara osoa ea zer egin nezakeen pentsatzen. Orduan, nire ustez piska bat pertsonen esku dago.

**O: Ya... azkenean desgaitasunak dituzten pertsonetik ikasi dezun dena zuregatik izan da eta praktikan jarri dezulako ezta?**

I: Bai bueno, esan nahi det ni nire kabuz informatu nintzelako, ONCEra joanez, Berritzeguneak izan zituen bi ikastaroetara ere joan nintzen, baina oso azalekoak eta eduki teorikoak izan ziren. Gauza teoriko gehienak igual aurreikusten dituzula, ba adibidez, zuk daukazu desgaitasuna duen pertsona bat zure gelan eta saio horretan denontzako gauzak egin behar dituzu. Egia da igual hasten zerala nahiko banakako gauzak egiten, baina gero konturatzen zera ezetz, piska bat denok ikasi behar degula egoera horietatik eta oso aberasgarria dela desgaitasunak ez dituzten pertsonentzat.

**O: Bale, zure ustez, irakaslearen paperak nolako garrantzia du gorputz hezkuntzan? Zenbat eragin dezake eta nola ikasgai?**

I: Niretzako papera oso garrantzitsua da. Osea, nire kide batek esaten zuen moduan, lehenengo ikasleak irabazi behar dituzu eta giro on bat sortu zure gelan, bai zuk ikasleei emanda eta beraiek beraien artean giro on bat izatea, eta hori daukazunean, korrika gustatzen ez zaionari egingo du, osea gero ya egiten dute. Horregatik, irakaslearen papera niretzako da oso-osoa garrantzitsua.



**O: Bale, eta nolako eragina dauka irakaslearen paper horrek desgaitasunak dituzten pertsonetikiko gorputz hezkuntzan? Eta zertan nabaritzen da hori?**

I: Bueno ba niretzako ere paper handia da. Adibidez, Luberrin, lehen garai batean CIG gelan klasea ematen zuen ikaslea ordezkoa izaten zen, ordezkapenetan ateratzen zen eta ordezkoari uzten zitzaion, eta zergatik, ze bertako finkoek ez zuten nahi. Baina nire ustez pertsona hauek erreferente bat eduki behar dute, eduki behar dute pertsona bat beraiekin lan egiteko prest dagoena, goxotasunetik eta erlazio bat eraikiz, eta niretzako horrek eske derrigorrezkoa izan beharko luke. Eta ematen du utzi behar diozula komila artean “zaborra” ordezkoari, eta ez, hau gutako batek hartu behar du, finko batek. Egia da, nik daramatzat ikasle berdinekin igual 4 urte, orduan ya ezagutzen ditut, beraien progresioa edo urte batetik bestera atzera egin duten... eta nik uste det pertsona zehatz bat izatea oso garrantzitsua eta beharrezkoa dela.

**O: Bale orain, zuk gorputz hezkuntzako irakasle bezala garrantzitsua ikusten duzu gorputz hezkuntzako irakasleak ikasleen gurasoekin komunikatzea? Eta desgaitasunak dituzten ikasleen gurasoekin?**

I: Bai bai, besteekin bezala. Nik ohiko edo ez dakit nola esan, klase arrunten ikasleen gurasoekin hartu emana daukadan moduan, ba desgaitasunak dituzten pertsonen gurasoekin berdin, ez gehiago ez gutxiago. Agian zalantzak baldin badituzu, egia da, adibidez, nik gaur egun daukat pertsona bat hartu eman handia daukadana bere fisioarekin, orduan, ba igual piska bat kontutan hartzeko ze gauzak ezin dituen egin eta jarraipen hori edukitzeko. Gurasoekin eduki behar badet edukitzen det ere, baina ez gehiago eta ez gutxiago, besteekin bezala.

**O: Bale, zure esperientzian bideratuta, oraingo gela espezifiko horietan ez, baizik eta inklusio hori bermatzen den geletan, nolakoa da desgaitasunak dituzten ikasleak gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzea?**

I: Ba dena da segun eta irakasleak nola antolatzen duen bere saioa. Segun eta nola antolatzen dezun, denak daukate zerbait aportatzeko. Nik adibidez, gaur egun, desgaitasunik ez duen ikasle bat daukat baloi batekin erabat blokeatzen dena, orduan, ikasi det berarekin hitz egin behar detela, bera ulertu, eta nik hasieran ulertzen nuena kontra egiteko jarrera bat izango balitz bezala, ba ulertu det berak duen blokeo bat dela. Beraz, horren aurrean, ariketak egokitzen dizkiot, berarekin hitz egiten, eta baloiarekin zerbait baldin badago ba zu niregana etorri eta beste gauza batzuk antolatuko ditugu, zu izango zera entrenatzailea edo... Eta berdina izango zen desgaitasunen bat edukiko zuen pertsona batekin, osea pertsona horrei egokitzapenak eginez.

Oso garrantzitsua da ze ikasle mota daukazu jakitea eta zure saioa denentzako izatea, egokitzapenak jarri behar baldin badituzu alde aurretik pentsatu behar dira, gero egia da batzuetan sortzen direla arazoak, baina normalean hasieratik dena antolatuta askoz hobeto ateratzen da saioa.

**O: Zure ustez, zein motako saioetan da inklusioa sustatzea errazagoa? Osea talde kiroletan, kooperaziozkoetan, indibidualetan... ?**

I: Ombre ba kooperazioa dutenetan, zeba hor esleitu ditzazkezu funtzio desberdinak eta erreza da. Adibidez, taldekako ohiko kiroletan, demagun futbol partidu batean, bueno nik ez det futbola egiten, baina kasu horietan zailagoa da. Baina hor badaude egokitu ditugun kirol batzuk, ba adibidez, ostiko beisbola, CIG gelan oso ondo ateratzen da eta beti nahi dute egin, beraz, moldatutako jolasetan edo kiroletan askoz ere hobeto, kirol tradizional hauetan ez, baina bueno egia da guk gutxi egiten ditugula.

**O: Bale, eta ya bukatzeko, zure ustez hobekuntzak. Osea kalitatezko gorputz hezkuntza inklusiboa lortzeko zer hobetu beharko litzateke?**

I: Bueno ba zaila da, baina niretzako hobetu beharko litzakeen lehenengo gauza da irakaslearen ikuspegia. Osea, ez dakit, pentsatu zuk ze ikasle mota daukazu, denak direla garrantzitsuak eta denei eragin behar diezula, hori lehenengo gauza. Bigarrena, nik uste det, borrokatu beharko genukeela desgaitasunak dituzten ikasleak gela arruntetan txertatzen, eta ez aparte edukitzen. Eske nik orain adibidez, hirugarren hiru hilekoan abiadura landuko det, eta badaude abiadura jolasak azkarragoak edo motelagoak direnentzat, eta denentzako antolatu behar dezu saioa, desgaitasunak dituztenak ere saio horretan egongo lirateke. Nik uste det piska bat hortikan bideratu beharko genukeela, eta hor bai dagoela oraindik dexente egiteko.

**O: Oso ondo, eta bueno ya bukatzeko, zerbait geratu zaizu esan gabe? Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

I: Ee... ba ez dakit. Egia da ni zurekin elkarrizketatu ondoren, igual autokritika moduko zerbait egin beharko nukeela, igual formakuntzaren bat edo.

**O: Jajaja**

I: Jajajaja, baino egia da dena dela norberaren ikusteko modua, eta gero egia da guk lan egiten degula hezitzaileekin eta nik asko galdetzen diet beraiei. Baina gero ez dizu inorrek erantzuna ematen, orduan da piska bat ensaio-error, honek funtzionatu du honek ez, honekin oso gustora ikusi ditut ba hartu eta gehiagotan egin... Ze azkenean da eskaintzea momentu bat

non taldean gustura dauden, mugitzen ari diren, eta bueno hobekuntza txikiak motrizitate aldetik eskaini ahal baldin badizkiogu ba are eta hobeto, baino bueno hori nik bigarren plano batean uzten det normalean.

**O: Bale, ba oso ondo. Eskerrik asko.**

I: Zuri.

### 10.3.3. GORKAREN ELKARRIZKETA

**O: Kaixo!**

G: Kaixo!

**O: Elkarrizketarekin hasi aurretik, beharrezkoa da zuk grabazio baimena onartzea. Grabazio hau GRAL-erako da eta elkarrizketako informazio guztia soilik ikerketarako erabiliko da. Grabazioa konfidentziala izango da eta erantzun guztiak anonimizatuko dira; beraz, zure izengoitia aukeratu dezakezu.**

Lan honen helburu nagusia, desgaitasunak dituzten pertsonen gorputz hezkuntzako irakasleek dituzten esperientziak aztertzea eta gorputz hezkuntza inklusiboaren inguruko esperientziak aztertzea da. Horretarako, ikertu nahi izan da, gaur egun nolakoa den gorputz hezkuntza desgaitasunak dituzten pertsonekin eta arlo horretan zer alda litekeen gorputz hezkuntza inklusibo eta arrakastatsu bat bermatzeko.

**Orduan, galderekin hasi aurretik grabazio baimena onartu behar duzu; baimena ematen didazu elkarrizketa grabatzeko?**

G: Bai.

**O: Bale, ba hasi egingo gera. Lehenengo zure datu pertsonalekin hasiko gara, zure izen-abizenak:**

G: Gorka Urrutikoetxea.

**O: Adina:**

G: 35 urte.

**O: Generoa:**

G: Gizonezkoa.

**O: Bizilekua:**

G: Astigarraga.

**O: Formazioa:**

G: Magisteritza daukat eta Ibef-eko lizentziatura.

**O: Bale, gaur egun non egiten duzu lan?**

G: Arantzazuko Amako DBHan.

**O: Noiztik eta zertan egin duzu lan jarduera fisiko eta kirolarekin lotuta?**

G: Bueno ba enuke jakingo data zehatza esaten, baina karrera bukatu nuenetik, 13 bat urte izango dira. Bueno lehenagotik ere hasi nintzen eskola kirol munduan begirale bezala, gero koordinatzaile bezala, eskoletan kirol klaseak ematen, prestatzaile fisiko bezala ere bai, eta gero irakaskuntza munduan edukiko ditut ba 9 bat urteko esperientzia.

**O: Bale, zein harreman duzu zuk kirolarekin?**

G: Ba bueno kirola bizitza osoan egin izan det, kirol ezberdinak, oraindik ere jarraitzen det egiten, batez ere errugbian aritu naiz, eta hortan urte dexente egin ditut, hogeita lau bat urte. Gero beste kirolak ere egin ditut, aisialdi moduan, osasunari begira ere forman egoteko, eta ondo pasatzeko. Eta bueno, orain beste kirol batzuk egiten ditut baina bueno helburu horrekin, ondo pasatzea eta disfrutatzea.

**O: Bale, eta hezkuntzarekin dakazun harremana?**

G: Lan munduan oraingoz hezkuntzan nago, eta bueno, oraingoz ez daukat beste harremanik, ez nago inplikaturik beste hezkuntzako elkarteren batean edo. Baina bueno eguneroko lana eskolan egiten det.

**O: Bale eta gero, desgaitasunak dituzten pertsonekin ze harreman daukazu? Eta noiz izan zen zure lehenengo esperientzia?**

G: Ba duela 9 bat urte izango zen nire lehen esperientzia, Mungian DBHko institutu batean lan egin nuen, gela egonkor batean 2 ikaslerekin, batek autismoa zuen eta besteak emiplegia zeukan. Ni astean bi egunetan joaten nintzen beraiekin pizsinara, eskolatik horrela bideratzen zuten.

**O: Bale, zein izan da zure formazioa? Eta zure formakuntza horretan desgaitasunei buruz hitz egin dizute?**

G: Ba formakuntza batzuetan eskolan edo talde horien irakasleak izan geranoi bai eman digutela edo orientaziotik aholkuak edo ikasturte hasieran ere piska bat nola bideratu...

Eta gero ba beste heziketa fisikoko irakasleekin, interneten begiratzuz eta baliabide desberdinak begiratzuz. Azkenean behar berezi horietara egin behar diren egokitzapenak eta dituzten behar horiek hobeto aurrera eramateko.

**O: Bale oso ondo, eta zuk aurretik izandako formazioan, osea ibef-eko edo magisteritzako karreran, hitz egin dizute desgaitasunak dituzten pertsonen inguruan edo?**

G: Esango nuke zerbait baietz, baina bueno ez zera geratzen. Nire sentrazioa zen esperientzia bat hartzen genuela, kirol egokitua edo horrelako gauzak egitean, baina oso gaintik geratzen zen, kirola bezala. Baina desgaitasunik ez dituzten pertsonak egokitu behar dute desgaitasunak dituzten pertsonetara, mugak jarritz. Beraz, kontzientziazteko eta bestearen tokian jartzeko ondo dago, baina bueno inklusioari begira ez dakit nahikoa den erremienta hori.

**O: Bale, bueno zuk nolako jarduerak egiten dituzu gorputz hezkuntzako saioetan? Nola antolatzen dituzu, ikasturtea, saioak, ikasleen interesak...?**

G: Bueno guk orain eta nik azken urteetan ere, dominioka lan egiten det eta saiatzen naiz dominio bakoitzeko gai bat planteatzen, 7 gai daude baina nik 6 gai hartzen ditut. Ze 6 jarduera mota ezberdin egin ditzakegun, lehenengo inguruaren arabera egiten det, hemen zer egin dezakegun, eta gero, gai bakoitza nola jorratu ikasle bakoitzarekin planteatzen det, bakoitza noraino iritxi daitekeen, bakoitzaren egokitzapenak edo... Baina hori ya behin gaia gutxi gora behera zehaztuta dagoela.

**O: Bale, eta zure kasuan nolako ebaluazio tresnak erabiltzen dituzu?**

G: Nik errubrika erabiltzen det, daukat errubrika bat urteetan garatzen joan naizena, eta dominioka dioana. Normalean bai egiten detena da nik behaketa egin, eta ikasleek ere beraien autoebaluaketa bat egiten dute hasieran, ondoren, tartean ere norbera eta kideak ebaluatzen joaten dira, ikusteko benetan helburuak edo lortzen ari diren edo ez, eta gero bukaeran, prozesu guzti hori dena batera egiten da, bai irakasleak eta bai ikasleak. Baina hori jarduera konkretu horren arabera izaten da, adibidez, arrauna egin degunean, ebaluatu zaie teknika nola egin duten, eta gero, ea kapazak izan diren talde txikietan arraunketa koordinatua egiteko ritmo berdinean. Azkenean kooperazioko jarduera bat izan delako, eta beraz, horren arabera ebaluatu da.

**O: Bale, zuk asko aldatu duzu proposamena gorputz hezkuntzako klaseetan desgaitasunen bat daukan ikasleren bat izan ala ez?**

G: Ez det asko aldatu, ze hor nire sentrazioa da ez dakigula zenbateraino iritsi daitezkeen. Egokitu det, baina ez globala, pertsona horri bakarrik, osea, ba igual polikiago eginez edo pertsona horri egokituz ebaluaketa. Adibidez, guri eskola hasieran esaten digute ikasle honek behar bereziak dauzka, orduan, guk malguagoak izan behar degu. Orduan, ba nik gaia planteatzen det eta helburu batzuk betetzen ditugu, baino pertsona horrekin ba ebaluaketa beste modu batean egiten det edo ez det ebaluatzen konpetentzietan zehazki, baizik eta, eguneroko lana zer moduz egin duen edo. Guk lehengo urtean autismoa zuen pertsona bat eta atzerapen handi bat zuen pertsonak genitun klasean, eta orientazioa egiterakoan ez zuten lortzen burutzea, beraz, fitxa sinpleenak jartzen saiatzen nintzen eta hori betetzen bazuten ba listo, gutxienez hori lortu zuten.

Pertsona hauekin zailagoa da, ze nik urte bateko epean ez ditut nahikoa ezagutzen jakiteko noraino iritsi daitezkeen edo esateko hau lortu dezake pertsona honek, baina beste ikasleekin bai, askoz errazagoa da. Adibidez, beste ikasleak 5 klaseetan patinatzen ikasi dezakete, baina hauen kasuan ezberdina da, nik behintzat ezberdin ikusten det, ze ez dakit zenbaterainoko urratsak eman ditzazketen.

**O: Bale, bueno zure ustez, desgaitasunak dituzten pertsonentzat onuragarria da gorputz hezkuntza? Zertan nabaritzen da onura hori?**

G: Bai nik uste det baietz, azkenean edukiko duten asignatura gutxitakoa da harreman aldetik askoz libreagoa dena, etengabe azaleratzen dira kideak, aurkariak, rolak, zereginak... Ez dakit, beste espazio oso ezberdin batean daude, askoz libreagoa da, eta nik uste det oso ona dela. Baino beste aldetik, ulertzen det ere kasu batzuetan arazoak sortu daitezkeela beraiantzako, arazoak azaleratzen diren irakasgai bat delako, eta bueno ba igual batzuk sufritzen dute, batez ere, gustatzen ez zaienak horrelako jarduerak ba gaizki pasa dezaketen irakasgai bat da. Baino oso ona dela bai, dudarik gabe.

**O: Bale bale, gorputz hezkuntza inklusiboko geletan, non ikasle denak baldintza berdinetan aritzen diren, onuragarria da beste ikasleentzat? Zeba?**

G: Nik uste det baietz, bueno ba azkenean harreman mota ezberdinak direlako, normalean gero hemendik kanpo ez daukate harreman askorik pertsona hauekin, baina hemen klasean askotan ba elkar laguntzeko edo elkarrekin zerbait egin behar dutelako, komunikazioa egokitzen dute, besteekiko exigentzia ere egokitzen dute, tolerantzia ikasten dute... osea horrelako gauza batzuk oso inportanteak dira. Bueno ba bai nik uste det hor gauza asko ematen direla oso-osoa aberasgarriak direnak, baino egia da kudeatzeko batzuetan ez direla errazak, eta kudeatzeko 24-25 ikasle daudenean klasean batzuk behar bereziak dituztenak eta besteak ez

duinak, ba askotan oso zaila geratzen da pertsona batentzat hori ondo egitea. Baina bai bai, nik eduki dituten esperientziak inklusiboak egin direnean aberasgarriak izan dira denentzat.

**O: Eta desgaitasunen bat duten pertsonak gorputz hezkuntza praktikatzerako orduan oraindik zailtasunekin aurkitzen direla uste duzu?**

G: Ee... bai. Bueno eskola batzuetan ikusten da, kasu honetan ez, hemen ez dago paraleloan dioan gela bat, eskola honetan adibidez, badaude desgaitasunak dituzten ikasleak, baino gela barruan hezitzailearekin, eta bueno ba funtzionamenduan inklusibotasunean laguntzarekin eta oraindik ere igual ikasleen artea laguntzeko gai ez direnez ba hezitzailearekin eta... hori dena nik ondo ikusten det. Baina beste eskola batzuetan bai ba paraleloan daramatzate, saiatzen dira ondo eramaten beraientzako egokienak diren jardueretara, baina igual ez da modua beraiek benetan ba inklusioan egoteko.

**O: Irisgarritasunari dagokionez, zailtasuna nabaria dela uste duzu? Edo instalakuntzetan, materialean... aldaketak ikusi dira?**

G: Orokorrean nahiko egokituta dago Arantzazuko Ama, igogailuak, eskailerak, aldapatxoak... badaude, eta nahiko ondo daude. Adibidez, piktogramak falta dira, eta hori komentatu degun eta egin behar degun zerbait da, egia da orain autismoa duen pertsonarik ez dagoela, baina berdin du momenturen batean etor daiteke eta prest egon behar da. Baina instalakuntzei dagokionez, nik ondo ikusten det.

**O: Bale, orain hasiko gera zure formazioaren inguruan hitz egiten piska bat. Lehen aipatutako zure hasierako formazioaren ondoren, etengabeko prestakuntzarekin jarraitu duzu? Osea formakuntzak edo egin dituzu?**

G: Formazio bezela, osea ikastaroetan edo ez det parte hartu, parte hartu dituten ikastaroak izan dira gai konkretutara bideratutakoak, baina ez inklusibitatea lantzerako, baizik eta gai konkretu horietan. Bale eta gero nik pertsonalki egin detena da, ba aurten daukagu behar bereziak dituen ikasle hau, pues orduan saiatu naiz egiten, nik nola egokituko det pertsona hori egon dadin klasean funtzionatzen behar duen bezala, ba hitz egiten ikaslearen tutorearekin, orientatzailearekin edo nik bilatutako beste baliabideekin.

**O: Bale, zure formazioan zerbait faltan bota duzu? Edo zer eskatuko zenieke formatzaileei?**

G: Bueno askotan behar ditugu pautak oso sinpleak, egia da bilatzen badezu eta asmatzen badezu topatzen dezula, ba autismoa duen pertsona bati ba gomendio hauek, saiatu

ba ez dakit zer, ba rutinak edo... badaude, baina piska bat bilatu behar dezu, eta nik uste det ba hori, pauta orokor batzuk behar bereziak dituen pertsona bakoitzari egokituak ba ondo legokeela. Gurpildun aulkiak adibidez, ba ez bazaizu tokatu inoiz ba seguruenik lehenengo klasean oso berde egongo zarela, baina hasieratik pauta horiek ematen badizkizute ba hobeto, trukillo batzuk bezala, eta gero joango zera zu ikusten zerrek funtzionatzen dizun eta zerrek ez. Baina iruditzen zait hainbeste desgaitasun daudela, eta oso zaila dela, zuk karrera edo ikastaroak egin eta asignaturak aprobaten dituzu, baina bueno oso gauza gutxirekin geratzen zera, normalean ahaztu egiten delako, edo niri behintzat. Baina bueno hori, gomendio batzuk desgaitasun bakoitzera bideratuak edo daudenak, ba nik eskertuko nituzke.

**O: Bale, bueno zure hastapenean zer zenekien desgaitasunei buruz? Osea bazenituen asignaturak inklusioa, kirol egokitua eta horrelakoak?**

G: Ez ez, nik ez ibef-en eta ez magisteritzan asignatura bezala ez ditugu eduki, bai hitz egin da inklusioari buruz eta bueno ba eztabaidak horren inguruan ere egon dira, igual filosofikoagoa edo, baina horrelako irakasgai ez genuen. Bai erabiltzen ziren irakasgai batean ba ikasle talde batek presentatu behar zuena kirol egokitua izan zitekeen, eta horrelako gauzak ba bai balio dizute ba idea bat hartzeko, baina irakasgai bezala ez zegoen. Nik uste det interesgarria dela zerbait egitea heziketa fisikoan enfokatua, gutxienez denak edukitzea ba enfoke bat ikuspuntu horretatik.

**O: Zure hastapenean eta gaur egun desgaitasunak dituzten pertsonekin gorputz hezkuntza egiteari buruz daukazun jakintza hori aldatu da?**

G: Bueno, nik uste det esperientzia bat dakatela, eta horrek oinarri txiki bat ematen dit, non heldu jakinez eta esan ba hau egin det eta ondo joan da. Gainera, utzi ditut kriterio desberdinak zentro bakoitzean nola funtzionatzen duten ikusiz, eta nik horrekin ikusi dezaket zerekin ikusi naizen eroso eta zerekin ez, egia da modu guztietan ikusi naizela eroso, baina bueno gero aukera ematen badidate ba nire modura egingo nuke. Nik uste det nire formakuntza gehiegi ez dela aldatu, batez ere, nik bilatu detena eta esperientziagatik, baina bai ikusten naiz prestatuago, denborari esker eta praktikari esker.

**O: Zure ustez, irakaslearen paperak nolako garrantzia du gorputz hezkuntzan? Zenbat eragiten du horrek ere desgaitasunak dituzten pertsonetan? Garrantzi gehiago dauka edo ez?**

G: Bai dudik gabe, azkenean irakaslea da aukeratuko duena ze enfoke eman irakasgaiari, eta desgaitasuna duten ikasleak izan edo ez izan inklusibotasuna bilatu edo ez ere



irakasleak erabakiko du, taldekatzeak edo mailakatzeak, bakoitzari gauza ezberdin bat eskatuz. Nik uste det hori dena irakaslearen esku dagoela, aukeratzen duen metodologia ere, osea gauza guzti horiek bere esku daude. Eske dena dago bere esku, ikasle horiek klasean jasoko duten guztia bere estu dago, faktore asko dira eta batzuetan oso zaila da dena kontrolatzea, baina bai oso garrantzitsua dela ez dago dudarik.

**O: Zure ustez zer nolako ezaugarriak izan behar dituzte gorputz hezkuntzako irakasleek?**

G: Ee... ba bueno lehenengo nik uste pertsona guztiek eduki behar deguna dela, egiten zaiguna gustatzea edo lanbide hori gustatzea, pazientzia edukitzea, energia edukitzea ere bai, eta ikasteko gogoia, ba bueno hau dena etengabe aldatzen dioalako eta bueno ba guk ere aldatzen eta egokitzen joan behar degulako.

**O: Zutzako garrantzitsua da gorputz hezkuntzako irakasleak ikasleen gurasoekin komunikatzea?**

G: Behar izanez gero bai. Egia da batzuetan mantentzen ditugula distantziak, ez dakit den ez bonbardeatzeagatik gurasoak edo tutorearen esku uzteagatik komunikazio hori, baina bueno nik uste det batez ere hori, kasu honetan behar bereziak, lesionatuta daudenak, jarduera mota bat ezin dutenak egin edo urritasun mota ezberdinak dituztenak. Tutorearen bitartekaritza hori ba batzuetan saltatzea, nik kasuak izan ditut, adibidez, huesos de cristal zuen ikasle batek gauza asko ezin zituen egin, eta horretara egokitu egin behar dezu, hartara egokitzeko irakasle guztiek ez dizute balio, balio dizu familiak bakarrik, beraz horrelako kasuetan ba zuzenean ni jartzen naiz harremanetan gurasoekin. Edo ebakuntzaren bat egin behar dioten ikasleari, ba ni ere jartzen naiz harremanetan, eta uste det horrela egin behar dela. Baina kasuaren arabera da hori, eta gutxiengoa da, berezitasunen bat duten kasuetan.

**O: Bale, zure esperientzian oinarrituta, nolakoa da desgaitasunak dituzten ikasleak gorputz hezkuntzako saioetan parte hartzea? Zein zailtasun eta aukera daudela uste duzu?**

G: Bale, bueno ba azkenean pertsonaren arabera da, batzuentzako da kriston txutea joaten direlako zerbait ezberdina egitera egunerokoan ez dutelako egiten, beste batzuk ba eduki dituzten lesioengatik, daukaten sindromeagatik edo daukaten gauzengatik ez dira eroso sentitzen jarduera honetan eta sufrimendu bat izan daiteke. Baina nik uste det hori dela pertsona horrek eduki ditun esperientzien arabera, bueno ba batzuetan ba predisposizio bat izaten dute, eta zuk hori hobetzea lortzen badezu ba bueno... Baina hori pertsonaren arabera

dela esango nuke, ez da autismoa duteak super ondo eta desplazamenduko urritasuna dutenak super gaizki, baizik eta, jarrera kontua eta ikasle bakoitzaren arabera da.

**O: Zure ustez zein motako saioetan da inklusioa sustatzea errazagoa? Osea, adibidez, oposizioa dagoenean edo kooperatiboetan edo...?**

G: Nik psikomotorretan esango nuke, kooperatiboetan eta adierazpenekoetan ere. Oposizioan ya zailagoa da, bueno igual arauak moldatuz piska bat ba planteatu daiteke, behar diren egokitzapenak egiten. Kooperazio-oposizioa zailagoa ikusten det, ze beste ikasleen arazoa azaleratzen da, gehiegizko konpetibitatea, tolerantzia gutxi... Orduan, ba hori, nik uste det adierazpenekoetan ondo, nik izan dituten kasuetan ondo, eta psikomotorretan ba iritxi daitezke bakoitza iritxi daitekeen tokira, baina normalean ondo funtzionatzen du. Adibidez, nik lehengo urtean patinatzen eduki nituen autismoa eta atzerapen intelektuala zeukan ikasle bat eta super gustura ibili ziren, beraien esku zegoelako egiten zuten guztia eta bakoitzak ahal zueneraino iristen ziren, interakzioa bazegoen baina ez zen oinarritzkoa eta beste gauzetan oinarritzkoa da, kooperazio-aurkaritzakoan oinarritzkoa da interakzio oso handia dagoelako. Beraz, batez ere, ba hori, adierazpenetan, psikomotorretan eta kooperazioan.

**O: Bale, kalitatezko gorputz hezkuntza inklusioa lortzeko zer hobetu beharko litzateke?**

G: Ba baliabide gehiago, hau da, ba igual bi irakasle horrelako taldeetan. Taldea izan dadila eta ez dela izan paraleloan doan gela bat. Eta bueno ba ere ba lanketa bat, informazioa pasatzea ere bai, ba bueno ikasle hauen funtzionamendua heziketa fisikoan, beraien gaitasunak zenbateraino iritsi daitezkeen, edo zerek funtzionatzen duen eta zerek ez... Ba horrelako informazio kudeaketa bat ondo legoke, ze bestela normalean izaten da, ba bai gelan ondo egon da eta parte hartu du, baina bueno igual konpetentzietan ere piska bat lan gehiago egin dezakegu. Baina esaten dizutena azkenean 24 ikasle eta horietako bi behar bereziak dituztenak badira, ba bueno hori kudeatzeko oso zaila da, baina bi irakasle sartzen badira klase horretan ba hobeto. Ba bueno nik uste det kalitatea bilatzen badegu ratioak jaitsi behar direla eta irakasle bat sartu horrelako klaseetan.

**O: Bale oso ondo, bueno eta bukatzeko, zerbait geratu zaizu esan gabe? Edo zerbait gehitu nahiko zenuke?**

G: Ez, bueno gaia inportantea dela, eta inklusibotasuna landu daitekeela, baina bueno egunerokoan eskolan ditugun lan guztiekin eta gero dauzkagun erronkekin, ya gero planteatzea bueno orain inklusibotasuna landuko degu eta ez degu baliabide gehiago jartzen hori egiteko,

ba oso zaila dela. Orduan ez dagoela dena ere irakaslearen esku, osea nahiko nuke dena nire esku egotea, baina uste det ez dela egia, nik egiten det %100a, baina beharko nuke hezitzaile bat edo bi etortzea nire klaseetara, beraiekin planteatu gaurko helburuak hauek dira eta zer iruditzen zaizue behar berezia duen ikasleari helburu zehatz hauek jartzea, ez bakarrik ondo portatu izatea, horretaz gain ikasi beharko du nola iritxi hemendik areaino. Pues hori, erronka zehatzagoak eta egokituagoak izatea, baino benetan izan dadila erronka bestetei planteatzen zain bezalaxe.

**O: Bale, ba bueno oso ondo. Eskerrik asko.**

G: Ez da ezer.